

EUSKARAREN ERABILERAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK GAZTEENGAN

Egilea: Libe Alvarez Iruguenpagate


Eleaniztasuna eta Hezkuntza Unibertsitate Masterra

Zuzendaria: Jasone Cenoz Iragui



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

ESKERTZAK

Master Amaierako Lana bukatuta dago, hortaz, heldu da eskertzak izkiriatzeko unea. Prozesua laburra izan den arren, esperientzia bizi ugari probatzeko aukera izan dut. Lerrokada hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiot prozesu honetan laguntza eman didan orori, eta hasi baino lehen, aipatu nahiko nuke inolako konpromisurik gabe bete ditudala lerrook, sentitzen dudana baino ez dut aitortuko, beraz.

Lehendabizi, eskerrak eman nahi dizkiot nire zuzendari izan den Jasone Cenozi. Hasieratik zalantza, ezinegon eta buruhausteen aurrean laguntza eskaintzeagatik. Eta batez ere batzarrengatik, bertan gaiarekiko maitasuna eta emozioa elkarbanatu dugu eta asko irakatsi didazu, beraz, esker mila Jasone. Masterreko irakasleekin jarraiki, eskerrak eman nahi dizkiet masterreko irakasle guztiei, gaiaren inguruan motibatu, ikerketez gozatu eta gai anitz ezagutzeko aukera emateagatik. Zalantzarik gabe errepikatuko nuke esperientzia.

Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiot Eusko Ikaskuntzari. Zuek proposatutako ildo jarraituz prozesu oso ederra bizi izan dut gazteekin eta gainera asko ikasi dut. Horrez gain, gai hori jorrazteko aukera konkretuki neuri luzatzea asko eskertzen dizuet, nigan jarri duzuen konfiantza horrek ahalik eta lan borobilena egitera eraman bainau. Emandako laguntza guztiagatik, eskerrik asko. Horrez gain, Garbiñe Altunari Normalkuntzako teknikaria denari ere eskerrak eman nahi dizkiot emandako laguntza eta sostenguagatik.

Hirugarrenik, ezinbestekoa dut Paulo Alberdiri, Bilbo Zaharra Euskaltegiko irakasle denari, eskerrak ematea. Uneoro egon baitzara nire zalantzak entzuteko eta laguntza emateko prest. Bidea ez da laburra izan, beraz, eskerrik asko izandako pazientziagatik.

Eta, nola ez, ikerketa hau ahalbidetu duten ikastetxeei. Begoñazpi ikastola eta Mendebaldea ikastetxeko zuzendaritza taldeari eta prozesuan parte hartu duten gazte guztiei eskerrik asko. Oso polita eta berezia izan da zuekin lan egitea.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiot nire familiari eta Bilboko eta Markinako lagun-min guztiei, momentu onetan eta batez ere zailtan eman didaten laguntza leialarengatik. Eta, nola ez, eskerrik asko azken hiru urtean *nahi* hitzaren esanahia guztiz aldatu duenari. Nire familiako kideoi eskerrak eman nahi dizkizuet txiki-txikitatik euskaraz bizi, maitatu eta gozatu daitekeela egunero-egunero erakusteagatik. Eskerrik asko neure albotik indarra ematen didazueno, baita hor goitik egiten duzuenoi ere.

EUSKARAREN ERABILERAREN ALDEKO MOTIBAZIOAK GAZTEENGAN

“Euskal Herrian euskaraz nahi dugu hitz eta jolas lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz, bada garaia noizbait dezagun guda hori gal edo irabaz” (Amuriza, 1984).

Azken hamarkadan, euskararen erabilera kezka zentral bilakatu da gizartean eta hori da hain zuzen ere proiektu honetan jorratzen den gaia. Jarraian, esplorazio-ikerketak bat aurkeztuko da eta bertan EAEko bi ikastetxetako datuak aurkeztuko dira, bata Bilboko eta bestea Gasteizkoa direlarik. Ikerlanean 15-16 urte bitarteko gazteen errealitate soziolinguistikoa hurbiletik ezagutu nahi izan da. Helburua edota fokua motibazioaren alorrean jarri da, hau da, gazteek euskara erabiltzeko edo ez erabiltzeko arrazoiak identifikatzea izan da xedea. Benekotasun hori azaltzearen arduradunak gazteak izan dira, eurei eman zaie hitz egiteko txanda eta mikrofonoa; hortaz, hitz egiten ari den hau kontaktaren narratzailea baino ez da. Hori eskuratzeko hiru tresna metodologiko erabili dira: lehendabizi, galdetegiak; ondoren, focus-groupak; eta amaitzeko, banakako elkarrizketak. Emaitzak oso emankorrak izan dira, eta bertan, ikusi ahal izan da adin-tarte honetako gazteen jarrerak gizarteko aurreiritzi eta arau sozialek baldintzatzen dituztela. Aitorpen garbi eta gogorrak egin dituzte gaztetxoek, non, aukera eza, menpekotasun-sentsazioa, hizkuntza erabiltzeko lotsa edota erruduntasuna aipatu dituzten, beste batzuen artean.

Hizkuntza gutxitua, euskararen erabilera, gazteak, motibazioa, hizkuntzarekiko jarrerak

In the last decade, there has been growing concern about the diminishing use of Basque. In this study, it is presented an exploratory investigation analysing data from two high schools of the Basque Autonomous Community, one in Bilbao and the other one in Gasteiz. This paper analyses the sociolinguistic reality of young people between 15-16 years old. The aim of the study was to consider the motivation or the reasons why young people want to speak Basque or the reasons why they do not. Throughout the research, it has been the teenagers who have explained their reality first-hand, and thus the writer has adopted the function of narrator. Three methodological tools have been utilised: first, questionnaires; then, focus-groups; and finally, individual interviews. The data is striking in that it confirms that young people's attitudes are conditioned by the prejudices and social rules that are prevalent in today's society. Revealing confessions by the teenagers have been expressed, in which, among others, they have mentioned the lack of opportunities, the feeling of inferiority and guilt, and embarrassment to use the language as reasons not to speak Basque.

Minority language, use of Basque, youth, motivation, language attitudes

AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
2. MARKO TEORIKOA	8
2.1 Hizkuntza gutxituen egoera Europa mailan	8
2.2 Euskararen hizkuntza-politika.....	12
2.3 Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko amildegia	13
2.4 Euskara eta hezkuntza, D eredia	14
2.5 Euskararen erabilera eskoletan.....	16
2.6 Euskararen erabileraren inguruan egin diren ikerketak	17
2.7 Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD).....	20
2.8 Proposamenak, etorkizunera begira	22
3. TESTUINGURUA: Bilbo eta Gasteizko datu soziolinguistikoak	24
3.1 Bilbo (Bizkaia).....	26
3.2 Gasteiz (Araba)	27
4. IKERKETAREN PLANTEAMENDUA	28
4.1 Justifikazioa	28
4.2 Ikerketaren helburuak	28
4.3 Ikerketa galderak.....	28
5. METODOLOGIA	29
5.1 Sarrera	29
5.2 Lagina	29
5.3 Neurtzeko tresnak	30
5.3.1 Galdetegiak	30
5.3.2 Focus-group	31
5.3.3 Sakoneko elkarrizketak.....	31
5.4 Prozeduraren inguruko datuak	32
5.5 Estandar etikoak.....	33
6. EMAITZAK.....	34
6.1 Zein da gazteen euskararen erabilera?	34
6.2 Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?	36
6.3 Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?.....	43
7. ONDORIOAK.....	64
7.1 Euskararen erabilera, faktoreak, motibazioa eta etorkizuna	64
7.2 Lan honen mugak.....	75
7.3 Etorkizunerako proposamenak.....	76
8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	79
9. ERANSKINAK.....	85

IRUDIEN ETA TAULEN AURKIBIDEA

2.1. Taula: Irlandan jaiotako biztanleen Irlandera jarioa.	11
2.2. Taula: Irlanderaren erabilera maiztasuna.	11
2.3. Taula: EAEko hizkuntza erabilera 1989-2016.	14
2.4. Taula: D ereduko ikasleen eskolako erabilera orokorra.	15
2.5. Taula: Ikasleen eskolako erabilera ezberdinak, ARRUE proiektua.	16
3.1. Taula: EAEko hizkuntza-gaitasuna.	24
3.2. Taula: Hizkuntza gaitasuna EAEko lurraldeetan.	24
3.1. Irudia: Euskaldunen bilakaera adinaren arabera, 1981.	25
3.2. Irudia: Euskaldunen bilakaera adinaren arabera, 1981.	25
3.3. Taula: Euskararen erabilera EAEn.	26
3.4. Taula: Bilboko hizkuntza erabilera.	26
3.5. Taula: Gasteizko hizkuntza erabilera.	27
5.1. Taula: Ikasleen eta gurasoen jatorria.	30
5.2. Taula: Ikasleen eta gurasoen lehen hizkuntza.	30
6.1. Taula: Ikasleen erabilera denak (%).	34
6.2. Taula: Kultur-kontsumoa.	35
6.3. Taula: Euskararen garrantzia eta prestigioa.	37
6.4. Taula: Adina.	41
6.5. Taula: Euskaraz ez egiteko arrazoiak.	43
6.6. Taula: Euskaraz ez egiteko arrazoiak.	47
6.6. Taula: Hizkuntza gaitasuna.	50
6.7. Taula: Hizkuntza zailtasuna.	50
6.8. Taula: Hizkuntza atxikimendua.	51

1. SARRERA

Azken hamarkadetan euskara eta honen erabileraren alorra asko aztertu izan den gaia da. Hurrengo atalean egungo egoera zein den zehaztuko da, datu konkrituak emanez, hori izan baita gizarteko eremu anitz euskararen normalizazioaren alde egitera bultzatu dituen. Master Amaierako Lan honetan egungo egoera aztertu nahi izan da, baina kasu honetan lagin konkritu bat aztertu da: gazteena, hain zuzen ere.

Ikerketan gazteen errealitate linguistikoa hurbiletik ezagutu nahi izan da, eta horretarako beraien errealitatea, bizipenak eta sententzioak partekatzea eskatu zaie. Lehendabizi, beraien ahotsa entzun da, noski, eta hortik abiatuta emaitzak interpretatu dira; hortaz, ikerketaren funtsa datu kualitatiboetan oinarritzen da. Helburua gazteek euskara erabiltzeko duten motibazioa eta motibazio eza ezagutzea izan da. Gainera, hizkuntza-praktika baldintzatzen duten arazoak aurkitzeak euskararen biziberritze eta normalizazioa ahalbidetu dezaketen gakoak ere eman ditzake.

Ikerketan zehar kontzeptu batzuk asko errepikatuko dira, hori dela eta, hasiera batetik horien esanahia zehaztuko da. Alde batetik, **ama-hizkuntza edo lehen-hizkuntza** kontzeptua dugu; honek ikasten den lehen hizkuntzari egiten dio erreferentzia, hortaz, testuinguruak eta gurasoen hizkuntza-gaitasunak baldintzatzen duten hizkuntza da. Azken aldian, ama-hizkuntza terminoa ekiditeko saiakera egin da, kontzeptuak barne hartzen dituen konnotazioak direla eta. Bestetik, **hezakuntza ez-formalaren** kontzeptua dugu, hitz honek ikasleek eskolaz kanpo egiten dituzten ekintza orori egiten dio erreferentzia, hala nola: kirola, akademia eta bestelakoei; horietako batzuk publikoak eta beste batzuk pribatuak direlarik. Azkenik, **motibazioaren** kontzeptua dugu, Buenoren (1993) arabera motibazioa, testuinguruan aldaketak sorrarazten dituzten egitekoen sortze-, mantentze- eta erregulazio-prozesua da. Horrez gain, motibazioa, Bigarren Hizkuntza eskuratzean ikaskuntza arrakastatsu bat izateko faktore esanguratsu gisa ere identifikatu da (Dörnyei, 2009). Azken kontzeptu hau bereziki garrantzitsua da, hauxe baita lanaren mamia; gainera, Sanchez-ek (1987) esaterako, hizkuntza baten erabilera honen ezagutza eta motibazioarekin lotu zituen.

Master Amaierako Lan honek estruktura jakin bat jarraitzen du kontzeptuak ondo antolatuta egon daitezen. Hasteko, oinarri teorikoen atala dago, bertan ikerketaren

aurrekariak zeintzuk diren finkatu eta marko teorikoa azaltzen da. Jarraian, ikerketaren planteamendua lantzen da, non, justifikazioa, helburuak eta ikerketa galderak aipatzen diren. Segidan, erabilitako metodologia zehazten da, baita hori aurrera eramateko jarraitu den prozedura ere. Gero, eskuratutako datu esanguratsuenak eta ideia horiek borobiltzen dituzten ondorioak azaltzen dira. Hurrengo, izandako mugak aipatu eta etorkizunean egin daitekeena zehazten da. Amaitzeko, erreferentzia bibliografikoak eta erabilitako iturriak aipatzen dira; eta horren ondoren, eranskinen atala txertatu da, bertan lana burutzeko erabili diren ereduak jarri direlarik.

2. MARKO TEORIKOA

2.1 Hizkuntza gutxituen egoera Europa mailan

Marko teorikoarekin hasteko, hizkuntza gutxituen ezaugarriak eta Europako errealitate ezberdinak aipatuko dira, euskararena barne. Atal honen helburua euskararen egoera perspektiba globalago batetik ikustea da. Horretarako, AILA Review dokumentuan Cenoz eta Gorter-ek (2008a) jasotako datuak erabiliko dira, bertan eleaniztasuna eta hizkuntza gutxituak aztertzeaz gain, hezkuntzaren alorrean hizkuntza hauek eskuratu dituzten lorpenak eta zintzilika dituzten erronkak azaltzen baitira. Dokumentuan zehar bost dira uneoro aipatzen diren hizkuntza gutxituak: euskara, katalana, frisiarra, irlandera eta galesa. Cummins-ek (2008) hauek “unique minority languages” gisa definitzen ditu, euskarara itzuliz gero “hizkuntza gutxitu bakan”-ak izango liratekeenak. Horrez gain, autore honek aipatzen du funtzionaltasun gutxi dutela hurbileko esparrutik at, eta zonaldearen barruan ere gutxitan omen dira beharrezkoak, biztanleria osoak menperatzen baitu hizkuntza nagusia. Bestalde, Cummins-ek (2008), euskara eta katalanaren aldeko suspertzea azpimarratzen du; izan ere, frisiarra, irlandera eta galesaren arrakasta ez da hain nabarmena izan. Suspertze horretan hezkuntzak zerikusi handia izan du, murgiltze eta hezkuntza elebidun programei esker ikasle askok eskuratu baitute jariakortasuna hizkuntza gutxituan. Ideia hori Cenoz-ek (2008) ere berresten du.

Aurreko paragrafoan hizkuntza gutxituen kontzeptua aipatu da, eta argi gera dadin jarraian definizio labur bat emango da. Hizkuntza gutxitua, zenbakietan herrialdea baino biztanleria txikiagoa osatzen duen taldea da; hauek ezaugarri etniko, erlijioso edo bereizgarriak dituzte gainerako biztanleriarekin alderatuz gero. Gainera, elkartasun zentzu bat erakusten dute beraien kultura, tradizio, erlijio edota hizkuntza babestearekiko (Capotorti, 1979). Cenoz eta Gorter-ek (2008b) aipatzen dute hiztunek hizkuntza gutxitua beraien identitatearen parte sentitzen dutela.

Aldez aurretik, bost hizkuntza gutxitu aipatu direnez (euskara, katalana, frisiarra, irlandera eta galesa), jarraian horien arteko antzekotasun eta ezberdintasunak zeintzuk diren azpimarratuko da (Cenoz eta Gorter, 2008b). Hauek dira aurkitutako antzekotasunak: Europar Batasunean hitz egiten diren hizkuntzak dira; autoktonoak dira; hizkuntza nagusi batekin kontaktuan daude; eta, “bakan”-ak dira, ez baitira beste

herrialde batzuetan erabiltzen hizkuntza nagusi gisa. Horrez gain, erronka orokor batzuk elkarbanatzen dituzte: hizkuntza estandarren erabilera hezkuntzan; lege-bermea; hezkuntzarako material didaktikoa sortzeko oztopoak dituzte hizkuntza nagusiekin alderatuz gero; irakaslegoak hizkuntza nagusiak gutxituak baino hobeto menperatzen dituzte; eta, gizarte modernoari aurre egin behar diote (teknologia berriei, eta abar). Ezberdintasunei dagokionez, hauek aipatu behar dira: jatorri Indo-Europearreko hizkuntzak dira, denak euskara izan ezik, azken honen jatorria ezezaguna da oraindik; hizkuntza gutxitu eta nagusiaren arteko tartea ezberdina da kasu bakoitzean, euskara eta gaztelania esaterako oso desberdinak dira; hiztun kopurua ere ezberdina da, katalanak 9 milioi inguru ditu, euskara eta galesak 600.000, frisierak 400.000 eta irlanderek 664.000; babes ofizialaren mailan ere ñabardurak daude; eta hezkuntzan duten presentzia eta ingelesaren erabilera ere ez dira parekoak.

Galesa eta Irlandaren kasuak

Aurreko atalean ikusi da euskararena ez dela fenomeno isolatu bat, beste hizkuntza batzuek ere errealitate antzekoak bizi baitituzte. Orain arte, bost hizkuntza gutxitu aipatu diren arren, atal hau galesa eta irlandaren errealitatean zentratzea erabaki da. Izan ere, euskarak bi hizkuntza horiekin antzekotasun aipagarriak partekatzen ditu, galesarekin hezkuntzaren alorra esaterako eta irlandarekin ikasleek hizkuntzarekiko duten jarrera. Antzekotasun horiek bereziki interesgarriak direnez, bi hizkuntza konkretu horiek aukeratu dira konparaketa hurbilago bat egiteko. Dena den, argi dago hizkuntza bakoitzaren errealitatea bakana dela eta ez daudela bi hizkuntza berdina.

Hasteko, UNESCO Atlas of the World's Languages in Danger-en (Moseley, 2010) aipatzen dena aztertuko da, bertan, munduko hizkuntzen desagerpena mailaka antolatzen baita. Sailkapenean euskara eta galesa hizkuntza “ahul” edo “makal”-en taldean sartzen dira, eta talde horren ezaugarriak hauek dira: ume gehienek hizkuntza horretan hitz egiten dute, baina erabilera eremu konkretu batzuetara mugatuta dago (etxeko eremura esaterako). Bestetik, irlandera “zalantzarik gabe galtzear dagoen hizkuntza” taldean sartzen da, hau da, dagoeneko umeek etxean ez dute hizkuntza hau lehen hizkuntza gisa ikasten.

Gales hizkuntzaren egoera aipatuko da lehendabizi. Galesa Europako hizkuntza gutxitu bat da eta Galesen hitz egiten da. Gaur egun, hezkuntza-sistemak izugarritzko garrantzia du honen transmisioan, baita ezagutzaren igoeran ere. Dena den, horrek bere mugak ditu, izan ere, sarri hizkuntza bera egoera formalekin lotu izan da (Price and Tamburelli, 2016). Dena den, gales bidezko hezkuntzak kasu batzuetan seriotasun eta baserriar konnotazioa jaso du, eta ingeles bidezko hezkuntzak, aldiz, programa lasaiago eta globalago baten ezaugarriak. Ikasle batzuek galesa inposaketa gisa pertzibitzen dute eta, ondorioz, jakin arren ez dute hizkuntza erabiltzeko nahi edo gogorik (Price and Tamburelli, 2016).

Euskararekin gertatu den moduan, galesa hitz egiteko gaitasuna duen biztanle-kopuruak gora egin du 1991ko datuak 2001ekoekin alderatuz gero, igoera gales bidezko hezkuntza ereduari esker izan liteke (Jones, 2014). Baina, 2001eko datuak (%20,8) 2011koekin (%19) alderatuz gero galesa mintzatzen duen hiztun-kopuruan beherakada egon dela nabaritu daiteke. Horrez gain, Jones-ek (2014) 2001eko datuetan oinarrituz irakaslegoaren %33ak galesez mintzatzeko gaitasuna duela aitortzen du.

The Welsh Government eta The Welsh Language Commissioner-ek (2015) biztanleria jarraian aipatzen diren bost adin-tartetan sailkatzen du: 3-15, 16-29, 30-44, 45-64 eta 65etik gorakoak. Horrez gain, aipatzen dute galesa egunero hitz egiten duen biztanleen ehunekoa antzekoa dela adin-tarte ezberdinetan, salbuespen batekin, 3-15 urte bitartekoek besteek baino dezente gehiago erabiltzen baitute galesa. Kasu guztietan biztanleriaren %10 inguruk erabiltzen du galesa egunero, baina 3-15ko adin-tartean, aldiz, %25 inguruk.

Ikerketa horretan, erabilera-maiztasuna ere aztertzen da; horretarako aurreko bost adin-tarteak erabiltzen direlarik. Bertan, ikus daiteke biztanleen %53-59k galesa egunero erabiltzen duela, 16-29 adin-tartekoek izan ezik, hauen kasuan maiztasuna baxuagoa baita, %39koa, hain zuzen ere. Dokumentuan ez da jaitsieraren arrazoia azaltzen, baina agian sasoi horretako bizitza-aldaketak izan litezke horren eragile; besteen artean gazteek bizilekua aldatzen baitute ikasketengatik eta horrek ohitura ezberdinak dituzten talde sozial heterogeneoak sortzen ditu (The Welsh Government eta The Welsh Language Commissioner, 2015).

Irlanderari dagokionez, hizkuntza hau Irlandan erabiltzen den hizkuntza gutxitu gisa sailkatu daiteke. Kasu honetan aipatu beharra dago Irlandako Errepublika eta Ipar-Irlandan hezkuntza eredu ezberdinak daudela, eta beraz, gazteek hizkuntza-esposizio ezberdina dutela. Ipar-Irlandan, ez da irlandera erabiltzen eskola guztietan; eta Irlandako Errepublikan, aldiz, irakasgai zentral bat da (Darmody and Daly, 2015). Kasu batzuetan, ikasleek jarrera ezkorrak dituzte hizkuntzarekiko, izan ere, beraietako batzuek irlandera beste irakasgai batzuekin alderatuz ez dute hain interesgarritzat hartzen; beraien ustez, ingelesa erabilgarriagoa baita orokorrean. Aurreko egoera eta euskara eta gaztelaniarena erraz alderatu daitezke, oso parekoak baitira. Aitzitik, hizkuntzaren ezagutza aztertzea garrantzizkoa denez, jarraian, taula bat egin da, datuak Mac Gréil eta Rhatigan-en (2009) ikerketatik atera direlarik.

2.1. Taula. Irlandan jaiotako biztanleen Irlandera jariora (%).

	Oso handia	Handia	Erdizkakoa	Txikia	Oso txikia
Hizkuntza gaitasuna	9,1	22,1	15,9	36,9	16,0

Ondoren txertatu den taulan irlanderaren erabilera bilakaera ikus daiteke, 1988-89ko datuak 2007-08koekin alderatzen baitira (Mac Gréil and Rhatigan, 2009). “Inoiz ez” lerroa aztertuz gero, egoerak txarrera egin duela ikus daiteke, eta gauza bera gertatu da euskararen kasuan.

2.2. Taula. Irlanderaren erabilera-maiztasuna (%).

Erabilera maiztasuna	Lagin osoa 2007-08	Irlandan jaiotakoak 2007-08	Lagin osoa 1988-89
Astero edo sarriago	9	11	10
Batzuetan	11	12	18
Gutxitan	20	23	23
Inoiz ez	60	55	50
<i>Zenbakia</i>	<i>1,015</i>	<i>855</i>	<i>975</i>

Laburbiltzeko, atal honetan hizkuntza gutxituak zer diren eta nolako ezaugarriak dituzten aipatu da. Aurretik azaldu den moduan, interesgarria da euskara beste hizkuntza gutxitu batzuekin alderatzea, antzekotasun anitz partekatzen baitituzte. Horrek zalantzarik gabe ulermen global eta osotuago bat eskaintzen du. Aurrerantzean konparazioak alde batera utzi, eta euskara eta honen erabilera aztertuko dira.

2.2 Euskararen hizkuntza-politika

Atal honetan EAEko politika linguistikoa zein den eta noizkoa den finkatuko da, horrek mugatu eta finkatzen baitu egungo errealitatea. Hasteko, Soziolinguistika eskuliburuan aipatzen den Zarragaren (2010) aipua goraiatu daiteke “askotan pentsatzen da hizkuntza-politika eta planifikazioa hizkuntza gutxituei eta txikiei loturiko kontuak direla, baina esan daiteke gizarte guztiek arautzen dutela, inplizituki nahiz esplizituki, hizkuntzen erabilera” (77 or.). Beraz, ideia hori argitu ostean, euskararen hizkuntza-politikaren ezaugarri nabarmenenak aipatuko dira.

1979an Euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizial gisa ezarri zen, Autonomia-Estatutuko 6. artikuluan; horrek komunitateko hiztunei hizkuntza ezagutu eta erabiltzeko eskubidea eman zielarik. Artikuluan euskara “herri euskaldunaren berezko hizkuntza gisa” definitu zen, eta “berezko” aitortpenak dimentsio sinbolikoa aurkezteaz gain, sustapen neurriak hartu eta erabilera lehenestea justifikatu zituen.

1982an euskararen normalizazio linguistikoa ezarri zen EAEn, 10/1982 legearen bidez. Ondorioz, Euskadiko herritar partikularrei eta autoritateei euskara babesteko eskatu zitzaizen; Erkidegoko botere publikoen esku utzi zutelarik garapena eta erabileraren normalizazioa ziurtatzeko neurriak hartzeko eginbeharra. Horretarako kontuan hartu behar da euskararen dimentsio bikoitza, alde batetik, Euskal Herriaren ondare kulturala dela eta bestetik, gaztelaniarekin bat, EAEko hizkuntza erabilietako bat dela. Lege hau, euskara erkidegoko identitatearen ikur ikusgai gisa aitortzeko egin zen; baita gizabanakoaren integrazioarako tresna gisa ezartzeko ere.

Urtebete beranduago, 1983an 138/1983 Dekretua onartu zen. Horren bidez, EAEko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautu eta onartu zen, hau da, euskarazko ereduak sortu ziren. Ordurarte, 1975eko inkesten arabera EAEko elebidunak biztanleriaren %25a baino ez ziren (Aztiker, 2018). Legea ezarri zen momentutik, urterik urtera D eta B ereduetako eskaintzak gora egin du eta euskalduntze-prozesu hori ahalbidetzeko hezkuntzaren esku-hartzea funtsezkoa izan da. Dena den, Aztiker soziologia ikerguneak (2018) euskalduntzean eta euskara-mailan atzerakada egon dela azpimarratzen du; eta horrez gain, ISEI-IVEIk egindako 2015eko

Ebaluazio Diagnostikoa ere aipatzen du, non, DBH 4. mailako ikasleen hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian atzerapausoa egon dela aipatzen den.

Euskal ereduaren gorakada, 1979ko Errege-Dekretuaren bidez hasi zen baina lege eraginkorra 1982ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea izan zen; bertan, irakaskuntzaren inguruan helburu zehatzak zehaztu eta ikasle orok ikasketak euskaraz eta gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortu baitzen. Administrazioak eskubide hori ahalbidetzeko neurriak hartu zituen, euskara barne hartzen zuten ereduak sortuz, aukeraketa familien esku geratzen zelarik.

2.3 Euskararen ezagutza eta erabileraren arteko amildegia

Urteetan zehar euskararen egoera asko aldatu da, eta azken hamarkadako bitxia izan da Euskal Autonomi Erkidegoan. Funtsezkoa da euskaldun-kopuruan egon den gorakada aipatzea, eta hori berresteko bi iturri ezberdinetako datuak erabili dira. Hasteko, Eustatek (2018a) EAeko 2 urtetik aurrerako hiztunen hizkuntza-gaitasuna aztertu zuen, eta 2016ko datuen arabera populazioaren %42,20 euskalduna da, %18,46 ia-euskalduna eta gainerako %39,33 erdaldun elebakarra; hortaz, biztanleriaren erdiak baino gehiagok badaki euskara. Bestalde, ezinbestean aipatu beharra dago Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoak (2016) argitaratutako VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Dokumentu horretan 16 urtetik gorakoen datuak aztertu ziren eta ikusi zen EAeko biztanleriaren %33,9 euskalduna dela, %19,1 euskaldun hartzailea eta gainerako %47a erdalduna. Bi iturrietako datuak alderatuz gero ezberdintasunak nabaritu daitezke, baina kontuan izanik kasu batean lagina 2 urtetik aurrerako biztanleria dela eta bestean 16 urtetik aurrerakoa, diferentzia zuzenetsia dago. Halaber, erabilerari dagokionez, berriro ere VI. Inkesta Soziolinguistikoa aipatu beharra dago (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernuak eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016). Honen arabera, EAeko herritarren %63,3k beti erdaraz egiten du; %6,1k oso gutxi euskaraz; %10,1k euskaraz erdaraz baino gutxiago; %7,1k euskaraz erdaraz beste eta %13,4k euskaraz erdaraz baino gehiago. Ehunekoak ikusi ostean, begi-bistakoa da euskararen ezagutza eta erabilera ez direla parekoak.

Euskararen biziberritzearen alorrean, euskararen erabilera kezka zentral bihurtu da aspaldian, eta Iurrebasoren (2012) esanetan, moteltzen edo gelditzen doa. Alor hori

ulertzeko hurrengo aipua interesgarria da: “azken 25 urteotako bilakaera aztertuz gero, euskararen erabilera trinkoak ia 3 puntu egin du gora euskararen eremu osoan” eta ideia hori azaltzeko ondorengo azpimarratzen da “... erabilera trinkoak izan duen hazkundera EAeko hazkundera da (5 puntuko igoera)” (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016, 24 or.).

Bereziki interesgarria da azken urteetako erabilerak konparatzea, hor baitago errealitatea ezagutzeko gakoak. Horretarako, Soziolinguistika Klusterrak (2017) plazaratutako dokumentua erabiliko dira, bertan azken hogeita zazpi urteetako datuak konparatzen baitira. Jarraian txertatutako taulan ikus daiteke Araban azken bost urteetan erabilerak gora egin duela (0,6 puntu); Bizkaian azken hamar urteetan behera egin duela (1,8) eta Gipuzkoan behera egin duela azken bost urteetan (1,5 puntu) (Soziolinguistika Klusterra, 2017).

2.3. Taula. EAeko hizkuntza erabilera 1989-2016 (%).

	1989	1993	1997	2001	2006	2011	2016
Araba	3,9	4,2	4,0	4,2	4,7	4,0	4,6
Bizkaia	8,1	9,6	10,5	10,7	10,6	9,4	8,8
Gipuzkoa	23,3	23,9	27,6	29,5	32,0	32,6	31,1

2.4 Euskara eta hezkuntza, D eredia

Aurrez azaldu den bezala, 138/1983ko Dekretuan Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautu zen, eta horri esker euskarak bere lekua eskuratu zuen hezkuntzaren alorrean.

Eguno EAeko hezkuntza-ereduak zeintzuk diren (A, B eta D) gai jakina da; baina, hauen aukeraketa interesgarria da, izan ere, azken hamarkadan aldaketa nabarmena egon da. Egoera ulertzeko Eustat-ek (2005) plazaratutako 2003-04ko ikasturteko datuak, Eustat-ek (2018b) plazaratutako 2016-17koekin alderatu dira, horretarako Bigarren Hezkuntzako ikasleen datuak soilik erabili direlarik. Eustat-eko (2005, 2018) datuen arabera, A ereduko ikasle kopurua %29tik %7,89ra jaitsi da, B eredukoak gora egin du %22tik %24,12ra eta D eredukoak gora egin du %48tik %67,34ra. Hiru eredu horietaz gain, X eredia edo euskararik gabeko eredia ere badago, 2003-2004 ikasturtean %1k aukeratu zuen eta 2016-2017an, aldiz, %0,65k. Euskaldun-ereduen

gorakadak gazteen hizkuntza-ezagutza eta alfabetatzea ekarri du berorrekin.

Sasoi batean pentsatzen zen eskolak etorkizuneko haur eta gazteak euskaldunduko zituela eta hizkuntzaren biziberritzean lagunduko zuela (Zalbide, 1996). Baina, susmo hori ez da bere horretan bete, zeren, gaur egungo errealitateari erreparatuz gero, ikus daiteke ezagutzan gorakada nabarmena egon dela (besteen artean D ereduaren efektua dela eta), baina erabileran ez da gauza bera gertatu eta hori jarraian ikusi daiteke.

Jakina denez, ikerketa honetako protagonistak 15-16 urteko gazteak dira; horregatik, adin-tarte horretako datuak zehaztuko dira jarraian. Txertatutako datuak irakurtzeko, kontuan izan behar da ikasle guzti hauek hizkuntza mintzatzeko gaitasuna dutela, izan ere, D ereduko ikasleak dira eta beraz, euskara da irakasgai gehienak lantzeko erabiltzen duten hizkuntza. Emaitzak argiago ikusteko taula bat egin da Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritzak (2017) argitaratu zuten ARRUE ikerketako datuekin.

2.4. Taula. D ereduko ikasleen eskolako erabilera orokorra (%).

	Guztia euskaraz	%70,1-%99,0 euskaraz	%30,1-%70,0 euskaraz	%1,0-%30,0 euskaraz	Euskararik ez, %0,0
2015	22,82	18,4	43,86	13,62	1,3

Aurreko datuak erabilera orokorraren ingurukoak dira, horiek eskuratzeko lau mendeko aldagai uztartu ziren: ikaskideen arteko erabilera gelan eta jolastokian, eta irakasleekin erabiltzen den hizkuntza gelan eta gelatik kanpo (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritzak, 2017).

Datuak hauek erakusten dute euskararen kasuan ezagutza eta erabilera ez direla parekoak, izan ere, datuak D ereduko ikasleenak dira, eta hauek irakasgai guztiak euskaraz egiten dituzte, ingelesa eta gaztelania izan ezik; beraz, suposatzen da hizkuntza-gaitasuna badutela. Baina gaitasuna izatearen eta erabileraren artean amildegi moduko bat sortu da. Horrek zer pentsatu ematen du, agian ezagutzak ez baitu erabilera ziurtatzen. Martinez de Lunak (2001) erabilera mugatu dezaketen faktoreak ikertu eta hiru dimentsiotan antolatu zituen: indibiduala, mikro-soziala eta makro-soziala. Indibidualean, norberaren gaitasun eta motibazioak aipatzen ditu; mikro-sozialean baldintza demolinguistiko eta harreman-sareak; eta makro-sozialean hizkuntzaren onarpena eta erakargarritasuna. Aitzitik, aipatzen du hiru dimentsioen arteko harremana

dinamikoa dela; hortaz, horietako bat aldatzen baldin bada beste biak ere aldatu egiten dira. Hala ere, kontuan hartu behar da agian euskara-maila ez dela oso altua, izan ere, iturri ezberdinetan ideia hori zalantzan jarri da, esaterako ISEI-IVEIn (Egaña, 2005).

2.5 Euskararen erabilera eskoletan

Atal hau eskolako erabilera zentratzen da, eta alor honetan funtsezkoa da besteen artean Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritzak (2017) argitaratutako ARRUE ikerketa aipatzea. Bertan EAEko ikasleen euskara-erabilera aztertzen da, baina zutabe garrantzitsuena eskola-giroko praktika linguistikoa da zalantzarik gabe. Ikerketa honek barne hartzen ditu A, B eta D ereduak ikasleak, nahiz eta ikasle gehienak D ereduak izan. Nahiz eta proiektuan Lehen Hezkuntzako 4.mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.mailako ikasleak aztertu, jarraian ARRUE ikerketako (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritzak, 2017) DBH2ko ikasleen datuak soilik azalduko dira.

2.5. Taula. DBH2ko ikasleen eskolako erabilera ezberdinak (%).

	2011	2013	2015
Ikaskideekin gelan	52,3	52,8	52,0
Ikaskideekin jolaslekuan	36,5	35,9	34,3
Irakasleekin gelan	82,1	85,5	83,9
Irakasleekin gelatik kanpo	76,5	79,7	78,3
Erabilera orokorra	55,6	56,6	55,2

Eskolako erabilera orokorra zein zen kalkulatzeko gainerako lau erabilera (ikaskideekin gela eta jolastokian; eta irakasleekin gelan eta gelatik kanpo) erkatu ziren. 2011 eta 2015eko datuak alderatuz gero, ikus daiteke eskola-giroko euskararen erabilera gorakada txiki bat egon dela, baina ikaskideekin jolaslekuan euskaraz egiteko joera bere horretan mantendu da. Aiestaran, Cenoz eta Gorter-ek (2013) azaltzen dute erabilera horietako batzuk (irakasleekin gelan eta gelatik kanpo) botere-harremanen menpeko egoerak direla, baita horrek ikasleen joera baldintzatu dezakeela ere.

Arestian ikusi ahal izan den moduan, Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritzak (2017) argitaratutako ARRUE ikerketan ikergai zehatza ikasleen eskola-giroko hizkuntza-erabilera da. Aiestaran, Cenoz eta Gorter-en (2013) arabera “Adin-

talde gazteenei erreparatzea besterik ez dugu: askoren lehen hizkuntza ez da euskara, erabilera-esparru formaletan hobeto moldatzen dira informaletan baino eta bizi diren zonaldeetan euskara erabiltzeko aukera gutxi dute” (169 or.). Esaldi honek azken boladan euskal hiztunaren profila aldatu egin dela aitortzen du.

Horrez gain, D ereduko ikasleei erreferentzia eginez hauxe aipatzen dute: “...talde moduan euskaraz gaitasun-maila altuena dutelako, eta, aldi berean, euskara/gaztelania hautua <jokoan> dagoelako” (Aiestaran, Cenoz eta Gorter, 2013, 171 or.). ARRUE-ko (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza, 2017) datuen arabera, D ereduko artean ere adinean aurrera egin ahala gaztelaniaz aritzeko joerak gora egiten du: LH4n euskara da nagusi gelan, eta jolaslekuan bi hizkuntzak bertsu erabiltzen dira; DBH2n, berriz, gelan dago hizkuntzen arteko oreka baina jolastokian zalantzarik gabe gaztelania da nagusi.

2.6 Euskararen erabileraren inguruan egin diren ikerketak

Aurreko atala eskoletako euskararen erabilerari buruzkoa izan da. Jarraian, aurretik aipatu ez diren eta interesgarriak izan daitezkeen proiektuak aipatuko dira, esaterako: hizkuntza erabiltzeko motibazioaren eta D ereduaren ingurukoak.

Lehenik, Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri et al.-ek (2013) euskaldunberrien inguruan argitaratutako ikerketa aipatuko da, non, ikasleen euskararekiko jarrera eta motibazioa aztertu zituzten. Ortega et al.-ek-k (2013) euskaldunberria kontzeptua berdefinitu zuten “familia-transmisioa ez den beste bide batean ikasi duten pertsona guztiak” (153 or.). Horrela betiko kontzeptua alde batera utzi zuten, izan ere, euskaldunberria historikoki euskara helduaroan ikasi duen pertsona izan da. Aurreko kontzeptuarekin lotuta, Ortega et al.-ek (2013) ideia interesgarri hau aipatu zuten: “Esan daiteke euskararen normalizazioa eta biziberritzearen etorkizuna hiztun berrien jarrera eta jokabideengan badagoela, neurri handian” (153 or.). Proiektu honek hiru ondorio nagusi ditu: alde batetik, “euskaldunberriek” beraien burua euskaldunberri edo euskaldun gisa identifikatzen dutela, baina inoiz ez euskaldun zahar moduan; bestetik, euskaraz hitz egitea eta euskalduna izatea ez direla pareko ideiak, hortaz, euskaraz egiteak ez gaitu zertan euskaldun bihurtzen; eta, azkenik, hiztun batek bere burua euskaldun

konsideratzeko ezaugarriak zerrendatu zituzten: erabiltzeko aukerak, komunikazio-gaitasuna, erabiltzea, euskaraz pentsatzea eta hizkuntzarekiko atxikimendua.

Bigarrenik, Amorrortu eta Ortegak (2009) gurasoek beraien seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan eskolaratzeko arrazoiak aztertu zituzten. Nahiz eta ikerketaren lagina gurasoak izan, motibazioaren alorra lantzen da eta honek gurasoen ideiak gazteenekin konparatzeko aukera ematen du. Egileek ikusi zuten guraso batzuek motibazio integratzaileengatik aukeratzen dutela D eredua, besteen artean euskararekiko konpromisoagatik eta integratzeko helburuarekin. Beste batzuek, aldiz, motibazio instrumentalarengatik egiten dute, hala nola, euskararen prestigioa handitu delako edo beharrezko hizkuntza delako. Gainerakoek, eleaniztasunaren inguruko aurreiritziengatik eraginda hartzen dute erabakia, besteak beste: euskara hizkuntza zaila delako, umeentzako hizkuntzak ikastea helduentzako baino errazagoa delako, murgiltzea delako euskara ikasteko metodo bakarra, gero eta hizkuntza gehiago ikastea hobea delako eta euskarak etorkizun oparoa duelako. Ondorioz, ikerketan ikusi daiteke anitz izan daitezkeela gurasoen motibazio-iturriak. Bestetik, ideia interesgarri bat ere aipatzen da, Amorrortu eta Ortega (2009):

“seme-alabak B edo D ereduetan eskolaratu ostean guraso asko euskara ikasten jartzen direla, helburua apur bat (umeei etxeko lanekin laguntzeko beste) ikastea bada ere; gurasoak euskararen munduan seme-alabek egiten dituzten jardueren bidez ere inplikatzeko direla, ez bakarrik eskolako jardueretan, aisialdikoetan ere bai” (600 or.).

Aurreko ikerketa interesgarria da motibazioaren alorra bi ikuspuntutatik aztertzeko.

Hirugarrenik, Quintanillaren (2014) ikerketa aipatzea funtsezkoa da, proiektu honekin oso lotuta baitago. Lanean zehar, Quintanillak (2014) ondorengoa dio “baina isilpeko ahotsa izan ohi da maiz gazteena, gazteek hitz egiten baita gazteekin baino gehiago” (87 or.). Ikerketa honetan, autoreak gazteek euskararekin duten harremana aztertu du. Ondorio interesgarriak plazaratzen ditu amaieran, esanez eskolak soilik ezin dituela gazteak euskaldundu. Halaber, aipatzen da gazteek erreferente euskaldunak eta esperientzia positiboak behar dituztela euskara hurbilago sentitzeko. Azkenik, interpretazio esanguratsu bat egiten du, esanez ezin dela errealitate eleanitza ukatu eta

beraz, gazteei funtzio sozialak euskaraz eskaintzea litzatekela konponbidea neurri batean.

Halaber, adin-tarteekin loturik, Iurrebasok (2012) “euskararen bizitza-ziklo” izeneko teoria proposatzen du erabileraren egoera azaltzeko. Autoreak, hainbat eredu aztertu ostean (lagunartekoa, etxekoa, eremu formalekoa, eta abar), baieztatu zuen adinarekin erabilera aldatu egiten dela; euskara umeen hizkuntza delarik eta erdara, aldiz, nerabe eta helduena. Beste era batera esanda, “euskararen bizitza-ziklo”-ak hizkuntzak (euskara eta gaztelania) adin-tarte batekin lotzen ditu (ume, nerabe, gazte, heldu edo nagusi); hortaz, adinaren arabera hizkuntza horietako bat erabiltzea da ohikoena.

Horrez gain, Esnaola (1997) Euskal Herriko gazteetan zentratu zen, beraien hizkuntza aldaera aztertzeko asmoz. Ikerketaren ondorio gisa, autoreak azaltzen du gazteen artean erdararen presentzia ukaezina dela, eta horren arrazoia amaiera aldera aipatzen du, Esnaolak (1997): “gazte hauen diskurtsoari “gazte” kutsua ematen dioten elementuak erdal jatorrikoak dira nagusiki. Hor dute harrobia, eta ondorioz euskarak ez du erreferentzialtasunik” (74 or.). Aurkikuntza horren aurrean, egileak aipatzen du kaleko hizkuntza oztopo bat dela euskararen normalkuntzarako, eta hori dela eta, euskaraz komunikatzeko errepertorioa lantzearen garrantzia azpimarratzen du konponbide gisa.

Azkenik, Amorrotu, Ortega, Idiazabal et al-ek (2009) egindako ikerketaren laugarren kapitulua aipatu nahi izan da, bertan euskararen inguruko uste orokortuei buruz hitz egiten baita. Aurreiritzi batzuk mesedegarriak izan daitezke euskararentzako, baina gehiengoak kaltegarriak dira. Hasteko, euskara hizkuntza eder gisa definitzen da, eta hori onuragarria da, bai. Euskararen zailtasuna ere azpimarratzen da eta horrek kalteak ekar ditzake, hortaz, ideia ezabatzeko beharra aipatzen da. Hori gutxi balitz, euskalduna izateko ondo hitz egiteko premia aipatzen da, eta horrek erabilera eragozten du akatsak egiteko beldurra dela eta; gainera, kontuan hartu behar da ez dagoela euskara eredu egoki bakar bat. Azkenik, euskararen egoera aipatzen da, euskaldunek uste baitute euskara galtzar dagoela eta erdaldunek, aldiz, egoera gaindituta dagoela. Ondorio gisa aipatzen da etorkizun oparoa ikusteko joerak kalteak izan ditzakeela; duela urte batzuk beldur horrek jendea hizkuntza defendatzera bultzatzen baitzuen, eta egungo arrosa kolorez ikusteko joerak borroka hori oztopatu lezake. Hortaz, biztanleei euskararen egoera zein den jakinaraztearen dudarik gabeko premia aipatzen da amaieran.

2.7 Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD)

Ikerketa lan hau gazteen pertzepzioan dago oinarrituta, hau da, beraien iritzi eta usteetan. Hori dela eta, beste iritzi batzuk aztertzea ere egiteko funtsezkoa izan liteke, besteen artean aburuak alderatu ahal izateko; horretarako, Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoen Lanketa (EGOD) egitasmoa aipatuko da (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015). EGOD egitasmoa ez da eskoletan egin, baina interesgarria izan liteke ikerketa hau aipatzea alor eta ikuspuntu ezberdin asko eskaintzen ditu eta. Lan honen berezitasuna diskurtsoaren azterketan dago. Eskuratutako emaitzetan barneratu baino lehen, aipatu beharra dago jarraian aurkeztuko diren datuek barne hartzen dituztela adituen eta herritarren iritziak; hortaz, heterogeneotasuna nabarmena da.

Alde batetik, komunitatearen atxikimendua eta hautematearen alorra aipatzen dira, non, atxikimendu, identifikazio eta bizimoduaren eremuak diren zutabe. Honelako esaldiak nabarmentzen dira:

“Zaindu behar dala nahi eta nahi ez gure hizkuntza dalako”. (EA, 36-65, Donostia-San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

“Pixka bat gure identitatea, bereizten gaituena beste kultura edo herri edo besteengandik bereizten gaituena”. (EA, Bilbo, 18.-35). [Eranskinak 250. or.]

“Niretzako da nire bizitza eta bizimodua” (EA, Donostia-San Sebastián, 36-65). [Eranskinak 250. or.]

Beste batzuek, lan-merkatuan sartzeko tresna edo baldintza gisa identifikatzen dute euskara.

“Lan mundurako bai edo bai behar da” (EP, 36-65, Bilbo)

Bestetik, lege-estatusaren garrantzia aipatzen da, non, estatusaren eta araudiaren erabakigarritasunaren ideia nabarmentzen den.

“Batzuen aldetik euskara ikasi beharra (euskararen ezagutza unibertsalizatzeaz edo hizkuntza irizpideak ezartzeaz) zalantzan jartzen bada ere, inork ez du

gauza bera egiten gaztelaniarekin...” (Delphi txostena). [Eranskinak 214. or.]

Ezagutza eta jarreretatik erabilerarako jauzia ere aitatzen da. Egitasmoan hizkuntza bat ikasi eta erabiltzeko motibazioaren premia dagoela azaltzen da; baina biztanleriaren iruzkinak aztertuz gero, ikus daiteke motibazioa ez dela oso ideia partekatua.

“Gero ikasten du, gainditzen du azterketa eta ya está”. (EA, 18-35, Bilbo)

“Badago jende asko euskara ikasten duela lanpostu bat lortzeko eta ez nahi duelako”. (EA, 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Aurrekoarekin lotuta, garrantzitsua da jendeak duen euskararen irudia zein den aipatzea, eta hori jarraian aipatzen den iruzkinak bere osotasunean jasotzen du.

“Euskara: mugatua, infantilizatua, herrikoa, casero e incultos, basarritarrei eta analfabetoei lotuta, lotsa, vergüenza, separatismoa, oztopoa, klitxe, estereotipo, atzeratuta gaude, dificultad, esfuerzo, en desuso... (espontaneoki eztabaidataldeetan bilduak)”. [Eranskinak 250. or.]

Beste jarrera oso partekatu bat inposizioarena da, herritar askok sentimendu ezkor horrekin lotzen baitute euskara.

“Al final el euskera se está poniendo como algo obligatorio y lo que genera es rechazo” (ER, 18-35, Bilbo)

“Y no como está pasando ahora que si hablas Castellano te ponen un punto rojo y castigado...” (EA, 36-65, Donostia- San Sebastián). [Eranskinak 250. or.]

Derrigortasun hori administrazioko lanpostuekin lotzen da, baina jarraian txertatutako iruzkinean euskara egiteko eskubidearen ideia ere azpimarratzen da aldi berean.

“Aunque a mí me parece bien que lo pidan porque todas las personas tienen derecho a ser atendidas en el idioma que quieran, pero verlo como inserción laboral me parece que puede generar rechazo”. (ER, 18-35, Bilbo)

Bestalde, politizazioaren ideia asko aipatzen da EGOD egitasmoaren emaitzetan; eta parte-hartzaileen iruzkinetan ikus daiteke hizkuntza bera pentsaera politiko batzuekin lotzen dela sarri.

“Se suele vincular el euskera a la independencia y al movimiento abertzale”.
(ER, 18-35, Bilbo)

“Abertzaleak eta ez abertzaleak, eta hor egon da guda bat eta kaltetua izan da euskara, noski”. (EA, 18-35, Bilbo)

Hizkuntzaren zailtasuna ere asko izendatzen da, eta horrek erabilera oztopatu dezake.

“Es un idioma difícil, se tarda mucho en aprender” (ER, Bilbo, 18-35) / “Euskararen arazoa oso zaila dela da” (EP, 36-65, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

Eta zailtasun sentazioaren ondorioz lotsa edota segurtasun falta agertzen dira.

“No lo usamos por lo que has comentado, que nos da vergüenza. No tienes confianza porque no controlas el idioma y tienes miedo a meter la pata”. (ER; 18-35, Bilbo). [Eranskinak 250. or.]

“Que no te miren raro”. (ER, 18-35, Bilbo)

Aurrez aipatuko ideiak EGOD txostenean argitaratutako emaitza batzuk baino ez dira, izan ere, alor asko landu ziren eta horietako bakoitza azaltzeko iruzkin asko erabili ziren; baina atal honetan ikerketarekin lotura handiena dutenak aukeratu dira.

2.8 Proposamenak etorkizunera begira

Marko teorikoa hizkuntza gutxituei buruzko diskurtsoarekin hasi da; horren ostean euskararen errealtatea bilakatu da mintzagai, baita honen erabilera ere; eta, azkenik, egungo egoerari konponbidea emateko proposatutako irtenbide bat aurkeztuko da. “Eta hemendik aurrera zer?” dokumentua erabiliko da, izan ere, honen helburua “euskararen hazkundearen iraunkortasuna eta bizi-indarra ahalbidetzeko datozen bi hamarraldietan garatu beharreko hizkuntza politikaren oinarriak eta lehentasunen marko finkatzea” da (Eusko Jaurlaritzaren, 2016, 4 or.). Hasieran, egungo egoera konpontzeko gakoa “nahia” izan litekeela aipatzen da, eta borondate hori egon dadin baldintza batzuk premia-koak omen dira, hala nola: hizkuntza maitatzea, praktikoa izatea, erabilera-eremuak izatea edota ondo ikusia egotea. Aurkeztutako proposamenek xede bat dute Eusko Jaurlaritzaren (2016) arabera: “...helburu dugula euskararen etorkizuna ziurtatzea,

hizkuntza-aukeren arteko oreka eta hiztunen arteko estatus berdintasuna...” (12 or.). Hori dela eta, izugarrizko pisua hartzen dute atxikimenduak, kontsentsu sozial eta politikoak, eta hizkuntzaren erakargarritasunak.

Lehentasunak finkatzerakoan, oinarri gisa erabiltzen da Martinez de Luna-k hiru dimentsioren bidez planteatzen duen eskema, non, dimentsio makrosoziala, mikrosoziala eta norbanakoarena bereizten dituen. Dimentsio makrosozialeko lehentasunetan, ondorengo ideiak agertzen dira: diskurtsoaren aurreko herritarren adostasun beharra, euskara erabiltzeko zilegitasuna eta administrazioari lotutako zerbitzu publikoetan elebidun izatearen garrantzia. Dimentsio mikrosozialeko hobespenetan, aldiz, harreman-sareetan euskara txertatzearen premia eta arnaguneen garapena azpimarratzen dira. Eta azkenik, norbanakoaren dimentsioan lehentasunak gaitasun erlatiboaren garapenean, hezkuntza-sistemaren mugetan, helduen euskalduntzearen premian eta motibazioan zentratzen dira. Motibazioaren alorrean, aipatzen da euskaraz egiteko grina pizteko erreferenteak behar direla, baita kultura produkzio egokitu bat ere. Horrez gain, euskal hiztun denak errespetatzearen ideia ere aipatzen da, eta honek barne hartzen ditu “...euskaldun berriak, euskaldun hartzaileak, elebakar izan arren euskararen munduak gertu dituzten herritarrak eta oraindik euskara urrun sentitzen dutenak...” (Eusko Jaurlaritza, 2016, 25 or.).

Esaldi esanguratsu bat aipatzen da amaieran: “Erdaldunak onartu behar du euskaldunak euskara normaltasunez erabiltzeko eskubide osoa duela, eta guztiz normaltzat hartu behar du milaka herritarrek euskara sentitzea lehen hizkuntzat edo hizkuntza kuttunentzat...” (Eusko Jaurlaritza, 2016, 14 or.). Egunerokotasunari erantzuten dion esaldi honen atzean normalizazio beharra ezkututzen da.

3. TESTUINGURUA: Bilbo eta Gasteizko datu soziolinguistikoak

Eskuratutako datuak espezifikatzen hasi baino lehen, funtsezkoa da ikerketa egin den eremua hobeto ezagutzea, hori dela eta, jarraian testuinguruaren inguruko datu garrantzitsuenak aipatuko dira. Beraz, atal honen xedea lanean zehar azaltzen diren datuak testuinguruan kokatzea da. Hasteko, EAEko datuak aipatuko dira, zehatzago esanda hizkuntza-gaitasun, lehen-hizkuntza eta erabileraren alorrak, eta ondoren Bilbo eta Gasteizko datu zehatzagoak.

Jarraian, hizkuntza-gaitasunaren bilakaera islatzen duen taula bat jarri da, non, 1981-2011 urteen bitartean egon den bilakaera ikus daitekeen. Taula Eusko Jaularitzak (2014) argitaratutako V. Mapa Soziolinguistikoko datuekin osatu da. Bertan ikus daiteke azken 30 urtean euskaldun eta euskaldun hartzaile kopuruak gora egin duela, eta erdaldun elebarraren kopuruak, aldiz, behera.

3.1. Taula. EAEko hizkuntza-gaitasuna (%).

	1981	1991	2001	2011
Euskaldunak	21,9	26,4	32,2	36,4
Euskaldun hartzaileak	12,2	16,2	18,2	19,3
Erdaldunak	65,9	57,4	49,6	44,3


Aurreko taulan EAEko datu orokorrak bildu dira, eta hurrengoan lurralde bakoitzekoak. Hiru lurraldeak alderatuz gero, ikus daiteke Gipuzkoan Araban eta Bizkaian baino elebidun gehiago eta elebarrak (gaztelania) gutxiago dagoela. Taulako datuak Eusko Jaularitzak (2014) argitaratutako dokumentutik atera dira.

3.2. Taula. Hizkuntza gaitasuna EAEko lurraldeetan (%).

	Elebidunak	Elebidun hartzaileak	Elebarrak
Bizkaia	30,3	20,8	48,8
Araba	22,9	19,5	57,6
Gipuzkoa	52,6	16,7	30,6


Jarraian txertatutako irudietan euskalduntze-prozesua argi azaltzen da. Bertan, ikus daiteke 30 urteko tartean egoera asko aldatu dela, eta 2011eko datuek erakusten dute 29 urtetik beherakoan artean gehiengoak euskaraz mintzatzen dakiela.

3.1. Irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera, 1981.



Iturria: Eusko Jaularitza (2014).

3.2. Irudia. Euskaldunen bilakaera adinaren arabera, 2011.



Iturria: Eusko Jaularitza (2014).

Amaitzeko, erabileraren alorra aipatzea funtsezkoa da; bertan baitago gaiaren mamia, baita egungo kezka zentrala ere. Beheko datuei erreparatuz gero, aipagarria da esatea

datuek ez duela “beti euskaraz” kategoria, eta gehiengoaren erabilera gaztelania dela. Taulako datuak V. Inkesta Soziolinguistiko-tik atera dira (Eusko Jaurlaritza, 2013).

3.3. Taula. Euskararen erabilera EAEn (%).

	Euskaraz erdaraz baino gehiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Oso gutxi euskaraz	Beti erdaraz
Araba	1,3	3,0	8,3	5,4	82,0
Bizkaia	7,4	5,4	7,7	6,2	73,3
Gipuzkoa	26,6	12,4	11,3	5,7	44,0

3.1 Bilbo (Bizkaia)

Atal hau Bilboko datuetan zentratzen da, baina ez Bilbo Handian, Bilbo hirian baizik. Bilbo, Bizkaiko hiriburua eta Euskal Herriko hiri jendetsuena da, izan ere, Eustat-eko (2017) datuen arabera Bilbo hirian 342.397 pertsona bizi dira, 160.794 gizonezko eta 181.603 emakumezko. Jarraian biztanleriaren datu soziolinguistikoak zehaztuko dira.

Alde batetik, Bilboko populazioaren lehen-hizkuntza aztertuko da, hona hemen datuak: %5aren lehen-hizkuntza euskara da; %3,5arena euskara eta gaztelania; %87,3arena gaztelania; eta gainerako %4,2arena beste hizkuntzaren bat. Hortaz, zalantzarik gabe gehiengoarena gaztelania da (Eusko Jaurlaritza, 2013).

Bestetik, erabileraren alorra aipatzea funtsezkoa da, horretarako jarraian aurkeztzen den taula erabiliko da; datuak V. Inkesta Soziolinguistiko-tik atera direlarik (Eusko Jaurlaritza, 2013).

3.4. Taula. Bilboko hizkuntza erabilera (%).

	Beti erdaraz	Oso gutxi euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gehiago
Zein hizkuntza erabiltzen duzu?	83,6	6,6	6,7	2,6	0,5

3.2 Gasteiz (Araba)

Gasteiz Arabako hiriburua da eta Eustat-eko (2017) datuen arabera, hirian bertan 242.254 pertsona bizi dira, 117.851 gizona eta 124.403 emakumezko.

Gasteizko populazioaren lehen-hizkuntzari dagokionez, hona hemen datuak: %3,4aren lehen-hizkuntza euskara da; %2,9arena euskara eta gaztelania; %88,4arena gaztelania; eta %5,4arena beste hizkuntzaren bat (Eusko Jaurlaritza, 2013).

Bestalde, erabileraren alorra ere aipatu egingo da, eta horretarako taula bat egin da V. Inkesta Soziolinguistiko-tik ateratako datuez baliatuz (Eusko Jaurlaritza, 2013).

3.5. Taula. Gasteizko hizkuntza erabilera (%).

	Beti erdaraz	Oso gutxi euskaraz	Euskaraz erdaraz baino gutxiago	Euskaraz erdaraz beste	Euskaraz erdaraz baino gehiago
Zein hizkuntza erabiltzen duzu?	83,1	6,8	7,3	2,3	0,5

4. IKERKETAREN PLANTEAMENDUA

4.1 Justifikazioa

Ikerketa konkretu hau egiteko arrazoiak bi izan dira. Alde batetik, Eusko Ikaskuntzak (2017) Gasteizen antolatutako “Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak” mintegian esan zuen bezala, hizkuntza baten biziraupenerako gazteak oso garrantzitsuak dira, eta hauek euskaraz egin dezaten motibazioa izan behar dute. Hortaz, bi ideiak erkatu eta gazteen euskara egiteko motibazioa ezarri zen gai gisa. Bestetik, hurrengo aipua ere erabakigarria izan zen: “Zailena gazteentzako erakargarria zer den jakitea da, gazteok ez baitugu talde homogeen bat osatzen. A proposena tokian tokiko ikerketa txikiak egitea izango litzateke” (Zabaleta, 2007, 10 or.). Esaldian esaten dena da, hain zuzen ere, ikerketa honetan egin nahi izan dena, Bilbo eta Gasteizko gazteen errealitatea hurbiletik eta ondo ezagutzea, hiri bakoitzeko ikasleek pertzepzio bat izango baitute seguruena euskararen erabileraren inguruan.

4.2. Ikerketaren helburuak

Ikerketa honetan 15-16 urte bitarteko gazteen errealitatea aztertu da. Nahiz eta gazteen adin-tartea eta lagina bera mugatuak izan, egoerak bere konplexutasuna du, hori dela eta, ikerketa honetan eskuratu nahi izan diren helburuak zehatz-mehatz finkatu dira.

- Ikasleen euskararen erabilera aztertzea (non eta norekin hitz egiten duten euskaraz).
- Gazteek euskaraz egiteko duten motibazioa zein den zehaztea.
- Gazteek euskara ez erabiltzeko dituzten arrazoiak edo motibazio ezak zehaztea.
- Gazteek euskararekiko duten irudia/pertzepzioa ezagutzea.

4.3. Ikerketa galderak

- 4.3.1. Zein da gazteen euskararen erabilera?
- 4.3.2. Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?
- 4.3.3. Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?
- 4.3.5. Etorkizunari begira gazteek nola ikusten dute egoera?

5. METODOLOGIA

5.1. Sarrera

Marko teorikoan azaldu den bezala, euskararen inguruan ikerketa anitz egin dira eta horietako asko erabileraren inguruan, gehienak datu kuantitatiboetan oinarritu direlarik; hori dela eta, kasu honetan datu kualitatiboak ere erabili dira. Lan honetan ikasleak aztertu nahi izan dira, izan ere, Anautek (2007) dioen moduan “Gaiak badu mamia, baita garrantzia ere, eta bereiziko garrantzia dauka gazteen ahotsa eta iritzia kontuan hartzea, haiek baitira, azken batean, euskara erabiliko- edo ez erabiliko- dutenak” (18 or.). Ikerketaren diseinua egiteko alderdi kualitatibo eta kuantitatiboak hartu dira kontuan. Horretarako hiru baliabide metodologiko erabili dira: galdetegiak, focus-groupak eta sakoneko elkarrizketak; eta tresnak ordena horretan eraman dira praktikara.

5.2. Lagina

Arestian esan den moduan, ikergai gisa gazteak aukeratu dira, ikerketa askotan aipatu baita gazteen erabileraren inguruko kezka (Gipuzkoako Foru Aldundia, 2009).

Ikerketa egiteko Bigarren Hezkuntzako laugarren mailako ikasleak aukeratu dira lagin gisara, beraietako %89,6k 15 urte ditu eta gainerako %10,4k 16 urte; hortaz, ikasleen adinaren batez bestekoa 15,10 da (DS 0,31). Ikasle hauek bi eskola ezberdinetakoak dira: gazteen %54,2 Bilboko Begoñazpi ikastolakoak da eta gainerako %45,8a Gasteizko IES Mendabaldea BHI-koa. Ikasle guztiek D ereduan ikasten dute, beraz, irakasgai gehienak euskaraz egiten dituzte, eta gutxi batzuk ingelesez.

Zentro bakoitzean laugarren mailako gela bat aukeratu da, beraz, guztira bi ikas-talde. Begoñazpi ikastolako gelan 26 ikasle zeuden, horietako 10 neskak ziren eta gainerako 16ak mutilak; Mendabaldea-n, mutil baino neska gehiago zegoen, taldean guztira 21 ikasle ziren, 16 neska eta 6 mutil. Hortaz, lagin guztia kontuan izanez gero parte-hartzaileen %54,2 emakumezkoa da eta %45,8 gizonezkoa, nahiko parekatua alde horretatik. Jaioterriari dagokionez, bai ikasleak baita beraien gurasoak ere Euskal Herrian jaiotakoak dira gehienak, taulan ikus daitekeen moduan.

5.1. Taula. Ikasleen eta gurasoen jatorria (%).

	Euskal Herrian	Euskal Herritik kanpo
Ikaslearen jaioterria	97,9	2,1
Amaren jaioterria	89,6	10,4
Aitareen jaioterria	93,75	6,25

Jaioterriaren alorra aztertu ostean, parte-hartzaileen eta euren gurasoen lehen-hizkuntza zein den zehaztuko da ondorengo taulan.

5.2. Taula. Ikasleen eta gurasoen lehen hizkuntza (%).

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Ikaslearen lehen hizkuntza	6,3	72,9	20,8	0
Amaren lehen hizkuntza	4,2	85,4	8,3	2,1
Aitareen lehen hizkuntza	2,1	89,6	6,2	2,1

Bestalde, aipatu beharra dago Begoñazpi ikastolan Labayru fundazioan oinarritutako bizkaiera erabiltzen dela Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan zehar, eta Bigarren Hezkuntzan batuera eta bizkaiera, biak. Aitzitik, Mendebaldea-n euskara batua erabiltzen da eta ondorioz, euskalkiekiko kontaktu gutxiago dute.

Lagin konkretu hori aukeratzeko arrazoiak hiru izan dira: batetik, D ereduiko ikasleak aukeratu dira, gaitasun-maila altuena izateaz gain, euskara/gaztelania hautua zalantzakor dutelako (Aiestaran, Cenoz eta Gorter, 2013); bestetik, euskaldun-dentsitate baxua duten zonaldeak aukeratu dira, %18,6 (Bilbon) eta %17,9 (Gasteizen) (Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016); eta azkenik, 15-16 urteko gazteak aukeratu dira, hainbat ikerketatan aipatu baita une horretan egiten duela okerrera egoerak.

5.3. Neurtzeko tresnak

5.3.1. Galdetegiak

Aurrez aipatu da ikerketaren funtsa datu kualitatiboetan dagoela, baina galdetegiak ere erabili dira ikasleen errealitatera hurbildu eta egoera kontestualizatzeko. Galdetegia 43

itemez osatuta dago, item horiek 10 azpitaldetan antolatuta daudelarik. Tresna honen bidez erabilera eta motibazioaren inguruko ideia nagusiak bildu nahi izan dira, horregatik hizkuntzarekiko atxikimendua, zailtasunak, konnotazioak eta beste hainbat gehitu dira. Baliabide metodologiko hau sortzeko ARRUE proiektuko (Soziolinguistika Klusterra eta Eusko Jaurlaritza, 2011) galdetegia hartu da oinarritzat, eta bertatik abiatuta ideiak gehitu eta moldaketak egin dira.

Tresna hau besteen artean Grasso-k (2006) aipatutako arrazoiengatik erabili da. Autorearen esanetan galdetegiaren bidez posible da gai subjektiboak ikertzea, eta gainera, prozedura mota honen bidez datuak modu sistematikoan biltzen dira. Horrez gain, aipatzen du bi helburu eskuratzeko direla egokiak: informazio pertsonala lortzeko eta, jarrera, sinesmen, sentimendu eta pertzepzioak aztertzeko.

5.3.2. Focus-group

Baliabide hau datu kualitatiboak eskuratzeko eta ikasleen iritzia hurbiletik ezagutzeko erabili da. Zentro bakoitzean bi focus-group egin dira, beraz, guztira lau. 8 pertsonako taldeekin lan egin da eta iraupena ordubete ingurukoa izan da kasu guztietan. Eztabaida hauetan 26 galdera inguru planteatu zaizkie ikasleei, eta horietan hainbat gai landu dira beraiekin, besteen artean: euskararen deskribapena, hurbiltasuna, erabilera, identitatea eta beraiek hizkuntza erabiltzeko duten motibazioa. Galderei erantzuteko hausnarketa egin behar izan dute, eta ondorioz, elkarrizketaren ildo egoerara eta ikasleen premietara moldatu da kasu bakoitzean.

Kitzinger-en (1994) esanetan interakzioa da focus-grouparen ezaugarri nabarmenena eta horregatik planteatu da baliabide hau datu kualitatiboak biltzeko tresna gisa. Kitzinger-en ustez, ikuspegi, balore eta sinesmenak jorratzeak, beraien artean elkarrekintzan jarduteko, elkarri galderak egiteko eta esperientzia konkretuak birplanteatzea aukera ematen die.

5.3.3. Sakoneko elkarrizketak

Tresna honen bidez gazteek hizkuntza erabiltzeko duten motibazio edo motibazio eza aztertu da. Horretarako, ikasleekin banakako 8 elkarrizketak egin dira, bakoitza 40

minutu ingurukoa. Sakoneko elkarrizketak aproposak dira datu kualitatiboetan sakontzeko eta horrela egoera hobeto ulertzeko; eta hori da Juaristiren (2003) aipuan ikus daitekeena:

“Aztertzen diren gaien arrazoiak, zergatiak edota ondorioak sakonean ezagutzeko, eta informazio aberatsa lortzeko aukera ematen du. Sakoneko elkarrizketak zenbakien azpian ezkututzen den informazio konplexua hobeto ezagutzen laguntzen du. Teknika oso ona da gai bati buruz informazio gutxi daukagunean edo ikerketa esploratorio bat egin nahi dugunean” (141 or.).

5.4. Prozeduraren inguruko datuak

Lehendabiziko pausua ikerlana zein motatako eskoletan egingo zen erabakitzea eta ikerketarako tresna metodologikoak finkatzea eta diseinatzea izan zen. Bigarren urratsa aukeratutako Begoñazpi ikastolarekin kontaktuan jartzea izan zen, ikerketaren nondik norakoak azaldu eta egin beharrekoa azaltzeko asmoz. Lehen kontaktuaren ostean eskolara hurbildu zen ikertzailea, tutorea ezagutu, datak adostu, ikasleei ikerketaren berri eman eta gurasoek sinatu beharreko baimenak banatzeko asmoz. Hirugarrenik, Gasteizko Berritzeguneko kideekin kontaktuan jartzea erabaki zen, beraiek proiektua normalkuntzako bilera batean aurkez zezaten. Bertan eskola batzuek hori egiteko prest zeudela esan zuten, eta eskaintzak ikusi ostean Mendebaldea institutua aukeratu zen. Gero, Begoñazpin egindako prozedura berbera jarraitu zen bertan, hau da: eskolara hurbildu, tutorea ezagutu, ikasleei azalpen laburra eman eta baimenak banandu.

Gurasoen baimen guztiak sinatuta eduki bezain laster, galdetegiak egin ziren Google Forms plataforma bidez, horretarako aldeztatik tutoreei ordenagailuen premiaz abisatu zitzairen. Galdetegiak egiten hasi aurretik, ikasleei anonimotasuna bermatu zitzairen, eta jarraian galdetegiaren URL-a jarri eta banaka galderak erantzuten hasi ziren. Zalantzaren bat izatekotan eskua altxatzeko eskatu zitzairen, era horretan laguntza jasotzeko aukera zuten eta. Gelan ikertzailea baino ez zegoen beraiekin, egoera lasai eta eroso sortzeko nahian.

Galdetegietako datuak jaso eta aztertu ondoren tutorearekin focus-groupeko partaideak aukeratu ziren, eta irakasleak, noski, bere iradokizunak komentatuko zituen.

Aukeraketarako, erabileraren alorra izan zen erreferentzia nagusia; eta euskara asko eta gutxi erabiltzen duten ikasleak aukeratu ziren. Azken finean, helburua talde heterogeneoak sortzea zen, aniztasuna aztertuz ulertzen baita errealitatea; baina aldi berean ikasleak gustura egotea ere bilatu zen, beraien iritziak lasaitasunez ematea baita interesgarria eta mamia ulertzen lagunduko duena. Focus-groupak egiteko, gela txikiak erreserbatu ziren, bertan 8 ikasle eta ikertzailea soilik egongo baitziren. Eztabaida egiteko ikasle bakoitzari bere izena kartel batean jartzeko eskatu zitzaion eta horrela posible izan zen ahozko grabaketa egin ostean hizlariak identifikatzea. Grabaketa hauek mugikor bidez egin ziren.

Azkenik, elkarrizketak egin ziren 8 ikasle ezberdinekin. Elkarrizketatuak erabakitzeko ere tutoreen laguntza funtsezkoa izan zen; hauek ezinbestean focus-groupean parte hartutako ikasleak izan behar zuten, elkarrizketak focus-groupen jarraipenak baitira. Horrez gain, beraien erantzunak justifikatzeko abilezia duten ikasleak aukeratu ziren, eta ahal zen neurrian ikuspuntu ezberdinetako gazteak bildu ziren. Elkarrizketetan gaztea eta ikertzailea baino ez ziren egon presente; eta kasu horietan ere soinua mugikor bidez grabatu zen. Begoñazpi ikastolako datu bilketa urtarrilaren 31n, otsailaren 7an eta 9an egin zen; Mendebaldea-koa, aldiz, otsailaren 14an, 19an eta 21ean.

5.5. Estandar etikoak

Metodologia hau diseinatzerakoan kontuan hartu da ikasleak adin txikikoak direla eta beraz, ikasgeletan sartu aurretik gazteen gurasoei baimen bat eman zitzaien eta baimen guztiak eskuartean izan arte ez da ikerketarekin hasi. Era berean, ikerketan uneoro zaindu dira ikasleen datuak eta beraien konfidentziasuna, hortaz, oinarritzko erreferentziak baino ez dira erabili lanean zehar.

6. EMAITZAK

Jarraian, hiru tresna metodologikoen bidez eskuratutako datu edo emaitzak aurkeztuko dira, betiere alde zuzenetik planteatu diren ikerketa-galderei erantzuteko asmoz.

6.1. Zein da gazteen euskararen erabilera?

6.1. Taula. Ikasleen erabilera denak (%).

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Amarekin	6,3	79,2	12,5	2,1
Aitarekin	2,1	87,5	8,3	2,1
Anai-arrebekin	4,2	66,7	14,6	14,6
Familian, denak batera	4,2	89,6	6,3	0
Lehengusu-lehengusinekin	2,1	75	20,8	2,1
Kuadrillarekin	0	91,7	8,3	0
Lagun minekin	2,1	89,6	8,3	0
Klasekoekin	0	93,8	6,3	0
Interneten lagunekin	0	85,4	14,6	0
Txikiekin	4,2	60,4	35,4	0
Nagusiekin	0	87,5	12,5	0
Gela barruan ikaskideekin	0	60,4	39,6	0
Gela barruan irakaslearekin	<u>91,7</u>	0	8,3	0
Gelatik kanpo ikaskideekin	0	97,9	2,1	0
Gelatik kanpo irakaslearekin	<u>75</u>	16,7	8,3	0
Futbolean (12)	0	100 (12)	0	0
Saskibaloian (4)	0	75 (3)	25 (1)	0
Dantza / aerobic-en (7)	0	71,4 (5)	28,6 (2)	0
Boxeo / karate (3)	0	100 (3)	0	0
Igeriketa / waterpolo (3)	0	100 (3)	0	0
Hipika (1)	0	0	100 (1)	0
Tenis (2)	0	100 (2)	0	0
Esku pilota (2)	50 (1)	0	50 (1)	0
Boleibol edo eskubaloia (2)	0	100 (2)	0	0
Eskaut (3)	0	0	66,7 (2)	33,3 (1)
Ingelesa (15)	0	0	0	100 (15)
Partikularrak (5)	20 (1)	80 (4)	0	0
Pintura (2)	0	100 (2)	0	0
Musika (6)	16,7 (1)	33,3 (2)	33,3 (2)	16,7 (1)
Antzerkia (1)	0	0	0	100 (1)
Telebista ikusi	0	77,1	16,7	6,3
Irratia entzun	8,3	62,5	17,1	2,2
Interneten	0	89,6	10,4	0
Interneten bilaketak	4,2	39,6	50	6,3

Aurreko taulak erabileraren inguruko datu guztiak jasotzen ditu. Datuak galdetegietatik atera direnez 48 kideren erantzunak daude bertan. Letra lodia erabili da gaztelania oso nabarmena den egoerak azpimarratzeko eta kasu batzuetan parentesia erabili da galdera hori erantzun duen gazte kopurua zehazteko.

Taulan ikus daitekeen moduan, gazteek gaztelania erabiltzen dute egoera gehienetan, baita komunikabidetan ere; baina bilaketan kasuan euskara eta gaztelaniaren erabilera parekatuta daude. Dena den, esan beharra dago kasu batean euskararen erabilera gaztelaniarena baino altuagoa dela, ikasleen gehiengoak euskara erabiltzen baitu irakasleekin, bai klase barruan, baita klasetik kanpo ere. Horrez gain, deigarria da “nagusiekin” eta “txikiekin” erabiltzen duten hizkuntza, erabilerak ezberdinak baitira; oro har txikiagoekin nagusiagoekin baino euskara gehiago erabiltzen dute.

Kultur-kontsumoa: komunikabideak eta Internet

Jarraian aurkezten den taulan komunikabideetan eta Interneten ikasleek erabiltzen duten hizkuntza zein den zehazten da; bertan aurkezten diren datuak galdetegietatik ateratakoak dira.

6.2.Taula. Kultur-kontsumoa (%).

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Telebista ikusi	0	77,1	16,7	6,2
Irratia entzun	8,3	62,5	27,1	2,1
Interneten	0	89,6	10,4	0
Interneten bilaketak	4,2	39,5	50	6,3

Datuen arabera, kultur-kontsumoan ere gaztelania da nagusi; baina salbuespena dago Interneten egiten diren bilaketetan, izan ere, ikasleen erdiak euskara eta gaztelaniaz (bietan) egiten ditu bilaketak. Bestalde, funtsezkoa da euskara eta beste hizkuntzen (ez euskara, ez gaztelera) zutabea alderatzea, 2 puntuko ezberdintasuna baitago. Aitzitik, ezinbestean aipatu behar da irratiko kontsumoa, euskara beste eremuetan baino presenteago dago eta. Gai hau ikasleekin gehiago sakondu da focus-group eta elkarrizketetan, eta jarraian txertatuko esaldiak eskuratu dira beste batzuen artean:

“Baina nik uste dut euskerako horrelako seriekin erabilera handitzea oso zaila dela, ze daude aukera askoz gehiago beste hizkuntzetan eta gainera guk eskolan ikasten ditugun hizkuntzetan justu asko.” (13)

“...Batuetan igual egiten dozu euskeraz hasieran, baina ez badago informaziorik ba gero egiten duzu gaztelaniaz eta beti egoten da; baina bueno batuetan ahalegintzen naiz euskeraz bilatzen ere.” (9)

“...Nota hobeagoa ateratzen duzu erderaz egiten baduzu, informazio askoz gehiago dago erderaz eta web gune gehiago dagoz ere erderaz. Eta adibidez Wikipedian begiratzen badozu erderaz ba dago una chapa ahi buena eta euskeraz dagoz un parrafito que... oso gutxi dago.” (5)

“...badagoz kanalak eta ikusi ahal dozuz eta ez dira emplan kaka bat. Badagoz albisteak eta umeentzat be bai dagoz eta nik uste dut dela nahiko ona.” (11)

“Bai por ejemplo telebistan bakarrik daude 3 kanal.” (37)

“Gaztea irratsaioa, bai hori bai, hori bai gustatzen zait euskeraz. Egia esan irratia euskaraz entzuten dut, eta ez erderaz; ze gustatzen zait gehiago euskaraz eta egia esan asko entzuten dut.” (32)

6.2. Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?

Gazteen emaitzak aztertu ostean, euskararen erabileran eragin dezaketen faktoreak identifikatu dira, eta jarraian banan-banan aurkeztuko dira, adibideak barne.

Baliagarritasuna

Faktore honek erreferentzia egiten die hizkuntzak erabiltzeko aukerei, mugei eta hizkuntzaren garrantzia eta prestigioaren inguruan ikasleek duten pertzepzioari. Jarraian, ikasleek focus-group eta elkarrizketetan aipatutako ideia batzuk aipatuko dira.

“... zoaz Euskal Herritik kanpo eta euskerak ez dizu ezertarako balio.” (15)

“...bakarrik behar da hemen lan egiteko edo hemen komunikatzeko, ze Euskal Herritik kanpo bazoaz ez dau ezertarako balio, hobeto da ingelesa jakitea ze hemen igual ez duzu hemen lan egiten baina munduan, mundu mailan askoz hobea da.” (5)

“... euskarak ditu ingelesak ez dituen mugak adibidez.” (7)

“...gaztelera eta ingelesak ate gehiago zabaltzen deutzula ba geroago lana eta topatzeko...” (5)

“... bazoaz beste herri batera ez dakit euskara. Igual gaztelera edo ingelesa bai, baina euskera ez. Ze gaztelera daki jende gehiagok Euskal Herritik kanpo eta ingelesa be bai.” (15)

“... euskeraren muga da hiztun gutxi dagozala eta ba hiztunak dagozala hemen, osea hemendik kanpo ez dago...” (1)

“...baina euskeraz hitz eginda euskaldunekin bakarrik komunikatu ahal gara eta hori muga bat da hemen gero eta gehiago eta kanpoan pues argi dago baietz ze inork ez du ulertzen hitz bat ere ez.” (11)

Horrez gain, galdetegietan ikasleei *Garrantzitsua al da euskara?* eta *Euskara hizkuntza prestigiotsua al da?* galderak egin zitzaizkien, eta hona hemen bi item horien emaitzak.

6.3. Taula. Euskararen garrantzia eta prestigioa (%).

	Bai	Ez
Garrantzitsua al da euskara?	89,6	10,4
Euskara hizkuntza prestigiotsua al da?	72,9	27,1

Gazte gehienek euskara hizkuntza garrantzitsua dela pentsatzen dute, baina prestigioari dagokionez, proportzioa jaitsi egiten da.

Hizkuntzaren irudia

Focus-group eta elkarrizketetan ikasleek euskararen inguruan duten irudia zein den aztertu nahi izan zen, eta horretarako euskara adjektibo bakar baten bidez deskribatzeko eskatu zitzairen. Hauek dira aukeratu zituzten adjektiboak:

“Beste hizkuntza bat da. Besteen modukoa da, gaztelania edo ingeleraren modukoa, arauekin eta deklinabide zailarekin baina beste hizkuntza bat.” (5)

“Ingelesarekin konparatuta txikia da.” (8)

“Zaharra. Denbora asko dauka, antzinako hizkuntza da nire ustez.” (10)

“Arraroa. Ez daukalako jatorri finkorik, ez dakigu nondik datorren”. (16)

“Zaila. Aditz asko dituelako eta gauza asko eduki behar direlako kontuan ondo hitz egiteko.” (13)

“Ofiziala da ere. Gaztelanian emon gendun Iberriar penintsulan dagoen hizkuntza ofizial bat dela.” (13)

“Ezezaguna, beste herrialde batzuetan beste batzuk ez dute ezagutzen euskera.”
(10)

“Polita nire ustez. Ba nire gustatzen zait asko.” (28)

Konnotazio politikoa

Euskarak konnotazio politikorik duen aztertzeko asmoz ikasleei gai honen inguruko galdera bat egin zitzairen, eta lasaitasunez erantzun zezaten galdera banakako elkarrizketetan egin zitzairen soilik. Galdera hauxe izan zen: *Zure ustez, euskara hizkuntza pentsamendu politiko edo ideologiko konkretu batzuekin lotzen da? Jarraian beraien erantzun batzuk txertatu dira.*

“...batzuentzat euskalduna izateko gura behar dozu independentzia eta hori dana. Da hizkuntza baina politika dauka barruan, dagoz lotuta moduan jendearentzat, askorentzat.” (5)

“... hemengo jendeak badaki euskara eta politika ez daudela lotuta, baina kanpokoek sartzen dute dena como en el mismo saco edo.” (39)

“...batzuk esaten deuzkuen terrorista eta horrela ETAgatik. Eta aurrekoan be entzun zen zozer de ETA. Eurek ez dabe ahazten hori, osea ya gertatu zan, pasatu zan baina ez dabe ahazten.” (1)

“...eta gero ocho apellidos vascosen be bai quemando papeleras nose que... ja ver! Eurentzako euskalduna enseguida gogoratzen dabe ETA edo ocho apellidos vascos eta zara terrorista, un quema papeleras borroka...” (1)

“...como euskaldunak zarete independentistak, ETArrak, nose que... da como sartzen dabe dana pakete berdinean... Uste dabe euskera hizkuntza dela directamente gauza politikoa azken finenean, hizkuntza politika bihurtzen dabe.” (9)

“... igual bazoaz kanpora eta horrela ba batzuk pues yo que se lotzen dabe ETAgaz, eta independentista izateagaz... txikitan joaten nintzenean herrira ba gehiago notatzen zan hori baina ya orain gutxiago...” (9)

Ezberdintasun geografikoen inguruko aurreiritziak

Ezberdintasun geografikoa faktore bat da, eta honen inguruan galderarik egin ez den arren ikasleek maiz aipatu zuten ideia da. Ikasleek barneratuta dute Bilbo, Gasteiz eta Donostiako euskaldun-dentsitatea eta hiri horietan euskara erabiltzen duen biztanleriaren kopuruak oso ezberdinak direla. Eta pertzepzio eta bizipen horiek beraien jarrera baldintzatzen dute.

“Ez, ez asko. Donostian eta horrela adibidez gehiago hitz egiten da eta hemen askoz gutxiago, zerbaitengatik izango da.” (1)

“...a ver hemen Bilbon ba hori jendea topatzea euskera gustatzen zaiona topatuko dozu gitxi, ba azkenean gehienak direlako erdaldunak edo ez daukienak euskera ama-hizkuntza moduan. Baina Gipuzkoan eta adibidez, askoz gehiago hitz egiten dabe, horiei bai gustatzen jakela euskera benetan. Lekuaren araberakoa da.” (1)

“...Gasteiz orokorrean erdalduna bai, euskara oso gutxi entzuten da.” (28)

“...baditut lehengusina batzuk direla Gipuzkoak edo eta batzuetan beraiekin bai hitz egiten dut euskaraz...” (30)

“...Gasteizen, ez da euskara asko erabiltzen bakarrik ikastolan...” (30)

Hiri/herri bakoitzeko agintariak eta instituzioek hizkuntzari ematen dioten garrantzia

Faktore hau eta aurrekoa elkarrekin lotuta daude. Kontua da banakako elkarrizketa batean gazte batek bere hiriak hizkuntzari ematen dion garrantzia aipatu zuela, eta bere esanetan Euskal Herri barruan ere eremuaren araberakoa da hizkuntza bati ematen zaion garrantzia.

“...Ospakizun handiagoak egiten dira leku batzuetan eta horrek nire ustez erakusten du asko leku bakoitzean zenbateko garrantzia ematen zaio euskarari eta hemen ez da handia sinceramente. Por ejemplo Gipuzkoan eta horrela egiten dira gauza gehiago euskaraz porque les importa mas el euskera en si, baina pues beste hiri eta herrietan pues ez da egiten casi ezer.” (28)

Adinak

Adina erabileran eragina duen faktorea da eta hori galdetegietako datuetan ikus daiteke. Gazteei bi galdera egin zitzaizkien: *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zu baino ikasle txikiagoak direnekin?* eta *Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zu baino nagusiagoak direnekin?* Nahiz eta euskara hutsean ez egin, euskara gehiago egiten dute (bikoitza) beraiek baino txikiagoak direnekin beraiek baino nagusiagoak direnekin baino.

6.4. Taula. Adina (%).

	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania
Txikiagoekin	4,2	60,4	35,4
Nagusiagoekin	0	87,5	12,5

Horrez gain, ikasleek sarri aipatzen dute haurtzaroa eta sasoi hartan beraiek zuten euskararen erabilera eta hizkuntzarekiko sentipena ere.

“Eta gogoratzen naz txikitan ba hasten zan norbait euskeraz eta hasten ginen denok esaten “euskeraz” eta horrela, gustatzen zitzaigun gehiago edo horrela.”

(1)

Gazte hauek adinaren inguruko aurreiritziak ere badituzte, beste era batera esanda, adinaren arabera hizkuntza bat edo bestea lotzen dute gizabanakoarekin.

“...saltzaileek eta horrela zeren 30 baino gutxiago badaukate gehienek badakite euskaraz edo ulertzen dute edo horrela. Baina gero 30 baino gehiago badute oso gutxi dakite euskaraz...” (39)

“... dagoz euskeraz hitz egiten, pertsona nagusiak...” (11)

Focus-group batean ikasleei esperientzia positibo batean pentsatzeko eskatu zitzaaien eta gero bizipen horretan erabiltzen zeuden hizkuntza zein zen galdetu zitzaaien, eta hona hemen elkarrizketa bitxi bat.

36: Euskaraz.

34: ¡Si claro!

36: Pues bai listo! Ze nengoen nire lehengusu txikiekin.

34: Ah bueno... orduan igual bai.

Inklusio falta euskararen diskurtsoan

Elkarrizketa batean ikasle batek “kanpotar” hitza erabili zuen, hizkuntzaren diskurtsoari lotuta, euskararen inguruko diskurtsoa beraiengana bideratuta egongo ez balitz bezala.

“Ba igual kanpotarrak edo beste herrialde batzuetatik datozenak ba bai sentitzen dute euskera dela inposaketa, ze igual bere hizkuntza ez da euskara eta arraro sentitzen dira.” (28)

Hizkuntzaren “formaltasuna”: eremu formaletako hizkuntza ezagutzen dute soilik

Ikasleek euskararen erabilera ezaren arrazoi gisa “hiztegi falta” azpimarratu dute sarri.

“...Ba nire ustez igual erderaz hiztegi gehiago dago eta euskeraz ezin da hitz egin con los aditzaz...” (5)

“...Gainera, euskeraz hitz teknikoak futbolerako eta horrela, ba ez dakit ez dagoz, ezin da komunikatu euskeraz hitz egiteko jugadei buruz eta horrela ez dago hiztegia.” (5)

Horrez gain, gazteei euskalkiei buruzko galdera bat ere egin zitzaien focus-groupean: *Zuen ustez, euskalkiak edo euskara batua dira naturalagoak edo kalean erabiltzeko praktikoagoak?* Hona hemen, erantzun batzuk.

“Nik uste dot dela naturalagoa euskalki bat erabiltzea, adibidez bizkaiera...” (14)

“Ba nik uste dot batua dela praktikoagoa, ze kalean erabiltzen da eta entzuten da askoz gehiago batuera.” (13)

“Komunikatzeko hobea da batua, ze komunikatu ahal zara guztiekin. Baina egia da naturalagoa dela bestea, bizkaiera.” (5)

“Bai bai, kalekoagoa edo naturalagoa da bizkaiera.” (7)

“Nik uste dut direla naturalagoak euskalkiak. Ze non hitz egiten da euskara gehien? Herri txikietan. Eta hor erabiltzen dituzte euskalkiak, adibidez Bermeon eta horrela beti entzuten da jendea euskaraz baina batua ez da entzuten. Nire ustez batua erabiltzen da gehiago pues lanean eta ikastoletan eta ze azkenean gure liburuak daude batuan idatzita. Baina euskalkiak erabiltzen ditu normalean bere bizitzan hitz egiten duen jendeak.” (37)

Ikasle bat Gasteizen bizkaieraz hitz egiten hasi zen eta bere kide batek ondorengo esaldia bota zuen: *“Joe como no 28 hablando raro” (29).*

Hezkuntza-ereduak: eremu euskaldunean egoteko aukera

Ikertutako ikasle guztiek D ereduan ikasten dute, eta focus-groupean beraien ereduaren inguruko iritzia eskatu zitzaizenean gehiengo handi batek D eredia eremu euskaldun batean egoteko aukera gisa ikusten duela aitortu zuen.

“... ba jende askok bakarrik egiten du euskera klasean eta hori kentzen bada ba inoiz ez dute egingo...” (28)

“...ondo dago ere euskeraz egitea irakasgaiak ze horrela da aukera bat euskera praktikatzeko ere.” (5)

6.3. Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?

Jarraian motibazioaren galderari erantzungo zaio, hainbat faktore aipatuko direlarik. Erantzunaren lehenengo atala, euskaraz egiteko motibazioetan zentratzen da; bigarrena, aldiz, motibazio ezean. Hasteko, euskaraz erabiltzeko arrazoiak aipatuko dira 6.5. taulan.

6.5. Taula. Euskaraz egiteko arrazoiak.

Euskaraz egiteko arrazoiak	
Derrigorrezkoa delako	Motibazio instrumentalagatik
Gustatzen zaielako eta eroso daudelako	Hizkuntza sekretua delako
Norbaitek euskaraz egin dielako, jarraitzeko	Identitateagatik

Derrigorrezkoa delako

Euskara egiteko arrazoi aipatuenetariko bat derrigortasuna litzateke, eta honek barne hartzen ditu *negatiboak* eta liskarrak ekiditea. Erantzun hauek hiru tresna-metodologikoen emaitzetan agertu dira.

“Ikastolan egin behar delako, bai derrigortzen digutelako.” (15)

“...irakasleek esaten digutelako egin behar dugula, araua delako eta orduan derrigortuta gaudelako.” (7)

“...irakasleekin hitz egin behar delako euskaraz.” (3)

“Nik eskolan hitz egiten dut euskara ba derrigortuta nagoelako...” (4)

“Gainditzeko, ze bestela ez dituzu gainditzen irakasgaiak”. (37)

“Bueno bai, nire aita da apur bat ez dakit, txikitan beti zegoan esaten “euskaraz” eta horrela eta hasten ginean erderaz eta horrela bronka botatzen euzkun. Beti nahi dau guk euskeraz egitea.” (1)

“.... Klasean erderaz hitz egiten badozu bai kentzen doutzuela notatik puntoak...” (13)

“... ipintzen digutelako negatiboa...” (27)

Gustatzen zaielako eta eroso daudelako

Erabiltzearen nahia aipatzen duten askok, hizkuntza gustuko dutela ere aipatzen dute euskara erabiltzeko arrazoi gisa.

“Nik ere gura dodalako erabiltzen dot. Ba hitz egiten dozun pertsonak dakienean euskeraz ba ez dakit urtetan jat euskeraz be bai eta familian eta

horrela ere bai. Orduan ba bai, gustatzen jateko eta komodo nagolako eiten dot.” (1)

“...ze pertsonekin nagoen arabera ba urtetzen zait bakarrik edo ez. Batzuekaz erosoago nago eta orduan pozik egiten dot, baina beste batzuetan ba ez jata urtetan.” (6)

“...arrazoia da gustatzen zaidala eta batzuetan joatean naizenean kirola egitera eta horrela ba taldekideekin eta hitz egiten dut euskaraz. Eta arrazoia da hori euskara gustatzen zaidala ere.” (39)

Norbaitek euskaraz egin dielako, jarraitzeko

Norbait beraiekin euskaraz aritzea da ikasleen arabera euskara egiteko arrazoi bat, izan ere, pertsona batek beraiei euskaraz eginez gero, eurek ere euskaraz jarraituko dute.

“...hitz egiten badoztie euskeraz ba be bai euskeraz.” (1)

“Pertsona bat ikusten badut kalean edo eta badago euskeraz hitz egiten zuk jarraitzen duzu ere euskeraz egiten.” (12)

Motibazio instrumentalagatik

Hizkuntza baten erabilpenaren atzean sarri agertzen da motibazio instrumentala faktore gisa, eta euskararena ez da salbuespen bat alor horretan.

“...lana topatzeko eta horrela behar da EGA..” (30)

“Esaten didate, tu aprende euskera, sacate el EGA que lo vas a necesitar hori da ematen dioten garrantzia...” (5)

“... hemen lan egiteko behar duzu euskara, Euskal Herrian lan egiteko baldintza bat da.” (35)

“... Euskera behar duzu lanerako...” (9)

“...beti da ona hizkuntza asko jakitea, hori beti da ona eta orduan ba hobetzea ere da nire motibazioa...” (30)

Hizkuntza sekretua delako

Focus-groupean ikasleei beste herrialde batetara joaten direnean euskara erabiltzen zuten galdetu zitzaien eta baiezkoa eman zuten aho batez. Horren arrazoia jendeak euskara ulertzeko duen gaitasun eza da beraien ustez, eta ondorioz nahi dutena esateko askatasunez sentitzen dira gazteak.

“...dakizu hizkuntza bat besteak ez dakiena eta esan ahal duzu nahi duzuna ze ez dute ulertzen...” (6)

“...da como hizkuntza sekretu bat jende gutxik dakiena orduan oso erabilgarria da jendeak ez ulertzeko. Por ejemplo gaztelaniarekin arriesgatzen zara gehiago ze jende gehiagok daki edo ulertzen du.” (40)

“... da como hizkuntza sekretua edo indeszifrablea...” (13)

“... interkambioko egunetan egin genuen inoiz baino euskera gehiago, ze egiten genuenean euskeraz ez zuten ulertzen eta esan ahal genuen nahi genuena...” (31)

Identitateagatik

Identitatea faktore bat da gazte hauentzako, izan ere, galdetegi, focus-group eta elkarrizketetan ikasleek sarri aipatu dute “gure” hitza euskarari erreferentzia egiteko, hau da, euskara euskaldunen hizkuntza soilik dela azpimarratzeko.

“Gurea izan daiteke hitza. Euskal Herrikoa delako, hemengoa, gurea bakarrik.” (28)

“... azken finean zu jaio zarenez hemen ba da zure kultura eta orduan sentitzen dozu zurea dela hizkuntza ere.” (9)

“...nire ustez euskara ezberdina da, hemengo eta gurea delako...” (9)

“... hitz egin behar dugu euskeraz ze da hemengo hizkuntza edo gurea...” (11)

“...nik sentitzen dut euskal kultura nire parte dela, baina ez bakarrik hori, osea nire parte eta euskaldun pertsona denena. Zergatik azken finean hemen bizi gara eta ba geurea delako... ez dakit ondo azaltzen hori egia esan... arrazoiak esan nahi dut.” (28)

“... da como dakizula beste hizkuntza bat ez dena gaztelania y pues eso esta guay para diferenciarte del resto eta horrela...” (11)

“... nik euskalduna izan nahi dut, hemengo izan nahi dut.... Eta askotan entzuten den moduan euskara da euskaldun egiten gaituena.” (28)

Orain gazteek euskara ez erabiltzeko dituzten arrazoiak aipatuko dira. Zergati horiek jarraian txertatutako 6.6. taulan ikus daitezke.

6.6. Taula. Euskaraz ez egiteko arrazoiak.

Euskaraz ez egiteko arrazoiak	
Gizarteak ezarritako arauengatik	Aukerarik ez dagoelako
Erreferente erdaldunak dituztelako	Euskaraz egiteko berebiziko ahalegina egin behar delako
Esperientzia eta bizipen positiboak gaztelaniaz dituztelako	Jendeak gaztelaniaz erantzuten duelako
Gaztelaniaz hizkuntza gaitasun handiagoa dutelako, zailtasun gutxiago	Ohitura faltagatik
Hizkuntza espazioa eta atxikimenduagatik	Nerabezaroa errebolta momentua delako
Gizarteak aurreiritzi negatiboak dituelako euskararekiko	Irakasleen jarrera gogaikarria eta inposatzailea delako
Taldearen onarpen beharra dutelako	Ezin dituztelako erabili gaztelaniaz dituzten errekurtsioak euskaraz hitz egiteko
Lehen hizkuntza gaztelania dutelako.	

Gizarteak ezarritako arauengatik

Beste faktore bat denboran zehar gizartean ezarri diren “arauak” izango lirateke, ikasleek honela arrazoitzen dute bi hizkuntzak topo egiten dutenean gertatzen den errealitatea.

“... hemen Bilbon erderaz, ze entzuten da beti erderaz eta erantzuten dotzue erderaz beti eta orduan ba da errazagoa. (...) Hemen gertatzen dana da jendeak egiten dabela erderaz ia-ia beti eta ordun ba ya dakizu amaituko dozula erderaz egiten eta ohitzen zara. Eta gero bueno ba batzuk badakie euskeraz baina gurago dabe erderaz hitz egitea eta orduan ba ez dotzue erantzuten euskeraz.”

(1)

“...adibidez gu lau gara etxean eta 3 pertsonak dakigu euskera eta batek ez edo oso oso gutxi, baina guk egiten dugu gaztelaniaz eta ez berak euskeraz eta hori da horrela eta urteekin euskera gutxiago egiten dugu.” (31)

“Gaztelaniaz. Kanpoko ekintza bat denez... eta agian ba jendea dagoelako beste hezkuntza eredu batzuetan... ba orduan gaztelaniaz egiten dugu, horrela denok ulertzen dugulako.” (28)

“Bai, ohitura faltagatik izan daiteke noski. Eta igual be bai, moldatzeagatik ere. Ze da errezagoa moldatzea norbaitek euskeraz hitz egiten badau ba bere euskera erderara moldatzea errezagoa da. Ze hemen gaztelaniaz hitz egiten bazaude eta euskerara moldatzea desberdina da, arraroagoa.” (6)

Aurreko ideiarekin lotuta ikasle baten iruzkina aipatu beharra dago, bereziki deigarria baita, izan ere, hizkuntzen inguruan ezarrita dagoen araudia borobildu egiten du.

“...niri orain gertatzen zaidana da ba igual egiten dudala euskeraz denda batean eta erantzuten didatela gaztelaniaz. Eta hori da ba igual ezagutzen zaituztela ze ikusten zaituzte auzotik eta badakite gaztelaniaz dakizula, baina adibidez dator orain kanpotar bat eta ez diete gaztelaniaz hitz egingo ze igual ez daki, orduan bai ahalko luke. Osea nire ustez jendeak jakingo ez balu

gaztelaniaz dakigunik euskara gehiago entzungo zela, baina dakitenez gaztelania dakigula pues hori beti gaztelania entzuten da.” (28)

Erreferente erdaldunak dituztelako

Ikasleei beraien erreferente edo ereduak nortzuk diren galdetu zitzaien focus-groupean eta elkarrizketetan; eta izena esan ostean, pertsona horrek euskara zekien edo ez esateko eskatu zitzaien. Beraietako 6ren ereduak badakite euskara, eta gainontzeko 16ek ez; hortaz, beraien eredu gehienak erdaldunak dira. Eta kontuak kontu euskaldun-eredu gehiago egon dira gasteiztarren artean. Egoera horren azalpena jarraian txertatutako iruzkinean uler daiteke, eta hau ikasle bilbotar batek aipatu zuen banakako elkarrizketan.

“...que lehen ezagutzen nuen bakarrik pues hemengo taldeak eta klaro orduan eurek ziren niretzat ba hoberenak eta horrela baina orain ba Interneten eta horrela ikusten ditut partiduak eta horrela eta ikusten dut liga hobeetako jendea eta orain ba dira horiek nire idiolo, ze hemengoak onak dira baina ez da berdina. Osea konparatzen baduzu Athletic-eko jokalaria bat Manchester-eko batekin pues nada que ver, pero claro si ves solo partidos del Athletic pues es que te parecen buenos baina si comparas...” (11)

Esperientzia eta bizipen positiboak gaztelaniaz dituztelako

Focus-groupean, ikasleei, bakarka, ikasturtean zehar bizitako esperientzia positibo edo polit batean pentsatzeko eskatu zitzaien. Baina ez zuten esperientzia ozenki kontatu behar, beraz, edozer izan zitekeen, edonorekin. Eta ondoren, esperientzia horretan erabiltzen zeuden hizkuntza zein zen zehazteko eskatu zitzaien; hemeretzi ikaslerena gaztelania izan zen; hirurena euskara; eta birena euskara eta erdara.

Gaztelaniaz hizkuntza-gaitasun handiago dutelako, zailtasun gutxiago

Ikasleei galdetegietan, beraien hizkuntza-gaitasunaren inguruan galdetu zitzaien eta hona hemen eskuratutako emaitzak. Ehuneko horietan ikus daiteke erdiak baino gehiagok gaitasun handiagoa duela gaztelaniaz egiteko.

6.6. Taula. Hizkuntza-gaitasuna (%).

	Euskaraz gehiago	Berdin euskaraz eta gaztelaniaz	Gaztelaniaz gehiago
Zein hizkuntzatan duzu gaitasun gehiago?	2,1	29,1	68,8

Beste gazte batzuek zailtasuna aipatu zuten faktore gisa. Galdetegian hiru hizkuntzetan duten zailtasun-maila zein den zehazteko eskatu zitzaizenez bertako datuekin ondorengo taula osotu da. *Zaila* zutabeko datuak bereziki deigarriak dira, euskara ingelesa (atzerriko hizkuntza, gutxien lantzen dena) baino zailagoa iruditzen baitzaie.

6.7. Taula. Hizkuntza zailtasuna (%).

	Oso zaila	Zaila	Normala	Erraza	Oso erraza
Euskara	2,1	37,5	43,7	12,5	4,2
Gaztelania	0	8,3	35,4	41,7	14,6
Ingelesa	4,2	10,4	58,3	25	2,1

Azkenik, iruzkin bitxi bat dago zailtasunaren inguruan. Jarraian aipatzen den esaldiaren berezitasuna zera da, betidanik etxean, eskolan eta lagunartean euskara egin duen pertsona batek esandakoa dela: “...bat da bestea baino errazagoa, ze argi dago euskara gaztelania baino hizkuntza zailagoa dela, hori denok dakigu...” (28).

Hizkuntzaren espazio eta atxikimenduagatik

Espazioa edota hurbiltasuna faktore bat da, izan ere, ikasleek euskara eremu oso konkretuekin lotzen dute. Egiten dituzten loturak bereziki deigarria dira, euskara eskolarekin, etxeko eremuarekin eta liburutegi edo liburu-dendekin lotzen baitute sarri.

“...Es que ikastolan erabiltzen dut euskera gauzak egiteko eta ikasteko, eta kalean eta etxean erabiltzen dut gaztelania ba orduan ez dakit zein den garrantzitsuagoa, da espazioaren edo helburuaren arabera.” (9)

“...kuriosoa da hau. Ze gaudenean etxetik kanpo egiten dogu gaztelaniaz baina etxean egiten dogu euskaraz. Bueno kanpoan euskara pixkat ba igual bai baina vamos etxean baino gutxiago.” (28)

“Bai egiten dut euskera eskolan eta bueno aparte liburategietan edo Elkar, bai Elkar-era noanean ere egiten dut beti euskaraz, osea bai beti beti.” (32)

Erabilera eremuek bi ondorio dituzte gazteengan, hizkuntza-atxikimendua eta hizkuntza-hurbiltasuna. Galdetegian atxikimenduari buruzko galdera bat egin zitzaien (*Gustuko al duzu hizkuntza hau?*) eta jarraian itaun horren emaitzak txertatu dira taula batean. Bereziki deigarriak dira “asko” zutabeko datuak, atzerriko hizkuntzarekiko atxikimendua euskararekikoa baino handiagoa baita, hirukoitza hain zuzen ere.

6.8. Taula. Hizkuntza atxikimendua (%).

	Bat ere ez	Gutxi	Normala	Nahikoa	Asko
Euskara	0	16,7	43,7	29,2	10,4
Gaztelania	0	4,2	45,8	25	25
Ingelesa	2,1	0	37,4	29,2	31,3

Sentipen hori ulertzeko asmoz, focus-groupean ikasleei galdera bat egin zitzaien: *Zuek euskara zer sentitzen duzue zuengandik hurbil edo urrun?* Hona hemen erantzun batzuk.

“Niretzat ere eskolako hizkuntza soilik da.” (5)

“... etxean egiten dot euskaraz, eta herrian ere eta orduan bai hurbil dago euskara...” (1)

“Nik urrun sentitzen dot, ze bakarrik egiten dot euskeraz ikastolan.” (12)

“Urrun baina ere hurbil, ba azken finean zu jaio zarenez hemen ba da zure kultura eta orduan sentitzen dozu zurea dela hizkuntza ere. Orduan biak.” (9)

Gizarteak aurreiritzi negatiboak dituelako euskararekiko

Gazteen jarrera gizartearen isla da, eta nerabe hauek beraien inguruan gertatzen ari dena ikusten dutenez, jarrera edo pentsamolde horiek inkontzienteki barneratu egiten dituzte.

“...Ze hemen eskolan da egun guztia euskeraz, bueno gehiena; eta klaro unibersidadean ez dot uste izango dala egun guztia euskeraz, ze beti esaten da gaztelaniaz dagozala aukera gehiago eta holan ...” (11)

Taldearen onarpen beharra dutelako

Gazte hauek lagunartean eta orokorrean, beraien eguneroko hizkuntzan “normalena” gaztelaniaz jardutea dela adierazten dute, eta ideia hau oso hedatuta dago beraien artean.

“... Oso euskara gutxi egiten dugu, erabiltzen dugu batzuetan baina normalena da gaztelaniaz hitz egitea gure artean eta bueno orokorrean ere.” (42)

“Nire ustez gaztelania “hiriko kaleko hizkuntza da”...” (28)

“... gure arteko hizkuntza da claramente gaztelania, klasekideekin eta gero nire kuadrillan ere.” (32)

“...nire lagun bat hasten bada euskeraz egiten da como porque, zergatik, zergatik orain? Hori da super raroa, porque guk erabiltzen dugu euskara klaserako y poco mas ze zuk ya pentsatzen duzu lagunetan eta etortzen zaizu dena burura gaztelaniaz, ze beti izan da horrela eta porque cambiar nose izango zen super super arraroa.” (32)

Ikasleen iruzkinek diotenez lagunartean edo kuadrillan, gaztelania egiteko “araua” dago ezarrita eta hori ez du inork ere apurtu nahi, inork ez du besteengandik ezberdindu nahi.

“...erdera ez den beste hizkuntza bat erabiltzea da arraroa eta arreta deitzen du.” (1)

“Osea niri euskera gustatzen jat baina es que hitz egitea da... inork ez dau hitz egiten eta da... apur bat arraroa ze beti gauz gazteleraz hitz egiten eta klaro ba imaginatu hasten zarela derrepente de un dia para otro euskeraz hitz egiten pues te toman por raro o asi. Da pena bat baina horrelakoa da, arraro geratzen da.”
(11)

“Niri gustatu bai, pero gauza da pues igual zaudela zure lagunekin eta holan eta pues como que por mucho que te guste no lo usas. Ze da super arraroa derrepente norbaitek hastea euskaraz lagunekin ze gure artean como que lo que ese lleva y se escucha da gaztelania. Eta pues egitea euskara da como que llama la atencion edo ez dakit eta inor ez du egiten ya euskaraz lagunekin. Osea jende nagusiago igual 25 urte dituena edo ba bai baina gure adinean pues ez. Eta ez naiz izango ni aldatuko duena asi que...” (35)

“Depende nor pentsatu ahal du que eres un bicho raro y como que pasando jajajajajaj...” (34)

Ondorioz, euskara erabiltzerakoan *lotsa* sentitzen dutela ere aipatzen dute batzuek.

“Lotsa. Niri nire familiagaz eta horrela euskeraz hitz egiteak lotsa ematen dit, ez dakit zergatik baina lotsa ematen dit...” (13)

“Batzuetan izan daiteke lotsa ematen duelako, adibidez, bakarrik ikastolan hitz egiten baduzu gero irtetzen zara kalera eta ohituta baldin bazaude erderaz hitz egitera lagunekin ba gero hasten bazara euskeraz gaizki begiratuko dizute. Ohitura arraroa delako.” (30)

“...gaude ohituta euskaraz hitz egitera gure artean, arraroa da eta ematen du pixkat lotsa ez dakit... es que da como que no te esperas jendeak edo zure txikitako lagunak egitea zuri euskaraz, edo bueno zuk egitea ze es que ez gaude ohituta nose...” (39)

Lehen-hizkuntza gaztelania dutelako

Ikasle askoren iruzkinetan (focus-group eta elkarrizketetan) ikusi daiteke beraien ustez lehen-hizkuntzak erabileran eragin handia duela, eta uste horrek barne hartzen du euskaldun zaharrek beti euskara-maila altuagoa dutelakoaren ideia.

“...Ama-hizkuntza edo hori afektatzen dau erabiltzea hizkuntza bat edo bestea nire ustez, eta ikusita nire klasea ze egiten dabienak euskeraz gurasoegaz egiten dabie euskeraz beti irakasleekaz eta butzutan sinmas ere; besteek ez.” (5)

“Bai nik uste dut ere dala etxean erderaz egiten dogunez hemen ere erderaz hitz egiten dogula...” (7)

“Ama-hizkuntza, es que errezago urteten jatzu, denez zuk ikasi dozun hizkuntza ba gehiago kontrolatzen dozu eta horrela...” (1)

“... gainera ba ez naiz ere ba euskaldun zaharra eta orduan ba hori nire euskara maila ere ez da super ona, es que izango banintz euskaldun zaharra pues igual bai ze egiten dute ondo, akats gabe, pentsatu gabe...” (32)

Azken hamarkadan euskaldun-kopuruak gora egin du, baina horrek ez du zertan euskararen transmisioa berarekin ekarri; ideia hori ikasle batek bere etxeko egoeraren deskribapena egin zuenean berretsi egin zuen.

“...nire ama badaki euskaraz eta nire ahizpak ere, nire aitak ez, baina batzuetan esaten digute gure artean euskaraz hitz egiteko eta horrela baina guk ez dugu hitz egiten ze beti egin digute gaztelaniaz eta beraien artean ere gaztelaniaz, eta ez gaude ohituta euskerara etxean.” (30)

Aurreko ideiekin loturik, gazteek segurtasun eza dutela ere aitortzen dute.

“... errezagoa egiten zaigu erderaz hitz egitea eta orduan ba ateratzen gara kalera eta euskeraz hitz egiten hasi behar baldin bagara ba zailagoa egingo zaigu eta horrela...” (30)

“... Kanean guztiek ez dakite euskara” (37)

“...nik uste dut jendeak beti egiten duela gaztelaniaz, baina igual norbaiti egiten badiozu euskeraz ba ulertzen dute baina nire ustez ez da oso ohikoa euskera erabiltzea auzoan.” (9)

Gizartean hedatuta dagoen euskaldun zahar kontzeptuaren idealizazioak ikasle askori antsietatea sorrarazten die.

“... euskaraz egiterakoan daude probabilitate gehiago akatsak egiteko, ze erdaraz hitz egiten duzu txikitatik eta euskaraz da ya ba geroago pixkanaka-pixkanaka eskolan ikasten duzun arte.” (36)

“Ni bai jartzen naiz urduri, es que nik pentsatzen dut gazteleraz eta orduan hitz egiterakoan ba zaila iruditzen jat, batez ere aditzak.” (16)

“... erosoago sentitzen naiz gaztelaniaz hitz egiten, azken finean etxean hitz egiten dot erderaz...” (9)

“...lehenengo egunetan ba oso txarto pasatzen dut eta bai jartzen naiz urduri. Es que igual aditzarekin konfunditzen naiz eta horrela eta gaztelaniaz ez zait gertatzen blokeo hori edo.” (36)

“...gaztelaniaz badakit ez dudala egingo akatsik edo, baina euskara egitean ba sentitzen dut egingo dudala eta dut presio handiagoa horregatik...” (39)

Aukerarik ez dagoelako

Focus-groupean ikasleei galdetu zitzaizanean zergatik ez zuten euskaraz hitz egiten, beraietako batzuk azaldu zuten eskolatik kanpo ez dutela aukerarik, beste arrazoi batzuen artean beraien familia edo lagunek ez dakitelako.

“... ikastolatik kanpo ez daukat norekin hitz egin euskeraz, nire lagun guztiek beti erderaz, futbolean erderaz, orduan norekin? Denek hitz egiten dute erderaz.” (39)

“Nik por ejemplo irteten naiz hemendik (eskolatik) eta ez daukat inorekin hitz egiten aukera euskaraz. Adibidez nire etxean pues ez dakite, eta lagun askok ere ez. Orduan, nire ustez muga da jende askok oraindik ez dakiela euskara eta klaro orduan ba dakigunok dugu aukera gutxiago erabiltzeko gure bizitzan, no?” (35)

“... ze kanpoan ez daukat aukerarik euskaraz egiteko.” (39)

Euskaraz egiteko berebiziko ahalegina egin behar delako

Oro har ikasleek askok aipatu zuten euskaraz jarduteko aparteko ahalegina edo ahalegin extra bat egiteko premia, gizarteren gehiengoa gaztelaniaz mintzatzen baita.

“...zegaitik ez daude leku asko non euskaraz hitz egiten dizueten. Adibidez, zoaz ospitale batera eta euskeraz egiten baduzu bilatu behar dute beste pertsona bat dakiena.” (28)

“...Orokorrean jendeak ulertzen du euskera eta auzoan jende nahiko gaztea bizi da orduan suposatzen dut ahalegina eginez gero ba egin ahal dela euskara auzoan...” (30)

“...Gasteizen por ejemplo es que zoaz medikura eta badago jendea dakiena euskara baina es que topatu behar duzu pertsona hori, ordun pues como que egin behar da ahalegin extra bat edo horrela eta ordun pues es mas comodo egitea gaztelaniaz eta ya.” (28)

Jendeak gaztelaniaz erantzuten duelako

Ikasleek (focus-group eta elkarrizketetan) sarri aipatu dute batzuetan beraiek euskaraz egiten duten arren, jendeak gaztelaniaz erantzuten diela eta azkenean beraiek ere gaztelaniaz hitz egiten amaitzen dutela.

“...Bilbon erderaz, ze entzuten da beti erderaz eta erantzuten dotzue erderaz beti eta orduan ba da errazagoa.” (1)

“... ahaleginak eginda bai. Hombre, niri orain gertatzen zaidana da ba igual egiten dudala euskeraz denda batean eta erantzuten didatela gaztelaniaz....” (28)

Gaztelania erabiltzeko joera azaltzeko aipatzen dute jendeak oro har nahiago duela gaztelaniaz hitz egin euskaraz baino.

“... egia da jendeari ez zaiola gustatzen euskeraz hitz egitea...” (1)

“... jendeak nire ustez bai dauka jarrera pixkat negatiboa euskerarekin baina klaro denetarik dago....” (9)

“...ez dakit norbait ikusten digu euskaraz hitz egiten eta como que ez dakit esaten dute baina zergatik hitz egiten duzue euskaraz eta esaten dute ez dela beharrezkoa jakitea hizkuntza hori ze oso jende gutxik hitz egiten du eta horrela.” (39)

Ondorioz, euskaraz egiteko *ahalegina* egiten duten pertsonen artean etsipen-sentsazioa hedatu da, egindako esfortzua alferrikakoa baita jendeak egiten ez badu.

“...badaude beste batzuk ba euskeraz hitz egiten diezunak eta gaztelaniaz erantzuten dutenak eta ba... horrela ezin da. Horregatik, klasekoekin adibidez egiten dut gaztelaniaz...” (28)

“Jendeak ez dabelako jarraitzen izan ahal da arrazoi bat. Ze batzuetan igual hitz egiten diot norbaiti euskeraz eta erantzuten dit gaztelaniaz jarraian; edo beste batzuetan ahalegintzen dira erantzuten euskeraz baina gero nekatu egiten dira.” (32)

“Normalean izaten naiz ni ahalegintzen naizena euskara ateratzen baina... es que denek egiten badute gaztelaniaz ba oso zaila da; eta gainera nik euskaraz egiten dudanean beraiek jarraitzen dabie gaztelaniaz egiten eta horrek nekatzen du, ze beti naiz ni esfortzua egin behar duena.” (28)

“Bai ahalegina egiten dudanean sentitzen naiz desoroso. Osea nik nahi dut saiatzea euskara gehiago egiten kuadrillan eta ahalegintzen naizean euskara egiten ba momentu horretan nire pentsamenduak dira positiboak, emplan “venga ba euskeraz” baina gero ya gogaitzen naiz, nekatzen naiz.” (28)

“...ahalegina pertsona bakarrak egiteak nekatzen dau eta gainera beti berdina bada pues es que ya ematen dizu hasta lotsa egitea euskara ze da arraroa norbaitek hori egitea kuadrillan bueno Gasteizen eh.” (28)

Ohitura faltagatik

Ikasleen arabera ohitura falta da erabilera oztopatzen duen faktore garrantzitsuenetariko bat; eta beraien ustez, hizkuntza bat erabiltzeko ohitura hartuz gero, aldatzea ia-ia ezinezkoa da.

“...ohituragatik hitz egiten dugu gaztelaniaz nire ustez.” (11)

“... niri txikitatik gazteleraz hitz egin didatelako beti eta orain ohituta nago gaztelaniaz hitz egitera, eta euskera oso gutxitan erabiltzen dut eta orduan ba zaila da ohitura horrekin amaitzea edo apurtzea edo...” (27)

“...ohitu garelako gaztelaniaz egiten eta hori aldatzea ya 16 urterekin imposiblea da...” (35)

“... quieras o no egun osoa bazaude gaztelaniaz hitz egiteko eskolatik kanpo ohitzen zara eta gero hori aldatzea zaila da. Nahiz eta eskolakon irakasleak insistitu asko egiteko euskaraz eta.” (39)

Nerabezaroa, errebolta momentua delako

Gazteek beraien adina “garai zail” gisa definitzen dute, eta horrek barne hartzen du oso kontzienteak izan gabe erabakiak hartzea.

“... etorkizunean igual euskara gehiago egingo dugu, nire ustez orain gaude epoca batean pixkat zaila... pixkat tontoa eta horrela, baina etorkizunean kontzienteago izango gara euskeraz eta bere egoeraz eta horregatik igual gehiago.” (9)

“...Nik uste dut etorkizunean egingo dudala euskera gehiago. Adinagatik nik uste dut egingo dudala gehiago, porque ya 25ekin como que nago lanetik hurbil eta horrela eta ya hartzen ditut erabaki responsableagoak eta horrela esque orain pues nerabezaroarekin eta horrela pues da adin pixkat zaila eta bueno ez duzu pentsatzen gauzak asko eta badakizu dela garrantzitsua euskara baina como que ez zara konturatzen ere egoeraz eta horrela.” (39)

Adin-tartearekin lotuta, errebolta edo matxinada nahia ere aipatzen dute batzuek, eta euskara eskolan uneoro erabiltzen dutenez, kalean kontrakoa egitea da joera dirudienez.

“... euskara eta gaztelania dira bi hizkuntza eta por alguna razon hasi gara hitz egiten gaztelaniaz baina ez da delako hobea edo guayago da sinmas. Osea nik uste dut pixkat dela como para diferenciar emplan euskara egiten dugu eskolan eta pues kalean euskara ez, hobeto gaztelania...” (32)

“Pues euskera ez egitearen arrazoia... ba jo es un poco para salir de la rutina, de la obligacion edo. Todo el dia estan “euskera, euskera, bla bla bla” pues te apetece otra cosa en tu tiempo libre. Es que si hablas en euskera parece que estas siguiendo las reglas de la ikastola y parece que sigues ahi dentro. Igual horregatik egiten dugu gaztelania eta euskera, es que como que insistitzen dute

asko eta no se como que cansa tambien. Pero vamos no se, igual dago zerbait gehiago ere...” (9)

Azken ideiarekin loturik, euskara eta umeen arteko lotura dago, gazte hauek euskara eta umeak hertsiki lotuta baleude bezala aipatzen baitituzte; eta erreboltaren ideiari jarraiki, horretatik ere aldendu nahi dute, beraiek ez direlako umeak.

“...haurrak eta erabiltzen dute euskara normalean...” (30)

“...guk ere euskara egiten genuen, denbora guztian ze azkenean txikiak ginen eta egiten genuen dena euskaraz ikastolan, kirolean eta horrela eta orduan pues geuden como ohituta... zelako hori normalena. (...) Osea da como que euskara gustatzen zaizu gehiago zarenean txikia eta horrela baina gero nagusitzen zarenean como que pixkat urruntzen zara de eso y tal eta lagunek erabiltzen dute gaztelania eta zu ere.” (30)

Irakasleen jarrera gogaikarri eta inposatzailea delako

Irakasleen jarrera sarri gogaikarri gisa definitu dute eta beraien esaldietan ikus daiteke horrek ikasleria aspertu egiten duela eta euskara erabiltzeko gogoia sustatu ordez kontrako efektua dakarrela berarekin.

“... Nik uste dut batzuetan irakasleen jarrerak ez duela laguntzen ze batzuetan derrigortzen dizute eta orduan pues horrek kentzen du gogoia edo horrela.” (32)

“...Askotan eskolako irakasleak insistitzen dute asko egiteko euskaraz eta horrela amaitzen duzu hartu ere porque todo el dia “euskeraz, euskeraz, euskeraz...” puf como que quema...” (39)

“... irakasleak eta horrela beti da como euskeraz eta horrela eta botatzen dozkue bronka...” (1)

Ezin dituztelako erabili gaztelaniako errekurtsioak euskaraz hitz egiterako

Focus-groupean ikasleei hizkuntzak nahasten zituzten galdetu zitzaien; eta horietako batean bi ikaslek ondorengo elkarrizketa izan zuten gaiaren inguruan.

“... be bai esaten deuzkue ez esateko erderakadarik, batez ere euskerako irakasleak.” (13)

“Y lo que pasa da que askotan igual zaude euskeraz egiten eta eskapatzen zaizu hitz bat edo horrela gaztelaniaz eta ya esaten dizute txarto eta horrela... y vamo pues para eso te quedas callau mejor... es que gainera hitz bat esateagatik gaztelaniaz que tampoco pasa nada creo yo. Eta batzuetan gelditu beharrean isilik porque algo no te sale igual da hobeto esatea hitz bat gaztelaniaz edo ze laguntzen dizu horrek baina ez digute uzten irakaslea.” (14)

6.4. Etorkizunari begira gazteek nola ikusten dute egoera?

Egoerak hobera egingo du

Elkarrizketetan ikasleei etorkizunaren inguruko aurreikuspen bat egiteko eskatu zitzaien, jarraian beraien emaitza batzuk jarri dira.

“... gaur egun hori dago pasatzen. Dago euskara ikasteko aukera askoz gehiago, ordun etorkizuna izango da diferentea.” (12)

“Nire ustez euskara hitz egingo da gehiago urte batzuk barru; ze azkenean orain, oraintxe bertan Euskal Herrian ia ume guztiek euskeraz dakite baina guraso guztiak ez eta orduan ba gu nagusiak egiten bagara, ba guk euskeraz aritzen jakingo dogu eta orduan umeekaz bai hitz egin ahalko dogu euskeraz.” (16)

“...guk beraien adinean euskera gutxiago egiten genuen, gaur egun, txikiek euskera asko erabiltzen dabe.” (13)

“...Orain euskera dago como mas, bai, jende gehiagok daki eta gero jakingo dabe gehiago ere.” (5)

Ez dute euskara galtzerik nahi

Ikasleek hizkuntzaren desagerpenak pena edo atsekabea emango liekeela aitortzen dute.

“...emango doztan pena euskara desagertzea.” (5)

“Niri be bai, ze da zozer ikasi doguna txikitatik eta pues erabiltzen dogunean beste batzuekaz, igual lagunegaz ez baina familiagaz igual zan zure kontaktua eta hori galdetzea ba pena emongo doztan.” (6)

Inplikazio edo informazio eza

Ikasleek etorkizunari begira euskararekiko inplikazio eza ere erakutsi dute, kasu batzuetan inplizituki bada ere.

“...Egia esan berdin zait, jendeak egiten badu erderaz orain moduan ba erderaz egingo got etorkizunean be bai eta ba egiten badute euskeraz ba igual euskeraz.” (5)

“... porque, zertarako aldatu no? Gaztelania egiten badugu sinmas para que cambiar euskerara.” (32)

“...jendeak hitz egiten badau ba ez da galduko hizkuntza. Nik ez badot hitz egiten baina beste bat bai ez da galduko.” (5)

Seme-alabei zein hizkuntzatan?

Aurreikuspenekin jarraituz, ikasleei focus-groupean galdera bat egin zitzaien *Seme-alabak dituzuenean zein hizkuntzatan egingo diezu?*. Kasu honetan emaitzak anitzak izan ziren eta ez zen adostasun handirik egon erabakietan.

“Nik argi daukat: euskaraz. Ze txikitatik ikastea euskara da onena, notatzen da nork egin duen beti euskara etxean eta nor ez, euskaldun zaharra izango dira horrela eta hori hobeto. Gainera, euskaraz ikasteko hobeto, zeren bera handiagoa denean igual ba EGA ikasteko errazagoa izango litzateke berarentzat.” (12)

“Ba nik bietan hitz egingo nieke, bietan erraztasuna izateko.” (10)

“Zalantzarik gabe gaztelaniaz eta ingelesez, direlako garrantzitsuenak.” (29)

“Nik hiru hizkuntzatan hitz egin nahi diet, hau da: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Nire ustez oso hori da aukera onena, horrela denak ikasteko, denetarik ikasteko. Nire ustez hiru hizkuntzak dira garrantzitsuak gaur egun.” (36)

7. ONDORIOAK

Atal honetan hainbat gai landuko direnez, hiru azpiatal antolatu dira. Lehendabizi, ikerlanaren ondorioak aurkeztuko dira betiere ikerketa galderen estruktura jarraiki; bigarrenik, lan honen mugak; eta, azkenik, etorkizunari begira egindako proposamenak.

7.1 Euskararen erabilera, faktoreak, motibazioa eta etorkizuna

Jarraian, aurreko atalean aurkeztutako datuen interpretazioa egin eta ikerketaren ondorioak aurkeztuko dira. Horretarako, kontuan hartuko dira ikerketa galderak, izan ere, hauek informazioa modu argi eta zentzuzkoan antolatzea ahalbidetzen dute.

1. Ikerketa galdera. Zein da gazteen euskararen erabilera?

Emaitzen atalean gazteen esparru ezberdinetako erabilera nolakoa den azaldu da eta ikusi ahal izan da oro har euskarak presentzia ahula duela beraien egunerokotasunean. Gutxi dira euskara hutsean aritzen diren gazteak; gehixeagok erabiltzen dituzte euskara eta gaztelania, biak; eta zalantzarik gabe, gehiengoak gaztelaniaz soilik mintzatzen da. Erabilera eskasa edo baxua erakusten duten datuak ikerketa askotan plazaratu dira, besteen artean: ARRUEn (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza, 2017) eta VI. Inkesta Soziolinguistikokoan (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa, 2016).

Eskolako erabilera orokorrean zentratuz, datuetan ikus daiteke ikaskideekin komunikatzerakoan gaztelania asko erabiltzen dutela gazteek; irakasleekin mintzatzeko, aldiz, euskara da nagusi. Datu horiek neurri handi batean, bat datoz ARRUEko (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza, 2017) emaitzekin. Hori Aiestaran, Cenoz eta Gorter-ek (2013) azaltzen duten botere-harremanen menpekotasunaren ondorio izan liteke, noski.

Kultura-kontsumoari dagokionez, gazteen gehiengo handi batek telebista eta Interneten kontsumoa gaztelaniaz egiten du; eta irratia kasu ere gaztelania nagusi den arren, euskararen presentzia beste kasuetan baino nabarmenagoa da. Kasu honetan ere, datuak bat datoz ARRUEkoekin (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza,

2017). Hedabideen alorra borobiltzeko eta azaltzeko asmoz, Quintanillak (2014) ideia hau aitatu zuen: “Komunikabideen artean, irratia da euskaraz kontsumitzen duten bakarra. (...) bertan ipintzen duten musika gogoko dutelako” (102 or.). Ikusmolde horrekin bat egiten duten ideiak eskuratu dira ikerketa honetan ere, ikasle batek baino gehiagok onartu baitu irratiko eskaintza beraien gustukoa dela, ez ordea beste hedabideetakoa (telebistakoa esaterako).

Orain artean, erabileraren inguruko datuak interpretatu dira. Horien atzean ezkututzen den errealitatea ezagutzeko asmoz, jarraian hizkuntza-praktikan eragina izan dezaketen faktoreak zeintzuk izan daitezkeen azalduko da.

2. Ikerketa galdera. Zein faktorek eragiten dute euskararen erabileran?

Atal honetako faktore gehien atzean arrazoi berbera ezkututzen da: gizarteak ezarritako “arauak”, izan ere, identifikatutako eragile asko (baliagarritasuna, konnotazioak, eta abar) aurreiritzietan oinarritzen dira. Gizartean eraikitako ideia edo arauen alorra argi azaltzen da aipu honen bidez: “... ikuspegi antropologiko batetik are gehiago, hegemonikoa den hori ere hainbat faktore sozio-politikok egin dutela hala. Beraz, hegemonikoa den oro eraikia da” (Quintanilla, 2014, 91 or.).

Ikasle askok baliagarritasuna aipatzen dute euskararen erabilera oztopatzen duen eragile gisa. Bestalde, asko dira ingelesa eta gaztelaniaren praktikotasuna aipatzen dutenak; ez, ordea, euskararena. Ideia hori van Benthem-ek (2000) ere aipatu zuen, esanez erabilgarritasunak funtzio ukaezina zuela hizkuntzen sorrera eta produkzioaz hitz egiterakoan.

Hiztunek hizkuntza baten inguruan duten irudiak asko eragin dezake erabilera, eta pentsamolde horiek negatiboak baldin badira, ondorioak ere halakoxeak omen dira. Ikerketako datuetan ikusi da gazteek euskara hizkuntza babesgabe gisa antzematen dutela, lengoia deskribatzerakoan okasio askotan agertu baitira *txiki*, *zahar* eta *ezezagun* bezalako adjektiboak. Gaztelania eta ingelesaren nolakotasuna adierazteko, *aldiz*, *moderno* eta *boteretsu* izenlagunak izendatu dira; eta honek eragina du hautuan.

EGOD ikerketan (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015) ere hizkuntzaren irudia aztertu zen, eta kasu horretan ere parte-hartzaileek hizkuntzaren pertzepzio negatibo xamarra erakutsi zuten, baina iritziak bestelakoak ziren. Ikuspuntu horiek irakurrita, edonork esango luke jendeak Francoren garaiko pentsamoldearekin jarraitzen duela oraindik, sarri lotzen baitute euskara baserritarren hizkuntzarekin. Egoera konpontzeko ahaleginean, Erizek (2016) ideia hau proposatzen du: “euskararen hautemate eta irudia hobetzea, arreta batez ere gazte jendearengan jarritz. Horretarako, bereziki garrantzitsua da gizarte eredu berrituak eskaini eta euskararen hautemate eta irudia hobetzea: erakargarria, modernitatea, cool-a...” (162 or.).

Irudiaren alorrarekin loturik, ezinbestean aipatu behar da hizkuntzak izan duen eta oraindik egun duen konnotazio politikoaren alorra. Euskarari erantsi zaion kutsu politizatuaren inguruan EGOD egitasmoan (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015) zera aipatzen da “... gizartean euskara maiz erabili izan da eztabaida edo gatazkarako aitzakia bezala: bi komunitateen arteko gatazkaren erdian, eta (...) eztabaida politikoaren erdian ere bai” (34 or.). Argi dago eztabaida eta uztarketa horiek ez diotela onurarik ekarri euskarari, eta hori Amorrotu et al-ek ere azaltzen dute (2009): “la opinión generalizada es que la crispación política que existe y ha existido ha afectado al euskera negativamente” (65 or.).

Alor hau labur azaltzea zeregin zaila da, izan ere, autore anitzen arabera militantziak euskararen biziraupena ziurtatu du urte askotan zehar, Odriozolak esaterako (2017): “Pizkunde horretan, besteak beste, Federico Krutwig eta Txillardegiren izenak aipatu beharko genituzke, abertzaletasunaren oinarrian euskaldun nazionala ezarri zutelako beren diskurtsoan. (...) Egoera sozial eta kultural horretan iraun dugu luzaro gure autokontzientzia etnikoari esker” (18.).

Emaitzetan ikusi da hiztunek ezberdintasun geografiko eta instituzioen funtzioen inguruan ideia oso konkretuak dituztela. Beste era batera esanda, gazteek euskal zonalde gisa dute Donostia eta oro har Gipuzkoa; bestalde, Bilbo eta Gasteiz erdal gunek direla aitortzen dute aldi oro. Eta haratago doaz, izan ere, gazteek aipatzen dute eskualdearen arabera garrantzia gehiago edo gutxiago ematen zaiola euskarari gizarte mailan. Faktore honen atzean estereotipoak izkutatzen dira, eta hori “Euskararen erabilpenari buruzko datuen aurkezpena: diagnostiko laburra” hitzaldian Etxenikek (2017) azaldu zuen:

“Arabaren inguruan estereotipo asko daudela, are gehiago euskararen inguruan”. Kasu honetan ere aurreiritziek ez diote mesederik egiten euskarari, erabilerari batez ere.

Adina oso eragile ahaltua da hizkuntza-praktikari dagokionez. Hori ikerketako datuetan ikus daiteke, izan ere, gazteek adin-tarte bakoitza hizkuntza konkretu batekin uztartzen dute; haurtzaroa euskararekin, nerabezaroa gaztelaniarekin eta gaztaroa ere euskararekin. Joera horretan oinarrituz, beraien adinekoen artean gaztelania egitea denez ohikoena, horri heltzen dira estu-estu eta horrek “joera” jarraitzeko grina sentiarazi diezaiekete. Fenomeno hori da zehatz-mehatz Iurrebasok (2012) “euskararen bizitza-ziklo”-aren teorian azaldu zuena. Pentsamolde oso hedatua da gizartean, eta Quintanillaren (2014) ikerketako gazte batek ere deskribatu egiten du:

“...12 urtekin edo hasten gara gaztelera gehixau erabiltzen. Eztakit igual... 12 urtekin igual... tontuaua zara eta pentsatzen dozu erderaz eitten zarala mas wai... baina gero te das cuenta de que no... eztakit. (...) baina gero nausixaua zaranian, ba eztakit igual pentzau eitten dozulako, aldaketa bat emoten da...” (106 or.).

Horrez gain, gazteek euskara eta umeen arteko lotura estua uneoro erakusten dute beraien esaldien bidez, ARRUE (Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza, 2017) eta Quintanillaren (2014) ikerketetan ere ikusi daiteke hori.

Herritar eta euskaldun askok “euskara: euskaldunon hizkuntza” gisa definitzen du. Hori ikerketako datuetan ere behatu ahal izan da, ikasleek modu esplizituan eta implizituan adierazi baitute euskara “gure hizkuntza” dela. “Gure” hitzaren erabilpena etengabe ikusi daiteke emaitzetan barrena eta horrek noski euskaldunei edo euskaldun jendeari egiten dio erreferentzia. Duela hamarkada batzuetako testuinguruan esaldi horrek zentzu gehiago izango luke seguruena, baina gaur egun gizartean kultura, hizkuntza eta herrialde anitzeko herritarrak bizi dira elkarrekin; eta diskurtso horrek ez ditu herritar denak barne hartzen, euskaldunak soilik. Odriozolak (2017) bere “Nora goaz euskalduntasun honekin?” liburuan azaldu zuen gaurko euskalduntasun etnikoarekin euskaldunak direnekin identifikatzen garela soilik eta ez hizkuntza horrekin adierazi ahal duten guztiarekin; hizkuntza etniarekin dagoelako lotuta eta ez komunikatzeko gaitasunarekin. Bere ustez, nazio minorizatuek burujabetza estrategia garatu ezean,

luzarora, ezingo dute hizkuntza-komunitate gisa modu duinean iraun. Are gehiago, aipatzen du egun horretaz kontatzen den bakarrenetarikoa Katalunia dela.

Ikerlanaren emaitzetan ikasleek hizkuntzaren hiztegi formala baino ez dutela ezagutzen baieztatu da, eta are gehiago batzuetan hizkuntza informala existentzia eza ere aipatu dute. Horren arrazoi nagusia ondorengo izan liteke: gazte gehienek euskararen erabilera eskola-eremura mugatzen da, hortaz, hizkuntza formala soilik ezagutzen dute. Horri loturik, gazte hizkeraren ezaugarriak nolakoak diren azaltzen ditu Zabaletak (2007): “Euskara gehien erabiltzen den herrietan ere, gazteek erregistro kolokiala, eroso, adierazkor eta erakargarria, erdaratik hartzeko joera dute, are gehiago euskararen presentzia handia ez den lekuetan” (10 or.). Ideia hori borobiltzeko, Quintanillak (2014) zera dio: “Horrez gain, honako adierazpideak kokatzen dituzte gazte hizkera gisa: buah txabal, buah no me ralles...” (112 or.).

D ereduari dagokionez, emaitzetan baieztatu da ikasle gehienek hezkuntza-eredu konkretu horretan egotea positibotzat dutela, euskaraz jarduteko eremu seguru eta babestu baten moduan sentitzen baitute askok. Odriozolak horrekin lotuta (2017) hurrengo aipua bota zuen: “Euskararen arnagune geografikoetan gero eta oxigeno gutxiago dago euskaraz bizitzeko” (13 or.). Esaldi horrek gizartean euskaraz jarduteko aukera urritasuna dagoela ikusarazten du eta D ereduko ikasleen artean okasio gutxi horiek eskertzeko joera nabarmentzen da oro har.

Atal honetan hizkuntza-praktika baldintzatu dezaketen eragileak zeintzuk izan daitezkeen aipatu dira, betiere ikerketako gazteek eskainitako informazioa gidalerro izanik. Hurrengo sekzioa ikasleek euskara erabiltzeko duten motibazio eta motibazio ezean zentratzen da; hortaz, ikasleen pizgarriak zeintzuk diren ezagutzeaz gain, egun gazte hauek duten zio eza ere ezagutaraziko da bertan.

3. Ikerketa galdera. Zein da gazteek euskara egiteko duten motibazioa?

Ikasleek gehiegi pentsatu gabe bat-batean izendatu duten lehengo faktorea derrigortasuna izan da. Gazteek azaldu dute sarri euskara erabiltzeko arrazoia *negatiboak* edota liskarrak ekiditea dela; ideia hau beste ikerketa batzuetan ere nagusitu izan da, Quintanillaren (2014) lanean esaterako. Horrez gain, Quintanillak (2014) ideia

hau gehitzen du: “Etxean erabiltzeko aukera duenak edota lagunartean erabiltzen duenak ez dio horrenbeste garrantzi ematen eskolan derrigortzen duten edo ez. Ikasten ari denaren kasuan edo euskaraz aritzeko ohiturarik ez duenarentzat esanguratsua bilakatzen da, eskolan erabili beharra” (105 or.). Aipua irakurri arte ez zitzaion alor horri erreparatu, baina irakurri ondoren ikerketako emaitzetan ideia berresten zela ikusi zen, hau da, ikerketa honetako gazteen egoera ere berbera da.

Hizkuntza-praktikarako beste arrazoi bat hizkuntza gustatzea izan da, hau da, honekin eroso sentitzea. Kasu honetan ikasleek hautua borondatez egin dute eta ez *presiopean* aurreko kasuan bezala. Horrez gain, ikasleek aipatzen dute euskaraz aritzeko erosotasuna pertsona batetik bestera aldatuz doala, eta horrekin lotuta Quintanillak (2014) zera dio: “Hautua egin izanak, eragina dauka norberaren hizkuntza-ohituretan, baina baita gainontzekoen ohituretan ere” (109 or.).

Beste faktore bat norbaitek beraiei euskaraz egitea da, hori, beraientzako elkarrizketa euskaraz jarraitzeko arrazoi indartsua baita. Horren atzean segurtasun eza egon daiteke, izan ere, besteak euskaraz egiterakoan hizkuntza menperatzen duela erakusten daude eta horrek, erabiltzeko segurtasuna edo erosotasuna eskaintzen die hauei. Ideia hau aurrerago ere azalduko da.

Motibazio instrumentala ezinbestean aipatu behar da arrazoiaren artean. Ikasle batzuek aipatu dute euskara ikastea garrantzitsua dela, besteen artean lana topatzeko edota EGA titulua gainditzeko. Ideia hau beste ikerketa askotan ere partekatzen da, esaterako EGOD egitasmoan (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2015). Motibazio hau ohikoa da ikasleen artean, baina baita gurasoen artean ere; izan ere, marko teorikoan aipatu den moduan, gurasoek beraien seme-alabak D ereduan eskolaratzeko arrazoiatariko bat haxe da hain zuzen ere (Amorrortu eta Ortega, 2009).

Erabiltzeko pizgarriekin jarraiki, euskara hizkuntza sekretu gisa erabiltzea pentsatu baino ohikoagoa omen da. Gazteek barre eta algaraz onartu zuten euskara funtzio horrekin sarri asko erabiltzen dutela, hau da, besteek ez ulertzeko; baina batzuek aipatu zuten horren atzean *postureoa* dagoela batez ere. Aldasorok (2002) historiari erreferentzia eginez funtzio horren antzinakotasuna aipatzen du: “Dirudenez hizkuntza sekretuaren funtzioa izan zuen 1595-1598ko espioitza militarrean idatzitako gutun batzuetan...” (192 or.).

Amaitzeko, batzuek hizkuntza erabiltzeko arrazoia identitatea dela aipatu dute. Aitormen hori egin duten ikasleek, hizkuntzarekiko atxikimendu edota afektua ere erakutsi dute ideia partekatzerakoan. Azken ideia hori bat dator Sanchezek (1987) esan zuenarekin, bere ustez pentsamendu-hizkuntzak hiztunengan atxikimendua eta leialtasuna modu naturalean sorrarazten baititu; baina hizkuntza tresna soil denean atxikimendua mugatua omen da.

Ikasleek euskara erabiltzeko dituzten pizgarriekin amaitzeko, ezinbestean aipatu behar da egindako behaketa bat. Euskara erabiltzen duten ikasleek amankomunean ezaugarri bat partekatzen dutela ikusi ahal izan da: euskalkien erabilera. Beste era batera esanda, euskara menperatu eta erabiltzen duten ikasleek euskalkiren bat erabiltzen dute, orokorrean bizkaiera bai bilbotarren baita gasteiztarren artean ere. Ideia hori Quintanillaren (2014) ikerketan ere agertu zen: "... konturatu naiz, euskara menperatzen duten gazte gehientsuenak euskalkian hitz egiten dutela" (105 or.).

Jarraian, ikerketa-galderaren beste erantzuna dator. Beste era batera esanda, orain arte, gazteek euskara erabiltzeko dituzten arrazoiak ikusi dira, beraz, jarraian erabilera oztopatzen duten arrazoiak aipatuko dira.

Erabilera oztopatzen duen lehenengo arrazoia oso boteretsua da, gizartean oso ezarrita dagoen araua baita. 15-16 urte bitarteko gazteek argi daukate gizartearen ikuspuntutik euskara hizkuntza ahula dela eta gaztelania, aldiz, ahalguztiduna. Horrek bere ondorioak ditu noski, bi hizkuntzek topo egiten dutenean euskaraz ari denak aldatu behar baitu bere hizkuntza gaztelaniara edota zuzenean gaztelaniaz jarduten du, ziurtzat jotzen baitu euskaraz dakienak gaztelaniaz ere badakiela. Ideia hori sarri agertu da ikasleen iruzkinetan. Pentsamolde horren atzean dagoen arrazoi posiblea Odriozolak (2017) hurrengo aipuaren bidez izendatzen du: "Erdal elebidunak ezer gutxirako behar du euskara bezalako hizkuntza minorizatu etniko bat, bere hizkuntza nagusia zernahitarako baliagarria zaionean" (7 or.).

Erabilera oztopatzen duen bigarren traba erreferente erdaldunen presentzia eta euskaldunen presentzia eza litzateke. Focus-groupean ikasleei beraien eredu edo idoloak nortzuk ziren galdetu zitzaizen eta kasu gehienetan (%76,19) eredu erdaldunak zituztela aitortu zuten. Ikasle batek baino gehiagok aipatu zuten txikitan eredu euskaldunak

zituztela, baina nagusitu ahala beraien perspektiba handitu egin zela eta horrek erreferente berrien etorrera ekarri zuela berorrekin. Ideia hau Quintanillaren (2014) ikerketan ere agertu zen: "...umetan izandako ohiturak alde batera utzi, eta bestelakoak hartu..." (102 or.).

Hirugarren oztopoa euskarazko bizipen positiboen urritasuna litzateke. Ikasleek azaltzen dute esperientzia baikor gehienak gaztelaniaz bizi dituztela, eta horren arrazoia zera da: kasu askotan euskararen erabilera eskola eremura mugatzen dela. Emaizta antzekoak eskuratu zituen Quintanillak (2014) eta horren aurrean ideia hau aipatu zuen: "Norberarentzat garrantzitsuak direnak eta gogoratzean goxo eta atseginez egingo ditugunak; horrelako esperientziak behar ditugu (...). Eta hala den neurrian euskaraz izan daitezen ahalegindu behar gara" (109 or.).

Hizkuntza-praktikarako beste oztopo bat hizkuntza-gaitasun eta hizkuntza-zailtasunarekin lotutakoa da. Emaizetan ikusi da, gazteek hizkuntza-gaitasun altuagoa dutela gaztelaniaz egiteko euskaraz egiteko baino. Eta zailtasunari dagokionez, oro har gaztelania hizkuntza erraz gisa sailkatzen dute eta euskara hizkuntza zail moduan. Bestalde, ikasleek aipatzen dute euskara ingelesa baino hizkuntza zailagoa dela, nahiz eta bigarrena atzerriko hizkuntza izan eta ordu gutxiago eman hori ikasten. Horrekin lotuta Quintanillak (2014) hauxe dio: "Bestetik, euskararen zailtasunarena mito gisa kokatuko genuke elkarrizketa hauen ostean..." (104 or.). Egia da gizartean oso hedatuta dagoela euskararen zailtasun gupidagabearen ideia eta horrek bere ondorioak izan ditzake noski. Baina gazteen iruzkinak esaten dutenera itzuliz, Odriozolak (2017) zera dio: "D ereduko ikasleen gaitasun komunikatibo orokorrak ez du erdarazkoaren mailarik erdietsiko inoiz, euskarak erdarak adina espazio komunikatibo bereganatu ezean" (149 or.). Zentzuzkoa dirudi ideiak, hau da: ikasleek zenbat eta gehiago praktikatu hizkuntza bat, orduan eta zailtasun gutxiago izango dute horretan.

Bestalde, atxikimenduaren alorra ere ezinbestean aipatu behar da. Galdetegietako datuak oso deigarriak dira, izan ere, atxikimendu sendoena ingelesarekiko dute (%31,3), gero gaztelaniarekiko (%25) eta ahulena euskararekiko (%10,4). Ideia hori, "Eta hemendik aurrera zer" dokumentuan ere islatzen da: "Bereziki gazteen bizi-giroan, bi hizkuntza ofizialak ez ezik, ingelesak ere toki garrantzitsua hartu du eta are garrantzitsuagoa hartuko du" (Eusko Jaurlaritza, 2016, 7 or.). Ikasleek euskararekiko

duten begikotasun ahularen arrazoia zera da: sarri euskararen erabilera eskolara mugatzen dela eta ondorioz hizkuntza akademiko soil gisa ikusten dutela askok. Honekin ondorioztatu daiteke hizkuntza erabiltzen den esparruak eragina duela atxikimenduan, ez baitu efektu bera hizkuntza ikasteko helburuarekin erabiltzeak edota norbere bizitzako auzi pribatuen inguruan mintzatzeko erabiltzeak; bi kasu horietan atxikimendua oso bestelakoa izango da. Hortaz, errealitatea hauxe da: “Matematikaz euskaraz jardun beharra daukate eta hori ezin hobeto egiten dute; baina harreman eta sentipenen inguruan ez daukatela gaitasun bera kontatzen dute batzuek” (Quintanilla, 2014, 103 or.). Egoera horretatik irteteko Eusko Jaurlaritzak (2016) hauxe proposatzen du: “Euskara gazteen ohituretara, disfrutatzeko erabiltzen dituzten eremuetara eta teknologia berrietara eraman behar dugu.” (19 or.).

Taldearen onarpen beharra da ikasleek partekatzen duten oztopo indartsuenetariko bat, honek adin guztietako pertsoneri eragin diezaieke, baina bereziki nerabezaroan sartuta dauden 15-16 urteko gazteei. Ikasleek ideia hau asko aipatu dute focus-group eta elkarrizketetan. Beraien esanetan, lagun taldean edo kuadrillan “normalena” gaztelaniaz egitea da, eta *araua* modu inplizituan ezarrita egon arren izugarritzko eragina du partaide guztiengan. Beraz, euskaraz jarduteak “normaltasunetik” irtetea suposatzen du beraien testuinguruan eta horren ondorioak bi izan daitezke: lotsa edota beraien hitzetan “rarito” baten moduan gelditzea. Egoera hori, Deleuze eta Guattari-k (1989) azaldu zuten esanez, hizkuntzaren aurrean mendekotasuna erakusten zuela gizabanakoak bere biziraupena bermatzeko asmoz.

Horren ondorioz ikasleak gaztelaniaz egitera ohitu dira, eta beraiek azaltzen duten moduan usadio horretatik aldentzea ez da egiteko erraza. Kontzeptu honen nolakotasuna ondo definitzeko ezinbestean aipatu behar dira Jauregi eta Suberbiola (2017), EUSLE metodologia sortu zutenean harreman-sareen indarra ere definitu baitzuten: “Hizkuntza ohitura da gizarte sistema batek eta bere kideek aurkitu duten jokaera orekatu eta egonkorra. (...) Behin eta berriro erreproduzitzen da, taldeari nortasuna, erosotasuna, ziurtasuna, erraztasuna, naturaltasuna eta eraginkortasuna ematen dizkiolako. Sistema orok orekarako joera izaten du.” (16 or.).

Ikasleek hizkuntza ez erabiltzeko esplizituki aipatu duten eragilea lehen-hizkuntzarena izan da, beraien ustez lehen-hizkuntza gaztelania izanez gero euskara gutxiago

erabiltzen baita. Gazteen arabera, beraz, etxean ikasten den hizkuntzak berebiziko eragina du hizkuntza-praktikan; eta datuetan antzeman daiteke gehiengoarena gaztelania dela, eta euskara eskolan ikasi dutela. Horren ildotik Odriozolak (2017) zera dio:

“Ez genuke asko harritu behar, ordea, jokabide horren aurrean; izan ere, hizkuntza minorizatu etniko baten hiztuna – batik bat, euskaldun berria – nekez izan liteke leiala euskararekiko, euskararen estatus soziopolitikoari darion balio sozial hutsala dela medio. (...) Gaur egun ez du funtzionatzen euskalduntasun etnikoak, ez dauka behar adineko kontzientzia eta koherentzia praktikorik, baina garai baten euskal identitate etniko horren atxikimendua nahikoa izan zitekeen erabilera bermatzeko.” (24 or.).

Gazteek lehen-hizkuntzarekin loturik akatsak egiteko beldurra ere aipatzen dute, euskaldunberriek batik bat. Sentimendu hori hezkuntzaren planteamenduaren ondorio litzateke, izan ere, zuzentasunari berebiziko garrantzia ematen zaio. Ideia hori Payak (2007) ere aipatu zuen, esanez zuzentasunean (ergatiboan esaterako) larregizko arreta jartzen dela, ez ordea adierazgarritasunean.

Beste eragozpen bat euskaraz aritzeko aukera eza litzateke. Ikasleek ideia hau horrelaxe plazaratu dute, eta azaldu dute eskolatik kanpo beraietako askok ez dutela euskaraz jarduteko aukerarik, adibide gisa familiaren esparrua aipatzen dute, non, familia kideek ez duten hizkuntza menperatzen. Horrekin lotuta ezinbestean aipatu behar da Azurmendiren (2017) aipua: “Egun osoa ingurumari erdaldunetan bizi garela aparte, alor askotan gure euskara erdarak joa dago edo erdarazko soila da” (55 or.). Horren harira etsipen-sentsazioa ere sumatu da gazteen ahotsetan, euskaraz egiteko berebiziko ahalegina egin behar dela onartu baitute batzuek. Gazteen arabera euskaraz jardutea posible da esparru anitzetan, baina horretarako ezinbestean ahalegin *extra* bat egin behar dela ere aitortzen dute, eta horren atzean nekadura edo gogaikarritasuna sumatu da. Hortaz, ondorio gisa Quintanillak (2014) ideia hau aipatzen du: “Gutxi dira, hautua egin eta hegemoniaren aurrean bestelako jarrera bat hartzen dutenak. Kalea espazio neutroago bezala kokatuta, kontzientzia bat daukatenak baino ez dira ezezagunari euskaraz zuzentzen” (111 or.).

Hurrengo oztopoa pertsonalagoa da eta adin-tarte honi hertsiki lotuta dago. Gazteek

eurek onartu dute nerabezaroa errebolta momentua dela, eta hortaz, araei uko egiteko unea ere badela eta arau horien artean hizkuntzarena ez da salbuespen bat. Beraien esanetan ikastetxean irakasleak uneoro dabilta beraien atzetik euskara erabiltzeko esanez, hori baita bertako arau eta nortasunaren baloreetariko bat. Jarrera hori nekagarria, gogaikarria eta inposatzailea egiten zaienez, errebolta gisara arau hori apurtu egiten dute eskolatik at daudenean, hau da: kalean edota lagunartean daudenean. Nerabeek duten errebolta edota arauak apurtzeko premia hori Quintanillak (2014) ere aipatzen du: “Edota araei muzin egiteko hautu bat dagoela” (99 or.).

Amaitzeko, gazteek azken eragilearen bidez irakasleak erabiltzen duen araubidea kritikatzeko du. Beste era batera esanda, gazteek azaltzen dute eskolako esparruan ezin dituztelako erabili gaztelaniaz dituzten errekursoak euskaraz hitz egiten dutenean eta hori beraientzako traba bat da. Izan ere, une konkretu batean hizkuntzak nahasten baldin badituzte irakasleek errieta egingo diete; eta horrek euskaraz hitz egiteko gogo kentzen duela ere aitortu du baten batek. Hizkuntzak nahasteko joera nabaria Amonarrizek (2007) ere aipatu zuen “Garai berriak, hizkera berriak” izeneko lanean.

Motibazioaren alorrari amaiera egiteko gogoeta txiki bat egingo da hizkuntzaren hautuaren inguruan. Argi dago euskara erabiltzeko arrazoiak aurkitzerik badagoela, baita ez erabiltzekoak ere itxura denez. Horrekin lotuta aipu hau aipatzeko beharrezana sumatu da: “Batziek euskararen aldeko hautua egina daukate, beste batziek oraindik ez eta beste batziek ez dute agian sekula egingo hautu hori” (Quintanilla, 2014, 114 or.).

4. Ikerketa galdera. Etorkizunari begira gazteek nola ikusten dute egoera?

Etorkizuneko egoerari dagokionez, ikasleek orokorrean aurreikuspen positiboa erakutsi dute, beraien ustez egoerak hobera egingo baitu. Hobekuntza horren arrazoi nagusi gisa hezkuntzaren funtzioa aipatzen dute, eskoletako zereginari esker gero eta jende gehiago baitago euskara ikasten.

Horrez gain, gazteei geroko planei erreparatzeko eskatu zitzaaien eta beraien seme-alabei zein hizkuntzatan hitz egingo zieten galdetu zitzaaien. Alor honetan ez zen adostasunik egon beraien artean, baina gehiengoak euskararen garrantzia azpimarratu zuen. Ideia berbera ikusi daiteke Quintanillaren (2014) ikerketan: “... etorkizunera bidaiatu eta

beraiek haurrekiko harremanean kokatzeko eskatzekotan (inguruko txikiekin izango duten harremanean irudikatuz) euskararen aldekotasuna esanguratsua da” (106 or.).

Ikasle batzuek hizkuntza babestu eta mantentzeko inplikazioa erakutsi dute; beste batzuek, ordea, zeregin hori beste batzuen esku uzten dute, eginkizun horrek beraiekin zerikusirik izango ez balu bezala. Kontuak kontu, sentipen bat partekatzen dute gazte hauek: ez dute euskara galtzerik nahi. Beraietako batzuek euskara asko erabiltzen dute eta beste batzuek gutxi; beraietako batzuek hizkuntza oso gustuko dute eta gainerakoek ez asko. Baina ikasle guztiengan sumatu da hizkuntzarekiko atxikimendua, txikia baldin bada ere badago, zeren ez dute hizkuntza desagertzerik nahi.

Laburbilduz, gazteek duten erabilera eskasa faktore anitzen ondorioa da. Horietako batzuk euskararen egoerarekin daude lotuta, esaterako konnotazio politikoarekin; beste batzuk arrazoi indibidualekin, esaterako hizkuntza gaitasuna, antsietatea edota taldearen onarpen beharra; eta gainerako arrazoiak gizartean hedatutako *arauen* ondorio dira, adinaren faktorea adibidez.

7.2 Lan honen mugak

Ikerketa guztietan gertatzen den moduan, honek ere baditu bere mugak. Nabarmenena laginaren tamaina da, izan ere, 48 kideko lagina nahiko txikia da berez eta argi dago laginak asko mugatzen duela ikerketa baten adierazgarritasuna.

Beste muga bat ikasleen jarrera da. Aztertutako ikasleak nerabe-nerabeak dira eta seguruena beraien bizipenak kontatzeko orduan ez dute erosotasun berdina sentituko lagunekin hizketan edota ezagutu berri duten batekin. Bestalde, ikasleek gaiarekiko duten interesa ere muga bat izan liteke, argi baitago une honetan beraien interesak beste arlo batzuekin loturik daudela.

Amaitzeko, ikerketaren neurri eta ezaugarriak izan dira muga: luzeera, sakonera eta datu kualitatiboak aztertzea. Gainera, motibazioarena gai zabala denez, ez da egiteko erraza izan ikerketa galderak zehaztea.

7.3 Etorkizunerako proposamenak

Azkenengo atal honetan, ikerlanaren sendotasunak, eta etorkizunera begira zabaltzen dituen aukerak eta proposamenak aurkeztuko dira.

Nahiz eta ikerketa honek bere mugak izan, horien aurrean hartu diren neurriek lana hobetzen lagundu dute. Laginaren tamaina ez da oso handia izan, baina ikerlana datu kualitatiboetan oinarritzen da, eta gainera lortu den informazioa oso aberatsa izan da. Nerabeen ezaugarri eta premietara egokitzeko ikerketa tresnak moldatu egin dira, jokoak eginez esaterako. Gainera, ikertzailearen adina aldeko faktorea izan da, gazteek hurbil sentitu dutelako eta horri esker lasai egon dira; hori izan da pertzepzioa behintzat. Hasiera batean gazteen interesa muga bat zen arren, jarduerak egin ahala asko inplikatu dira eta gogoz parte hartu dute beraien esperientziak eta pentsamoldeak konpartitzeko, bereziki focus-group eta elkarrizketetan. Ikerlanaren sakontasuna eta ezaugarriak erronka bat izan dira; baina hori ez da oztopo bat izan prozesua profesionaltasunez, esfortzu handiz eta inplikazioz aurrera eramateko.

Etorkizuneko ikerketa ildoek jarraiki interesgarria litzateke ikasleen harreman-sareak hurbiletik aztertzea, hau da: nola sortzen diren, lidergoaren indarra, eta abar. Izan ere, harreman sareek gazteen hizkuntza-praktika eta ohiturak asko baldintzatzen dituzte. Bestalde, zonalde euskaldunagoak aztertzea funtsezkoa da zonalde erdaldunek dituzten gabeziak deskubritzeko. Horrez gain, zeregin polita litzateke eskoletan EUSLE edo 11 egun euskaraz bezalako metodologiak frogatu eta bultzatzea, agian ikasleek erronken aurrean erantzun ezberdin bat emango bailukete.

Dena den etorkizunera begira proposamen batzuk planteatu dira. Hasieran, lortu nahi den helburua zein den azalduko da eta gero hori lortzeko hartu daitekeen neurri edo irtenbide egingarri bat aurkeztuko da.

Hiztunen eskubide berdintasuna eskuratzea. Gazteen ustez euskal hiztunek gaztelaniaz mintzo direnek baino indar gutxiago dute eta horrek beraien eskubideei eragiten die. Aurretik esan den moduan EAEn gaztelania eta euskara biak dira hizkuntza ofizialak eta hortaz, biztanleek nahi izanez gero gizarteko esparru anitzetan euskaraz egiteko eskubidea dute. Horren aurrean “Hemendik aurrera zer” dokumentuan Eusko

Jauraritzak (2017) hauxe dio: “Erdaldunak onartu behar du euskaldunak euskara normaltasunez erabiltzeko eskubide osoa duela, eta guztiz normaltzat hartu behar du milaka herritarrek euskara sentitzea lehen hizkuntzat edo hizkuntza kuttunentzat...” (14 or.).

- Konponbidea elebidun-kopurua handitzea denez, euskara ikasteko aukerak bikoiztu eta eskuragarriago bilakatu behar dira, herritarrek gutxienez hizkuntza ulertzeko gaitasuna eskuratu dezaten. Hori da hiztunen arteko eskubide berdintasuna lortzeko bide bakarra, eta horrela gaztelaniaz egin nahi duenak gaztelaniaz egingo du eta euskaraz nahi duenak ere aukera berbera izango du. Hori da, hain zuzen ere, Belarriprest moduko inizatibak sortzearen arrazoia.

Hizkuntzaren konnotazio negatiboak ezabatzea. Aurretik ikusi den moduan, konnotazio asko ditu euskarak eta horiek gizartean hedatu dira, erabileran inpaktua dutelarik. Horrek gazteengan erabiltzeko segurtasun eza sorrarazi lezake. Horren arrazoia hurrengoia izan liteke: “... mendeko identitate-zentzu baten sorkariak gara, horrek dakartzan autoestimua arazo eta gutxiespen sentimenduekin. Identitate-zentzu hauskorra darie euskaldun izateko gaurko baldintza soziolinguistikoei. Horregatik, gure euskalduntasuna ezkutatu nahi izatera iritsi daiteke gure autoestimurik eza” (Odrizola, 2017, 24 or.).

- Konponbidea euskarazko esperientzia gehiago eskaintzea da: komunikabideetan, Interneten, kirol-esparruan, ekitaldietan, eta abar. Horrek hiztunen autoestimua sendotu eta aldi berean erreferente euskaldunak hurbilduko dizkie. Eta hori garrantzitsua da, lan askotan berretsi baita, esaterako Quintanillarenean (2014).

Hizkuntzaren fokua aldatzea, ardatz nagusia zuzentasuna izan beharrean erabilgarritasuna izatea. Hori eskuratuz gero, euskarak hizkuntza akademiko edota irakasgai izateari utziko dio, eta komunikaziorako tresna praktikoa bilakatuko da.

- Bi konponbide egon litezke: batetik, euskal hiztegiaren aniztasunean zentratzea, kaleko hizkuntza landuz; eta bestetik, aurretik aipatu den moduan gizartean euskaraz jarduteko esparru gehiago ahalbidetzea (kirolean, ekitaldietan, eta abar). Horretarako EUSLE metodologia (Jauregi eta Suberbiola, 2017) bezalako

planteamenduak interesgarriak dira, bertan, talde bateko partaideak euskaraz egitera animatzen dira; denborarekin harreman-sareetan kutsu euskalduna egon dadin.

Errealitate eleanitza onartzea. Iruzkinetan ikusi da ikasle batzuek euskara erabiltzeko aukera ezaren presioa beraien gain hartzen dutela, eta nahiz eta hizkuntza bat erabiltzeko hautua erabaki pertsonalean oinarritu, gizarteak ere badu horretan bere egitekoa. Ideia horrekin loturik interesgarria izan litzateke aipu hau: “Gazteak ezin du ingurune erdaldunaren errudun sentitu, gaur egungo gizarteari erreparatuta, erdara ez baita desagertuko Euskal Herrian. Bideratu beharrekoa euskal gazteriaren diglosia da, euskara ager dadin erdararen gainetik, baina errealitate eleanitza ukatu gabe” (Paya, 2007, 15 or.).

- Irtenbidea hezkuntzaren alorretik hasten da. Gazteek azaldu dute irakasleek euskararen erabilera bultzatzen dutela, baina beste hizkuntzaren bat erabiliz gero liskarra nagusitzen dela. Euskarari arnaguneak ematea eta tokia egitea garrantzitsua da, baina horrek ez du gainerakoak erabiltzea delitu bihurtzen. Beraz, filosofia aldaketa bat egitea premiazkoa da hizkuntzen tratamendua moldatzeko.

8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- 138/1983 Dekretua, Uztailaren 11koa, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera araupetuz. 2017-11-04an hartuta hemendik: http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/contenidos/decreto/bopv198301433/eu_def/index.shtml
- Aiestaran, J., Cenoz, J. eta Gorter, D. (2013). Ikasleen hizkuntza-erabilera: gogoetak eta proposamenak. In B. Uranga (koord.). *Ikasleak hiztun. 2011ko ARRUE proiektua. Ikerketaren emaitza. Adituen iritzi-azalpenak* (169-172 orr.). Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-02-03an hartuta hemendik: http://www.soziolinguistika.eus/files/ikasleak_hiztun.pdf
- Aldasoro, A. E. (2002). *The Special Basque Language of the Law. A Linguistic and Terminological Investigation on Terminology of a Translated Legal Corpus* (Doktorego tesia). Euskal Herriko Unibertsitatea. 2018-03-07an hartuta hemendik: <https://tel.archives-ouvertes.fr/tel-00103284/document>
- Amonarriz, K. (2007). Garai berriak, hizkera berriak. *Larrun aldizkaria*, (106), 12-13.
- Amorrortu, E. eta Ortega, A. (2009). Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek semealabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?. *Euskera*, 54, 579-602. 2017-11-18an hartuta hemendik: <http://www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/74635.pdf>
- Amorrortu, E., Ortega, A., Idiazabal, I. eta Agirrebeitia, A. B. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2017-11-19an hartuta hemendik: https://www.ehu.es/documents/3120344/3130328/Euskarari+buruzko+jarrerak_2009.pdf
- Anaut, D. (2007). Zergatik egiten dute gazte euskaldun askok euskaraz?. *Larrun aldizkaria*, (106), 16-18.
- Aztiker. (2018). *Hezkuntza esparrua eta euskalduntzea EAEn (1983-2016). Euskararen erabilera Normaltzeko Legea eta 138/1983 Dekretua onartu ondorengo bilakaera eta beren eragina gazteen euskalduntzean*. 2017-11-04an hartuta hemendik: https://www.naiz.eus/media/asset_publics/resources/000/469/779/original/20180206-ehe-txostena.pdf
- Azurmendi, J. (2017). *Hizkuntza, nazioa, estatua*. Espainia: Elkar.
- Begoñazpi Ikastola (2018). Hezkuntza proiektua, nortasuna. 2017-12-05ean hartuta hemendik: <http://www.begonazpi.org/>
- Bueno, J. A. (1993). *La motivación en los alumnos de bajo rendimiento académico: desarrollo y programas de intervención* (doktorego tesia). Universidad Complutense, Madril.
- Capotorti, F. (1979). *Study on the Rights of Persons Belonging to Ethnic, Religious and Linguistic Minorities*. New York: United Nations.

- Cenoz, J. (2008). Achievements and challenges in bilingual and multilingual education in the Basque Country. In J. Cenoz eta D. Gorter (edk.), *Multilingualism and Minority Languages: Achievements and challenges in education*. *AILA Review*, 21, (13-30 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 2018-03-10ean hartuta hemendik: <https://benjamins.com/catalog/aila.21>
- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2008a). Multilingualism and Minority Languages: Achievements and challenges in education. *AILA Review*, 21. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 2018-03-10ean hartuta hemendik: <https://benjamins.com/catalog/aila.21>
- Cenoz, J. eta Gorter, D. (2008b). Applied Linguistics and the use of minority languages in education. In J. Cenoz eta D. Gorter (Eds.), *Multilingualism and Minority Languages: Achievements and challenges in education*. *AILA Review*, 21, (5-12 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 2018-03-10ean hartuta hemendik: <https://benjamins.com/catalog/aila.21>
- Cummins, J. (2008). Foreword. In J. Cenoz eta D. Gorter (edk.). *Multilingualism and Minority Languages: Achievements and challenges in education*. *AILA Review*, 21, (1-3 orr.). Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins Publishing Company. 2018-03-10ean hartuta hemendik: <https://benjamins.com/catalog/aila.21>
- Darmody, M. eta Daly, T. (2015). *Attitudes towards the Irish Language on the Island of Ireland*. Dublin: ESRI eta Foras Na Gaeilge. 2018-03-12an hartuta hemendik: https://www.esri.ie/pubs/BKMNEXT294_Vol-1.pdf
- Deleuze, G. eta Guattari, F. (1989). *Mil mesetas: capitalismo y esquizofrenia*. Paris: Minuit. 2018-04-08an hartuta hemendik: <https://filologiaunlp.files.wordpress.com/2011/08/mil-mesetas.pdf>
- Dörnyei, Z. eta Ushioda, E. (2009). *Motivation, language identity and the L2 self*. Bristol: Multilingual Matters.
- Egaña, A. (2005). *Euskararen B2 maila Derrigorrezko irakaskuntzaren amaieran (DBH-4)*. Lekua: ISEI-IVEI. 2018-04-20an hartuta hemendik: <http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/euskarab2-1.pdf>
- Erize, X. (2016). Euskal Herritarren portaera linguistikoaren motibo subjektiboaren bilakaera (1991-2016), eta aurrera begirako bideak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 99(2), 113-177. 2018-03-27an hartuta hemendik: http://www.soziolinguistika.eus/files/xabier_erize_bat99.pdf
- Esnaola, I. (1997). Gazte euskaldunen lagun arteko hizkera hemen eta orain. Zenbait ezaugarriren deskripzio kuantitatibo eta kualitatiboa. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (24), 64-75. 2017-12-20an hartuta hemendik: <http://www.berripapera.org/files/Imanol%20Esnaola.pdf>
- Etxenike, A. (2017). *Euskararen erabilpenari buruzko datuen aurkezpena: diagnostiko laburra* [Bideoa] 2018-03-04an hartuta hemendik: <http://www.eusko->

ikaskuntza.org/eu/proiektuak/gazteak-euskara-binomio-dinamikoa-erabilera-sustatzeko-gakoak/pr-37/

- Euskal Estatistika Erakundea, Eustat. (2005). *Irakaskuntzaren estatistika, emaitzen analisia 2003/2004*. 2018-01-04an hartuta hemendik: http://eu.eustat.eus/elementos/ele0003000/ti_Eskola-eta_unibertsitate-jarduera_2003-2004_Emaitzen_analisia_inf0003082_e.pdf
- Euskal Estatistika Erakundea, Eustat. (2017). *Euskal AEko biztanleria, lurralde-eremuen, sexuaren eta biztanleria-dentsitatearen arabera. 2017/01/01*. 2018-01-04an hartuta hemendik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/Euskal AEko biztanleria lurralde-eremuen sexuaren eta biztanleria-dentsitatearen arabera/tbl0011429_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/Euskal_AEko_biztanleria_lurralde-eremuen_sexuaren_eta_biztanleria-dentsitatearen_arabera/tbl0011429_e.html)
- Euskal Estatistika Erakundea, Eustat. (2018a). *Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria, lurralde historikoaren, adinaren, euskara-maila orokorraren eta sexuaren arabera. 2016*. 2018-03-01ean hartuta hemendik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014600/Euskal AEko 2 urteko eta gehiagoko biztanleria lurralde historikoaren adinaren euskara-maila orokorraren eta sexuaren arabera/tbl0014691_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0014600/Euskal_AEko_2_urteko_eta_gehiago-ko_biztanleria_lurralde_historikoaren_adinaren_euskara-maila_orokorraren_eta_sexuaren_arabera/tbl0014691_e.html)
- Euskal Estatistika Erakundea, Eustat. (2018b). *Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak, Euskal AEn, lurralde arloaren arabera, irakaskuntza-mailari eta hizkuntza ereduari jarraiki (2016-17)*. 2018-01-05ean hartuta hemendik: [http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000100/Unibertsitatetik kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak Euskal AEn lurralde arloaren arabera irakaskuntza-mailari eta hizkuntza ereduari jarraiki/tbl0000106_e.html](http://eu.eustat.eus/elementos/ele0000100/Unibertsitatetik_kanpoko_araubide_orokorreko_irakaskuntzetan_matrikulatutako_ikasleak_Euskal_AEn_lurralde_arloaren_arabera_irakaskuntza-mailari_eta_hizkuntza_ereduari_jarraiki/tbl0000106_e.html)
- Eusko Ikaskuntza. (2017). *Gazteak-euskara binomio dinamikoa: erabilera sustatzeko gakoak* (Dinamikaren txostena). 2017-12-02an hartuta hemendik: http://www.eusko-ikaskuntza.org/files/galeria/files/Euskara-gazteak_txostena170331.pdf
- Eusko Jaurlaritza. (2013). *V. Inkesta soziolinguistikoa 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-02-20an hartuta hemendik: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V.%20Inkesta.pdf
- Eusko Jaurlaritza. (2014). *V. Mapa Soziolinguistikoa 2011*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. 2018-01-27an hartuta hemendik: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/V%20MAPA-SOZIOLINGUISTIKOA%20baja_109_216.pdf
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. (2015). *Euskararen gaineko oinarritzako diskurtsoen lanketa (EGOD egitasmoa)*. 2018-04-14an hartuta hemendik: http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/7041/eu_2447/adju

[ntos/EGOD_Eranskinak.pdf](#)

- Eusko Jaurlaritzak. (2016). *Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo "dabillan harriari etzaika goroldiorik lotzen"*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-04-14an hartuta hemendik: http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/es_def/adjunto/s/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf
- Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoa. (2016). *VI inkesta soziolinguistikoa: euskararen eremu osoa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-03-17an hartuta hemendik: https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557
- Gipuzkoako Foru Aldundia. (2009). *Gazteen hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreen azterketa*. 2018-01-04an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/files/GazteenHizkuntzaErabileranEragitenDutenFaktoreenAzterketaI.pdf>
- Grasso, L. (2006). *Encuestas. Elementos para su diseño y análisis*. Córdoba: Encuentro Grupo Editor.
- Iurrebaso, I. (2012). Euskararen erabilera zertan den. Premiazko diagnostiko bat datuen argitan. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 84(3), 103-120. 2018-01-27an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/files/I%C3%B1aki%20Iurrebaso%20II.pdf>
- Jauregi, P. eta Suberbiola, P. (2017). *Aldahitz ikerketa. Eusle metodologia esperientzien emaitzak 2013-2016*. Espainia: Soziolinguistika klusterra.
- Jones, M. P. (2014). Welsh: The Welsh Language in Education in the UK, Regional Dossiers Series. *Mercator European Research Centre on Multilingualism and Language Learning*. 2018-03-12an hartuta hemendik: https://www.mercator-research.eu/fileadmin/mercator/documents/regional_dossiers/welsh_in_the_uk_2nd.pdf
- Juaristi, P. (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak: teoria eta adibideak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2017-12-01ean hartuta hemendik: <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/15493/USWEB035407.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Kitzinger J. (1994). The methodology of focus groups: the importance of interaction between research participants. *Sociology of Health*, 16(1), 103-21.
- Ley Organica 3/1979, de 18 de diciembre, de Estatuto de Autonomia para el Pais Vasco. BOE 306 zenbakia, 22/12/1979. 2017-11-04an hartuta hemendik: <https://www.boe.es/boe/dias/1979/12/22/pdfs/A29357-29363.pdf>
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Ley Básica de Normalización del Uso del Euskera. Comunidad Autónoma del País Vasco. BOPV 160 zenbakia, 16/12/1982. 2017-

11-16an hartuta hemendik: <https://www.boe.es/buscar/pdf/2012/BOE-A-2012-5539-consolidado.pdf>

Mac Gréil, M. eta Rhatigan, F. (2009). *The Irish Language and the Irish People: Report on the Attitudes Towards, Competence in and Use of the Irish Language in the Republic of Ireland in 2007-'08*. Irlanda: National University of Ireland, Maynooth. 2018-03-12an hartuta hemendik: <https://www.coimisineir.ie/userfiles/files/PDFFile%2C15645%2Cen.pdf>

Martínez de Luna, I. (2001). Euskal Herriko gaztetxoek hizkuntza egoera aztertzeke eredu orokorraren proposamena. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, (40), 47-68. 2018-01-29an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/node/892>

Mendebaldea BHI. (2018). Proiektuak, euskararen normalkuntza. 2018-01-05ean hartuta hemendik: <http://www.mendebaldea.hezkuntza.net/web/guest>

Moseley, C. (ed.). (2010). *Atlas of the World's Languages in Danger*. Paris: UNESCO Publishing. Online version. 2017-11-20an hartuta hemendik: <http://www.unesco.org/culture/en/endangeredlanguages/atlas>

Odriozola, J. M. (2017). *Nora goaz euskalduntasun honekin?*. Donostia: Elkar argitaletxea.

Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J., Urla, J. eta Uranga, B. (2013). Hiztun berrien hizkuntza-identitatea: "nolakoa euskalduna naiz?". *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 87-88(2-3), 151-170. 2017-11-05ean hartuta hemendik: <http://www.berripapera.org/files/Ane%20Ortega%20et%20al.pdf>

Paya, X. (2007). Zazpi barako atorra. *Larrun aldizkaria*, (106), 14-15.

Price, A. R. eta Tamburelli, M. (2016). Minority language abandonment in Welsh-medium educated L2 male adolescents: classroom, not chatroom. *Language, Culture and Curriculum*, 29(2), 189-206.

Quintanilla, M. (2014). Gazteak, hizkuntza eta hegemonia. Lekuan lekuko ikerketa antropologikoa Sorraluzen. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, 92-93(3-4), 87-120. 2017-12-18an hartuta hemendik: <http://www.berripapera.org/files/Maite%20Quintanilla.pdf>

Sánchez, J.M. (1987). *Un futuro para nuestro pasado: claves de la recuperación del euskara y teoría social de las lenguas*. Donostia: Elkar.

Soziolinguistika Klusterra. (2017). *Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa*. Euskal herria, 2016. 2018-02-04an hartuta hemendik: <http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu 1.pdf>

Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI eta Eusko Jaurlaritza. (2017). *ARRUE ikerketa: EAEko ikasleen euskararen erabilera eskola-giroan, 2011-2015*. 2018-02-12an hartuta hemendik: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/dih4/eu_2091/adjuntos/Arrue_2_011_2015_Txosten_teknikoa_e.pdf

The Welsh Government eta The Welsh Language Commissioner. (2015). *Welsh language use in Wales, 2013-15*. Cardiff: National Statistics. 2018-01-19an hartuta hemendik: <http://www.comisiynyddygygymraeg.cymru/English/Publications%20List/Adroddiad%20-%20Y%20defnydd%20o%27r%20Gymraeg%20yng%20Nghymru,%202013-15%20-%20Saesneg.pdf>

van Benthem, J. (2000). Comments on A. Rubinstein's "Economics and Language". In A. Rubinstein (edk.), *Economics and language*. Cambridge: Cambridge University Press.

Zabaleta, O. (2007). Aisian aixe mintza. *Larrun aldizkaria*, (106), 11-12. 2018-01-02an hartuta hemendik: <http://www.argia.eus/astekaria/docs/2074/azala/larrun-106x.pdf>

Zalbide, M. (1996). Eskola hiztun bila. *Hik Hasi*, 9, 12-15.

Zarraga, A. (2010). Soziolinguistikari sarrera (21-80 orr). In A. Zarraga, J. B. Coyos, J.M. Hernández, L. Joly, I. Larrea, L.V. Martínez, B. Uranga eta P. Bilbao (edk.). *Soziolinguistika eskuliburua*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. 2018-01-14an hartuta hemendik: http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/ikerketa_soziolinguistikoak/eu_def/adjuntos/SOZIOLINGUISTIKA_ESKULIBURUA-azkena.pdf

9. ERANSKINAK

Eranskinak izeneko atal honetan hainbat alor gehitu dira. Alde batetik, erabilitako tresna metodologikoen (galdetegi, focus-group eta elkarrizketa sakonen) ereduak txertatu dira, zer egin den ondo ikusteko. Bestetik, gurasoei banandutako baimenaren ereduak ere txertatu da, izan ere, guztiz premiazkoa izan da ikerketa burutzeko. Eta, azkenik, egindako transkripzio batzuk jarri dira; guztiak ez jartzea erabaki da, izan ere, guztira lau focus-group eta zortzi elkarrizketa egin eta transkribatu dira, eta lana gehiegi ez luzatzearen horietako bakoitzetik adibide bana jartzea erabaki da.

1. GALDETEGIAREN EREDUA

1. NIRE DATUAK				
Izena				
Adina				
Generoa	Emakumea		Gizonezkoa	
Eskola				
Hizkuntza-eredua Lehen Hezkuntzan	A	B	D	Besteak
Hizkuntza-eredua Bigarren Hezkuntzan	A	B	D	Besteak
Zure jaioterria	Euskal Herria		Euskal Herritik kanpo	
Amaren jaioterria	Euskal Herria		Euskal Herritik kanpo	
Aitaren jaioterria	Euskal Herria		Euskal Herritik kanpo	
Zure lehen-hizkuntza	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Amaren lehen-hizkuntza	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Aitaren lehen-hizkuntza	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak

2. HITZ EGITEKO GAITASUN ERLATIBOA			
Zein hizkuntzatan duzu hitz egiteko gaitasun handiagoa? Aukeratu erantzun bakarra.			
Euskaraz erraztasun handiagoa	Euskaraz eta gaztelaniaz erraztasun berdina	Gaztelaniaz erraztasun handiagoa	Besteak

3. HIZKUNTZEKIKO ATXIKIMENDUA

Gustuko al duzu hizkuntza hau? Iara bakoitzean aukeratu aukera bakarra.

Euskara	Bat ere ez	Gutxi	Normala	Nahikoa	Asko
Gaztelania	Bat ere ez	Gutxi	Normala	Nahikoa	Asko
Ingelera	Bat ere ez	Gutxi	Normala	Nahikoa	Asko

4. HIZKUNTZA ZAILTASUNAK

Zelakoa da hizkuntza hau? Iara bakoitzean aukeratu aukera bakarra.

Euskara	Oso zaila	Zaila	Normala	Erraza	Oso erraza
Gaztelania	Oso zaila	Zaila	Normala	Erraza	Oso erraza
Ingelera	Oso zaila	Zaila	Normala	Erraza	Oso erraza

5. ERABILERA - FAMILIAN

Amarekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Aitarekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Anai-arrebekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Denok batera zaudetenean	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Lehengusu- lehengusinekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak

6. ERABILERA - LAGUNARTEAN				
Kuadrillan	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Zuen lagun-minekin zein hizkuntza erabiltzen duzue?	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Klaseko norbait kalean topatuz gero	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Internet bidez (Whatsapp...)	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zu baino ikasle txikiagoak direnekin?	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Zein hizkuntzatan hitz egiten duzu zu baino nagusiagoak direnekin?	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak

7. ERABILERA - ESKOLAN				
Gela barruan: ikaskideekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Gela barruan: irakaslearekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Gelatik kanpo: ikaskideekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Gelatik kanpo: irakaslearekin	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak

8. ERABILERA – ESKOLAZ KANPOKO EKINTZETAN	
Ekintza:	Erabiltzen den hizkuntza:
Ekintza:	Erabiltzen den hizkuntza:
Ekintza:	Erabiltzen den hizkuntza:

9. ERABILERA - HEDABIDEETAN				
Telebista	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Irratia	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Interneten komunikatzeko (Whatsapp, Instagram...)	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak
Informazioa bilatzeko	Euskara	Gaztelania	Euskara eta gaztelania	Besteak

10. HIZKUNTZAREN KONNOTAZIOAK	
Zertarako balio du euskarak?	
Garrantzitsua al da euskara? Zergatik?	
Zerk motibatzen zaitu euskaraz hitz egitera?	
Euskara hizkuntza prestigiotsua da? Zergatik bai edo ez?	

2. FOCUS-GROUP EREDUA

1. TALDEA KOKATZEN

1.1. Neure aurkezpena.

Kaixo, nire izena Libe da, 23 urte ditut eta Bilbokoa naiz. Iaz magisteritzako gradua amaitu nuen, Lehen Hezkuntzako hain zuzen ere. Graduak azkenen urtean ingelerako espezialitatea egin nuen eta, hizkuntzen arloa asko gustatu zitzaidanez, horren inguruko Masterra egitea erabaki nuen. Aurten Donostian bizi naiz, eta esan bezala masterra egiten nabil, urtebetekoa da eta, agian jakingo duzuen moduan, masterra amaitzeko proiektu bat aurkeztu behar da epaimahai baten aurrean. Hori dela eta nago hemen ni zuekin, nire proiekturako datu batzuk eskuratzeko asmoz. Nire gaia Euskararekin dago lotuta, zehatzago esanda gazteok euskararen inguruan dituzuen motibazioarekin edo motibazio ezarekin lotuta. Jakin ezazue egingo ditugun ariketa guztiak anonimoak direla, hau da, ez dira zuen izen edo datu pertsonalak inon ere agertuko.

1.2. Elkar ezagutzen.

Gaurkoan eztabaida edo debate bat egingo dugu, baina horrekin hasi baino lehen, zuek pixka bat ezagutzea gustatuko litzaidake. Horretarako jolas moduko bat egingo dugu. Ikusten duzuen moduan lau pilota ezberdin ditut, nik horietako bat botako dizuet eta zuek kolorearen arabera erantzun bat eman beharko didazue. Gorria **jaso z gero** familiari buruzko zerbait kontatuko diguzue (amaren izena, zenbat zareten, udan nora joaten zareten...); urdina zuen hobbyei buruzkoa izango da (atletismoa gustuko dut, irakurtzea...); berdea, aldiz, lagunaren ingurukoa (zuen lagunik onena, zenbat zareten kuadrillan, asteburuetan zer egiten duzuen...); eta horia musikari buruzkoa izango da (abeslari gogokoena, abesti gorrotatua...). *Jokoa egingo da.* Joko honen ostean, zuen inguruan zerbait ikasi dudalakoan nago.

Orain, galderekin hasi baino lehen, gauza bat eskatuko dizuet. Banaka pentsa ezazue ikasturte honetan bizi izan duzuen esperientzia edo oroitzapen positibo batean, lagunekin, aiton-amonekin, bakarrik, nahi duzuenarekin; ez duzue esango, soilik pentsa ezazue zuen buruan. *Denbora eman.* Denok pentsatu duzue momenturen batean? Oso ondo, orain gogora ezazue, momentu horretan zein hizkuntzatan zeundeten hitz egiten? Altxatu eskua une hori euskaraz bizi zenutenok. Beraz, gehiengoak....

1.3. Tailerraren azalpena.

Tailer honen bidez zuen iritziak entzun nahi ditut, hori da nahi dudana; gainera, gai honen inguruan ez dago iritzi egoki edo desegokirik, denok ez ditugulako gauza berberak gustuko eta denok ez dugulako esperientzia berbera izan, besteak beste. Gaurko gaia euskara izango da, agian jakingo duzue, gaur egun gizarte mailan euskararen inguruko kezka dago. Hori dela eta, nik zuen ikuspegi eta esperientzia ezagutu nahiko nuke, izan ere, sarri landu izan da gai hau ume txikiagoekin baina nik uste dut zuek, gazteok, iritzi interesgarriak izan ditzakezuela gai honen inguruan, horregatik egin dut lan hau. Nire lanaren inguruan zalantzaren bat baldin baduzue, galdetzeko aukera duzue orain. Zerbait galdetu nahi didazue? Beraz, hasteko prest zaudete?

1.4. Euskara deskribatzen.

Tailerrarekin hasteko, ariketa simple bat egingo dugu. Nire galdera da, zer da euskara? Hizkuntza bat da, ezta? Baina zer motatako hizkuntza da? Zergatik uste duzue hori?

- Hizkuntza gutxitua
- Ofiziala
- “Zaharra”
- ...

Nolako hizkuntza da euskara? Hau da, badakizue mundu globalizatuan bizi garela, eta beraz ingelera edo gaztelaniarekin alderatu ez gero nolako hizkuntza dela esango zenukete?

Zuen ustez euskara hizkuntza txikia da? Mugak al ditu zuen ustez? Horrela bada, zein alorretan?

Zuen ustez euskaraz ze balore ditu bere gain?

1.5. Euskaldunak bai edo ez?

Orain arbelean bi hitz jarriko ditut, euskara eta gaztelania, horietako bakoitza arbelaren izkina batean eta zuek binaka pentsatu beharko duzue non kokatuko zenuketen zuen klasea (batetik bosterako zenbakiak aukeran); hau da, uste baldin baduzue talde euskalduna zaretela, euskararen alboan kokatuko duzue taldea bestela gaztelania hitzetik gertuago. *Eman minutu bat pentsatzeko eta gero hitzarmen batetara heldu.*

2. GAZTEAK ETA EUSKARA

2.1. Gustuko al duzue euskara? Zergatik?

Euskara hizkuntza egunero entzuten duzue, gutxienez eskolan. Baina orain pentsa ezazue momentu batez, gustuko al duzue hizkuntza hau? Zergatik?

Euskaraz hitz egiten duzuen urduri jartzen al zarete? Edo euskaraz hitz egiten duzuen ez duzue inolako antsietaterik sentitzen?

2.2. Euskara eta eskola.

Gaur egun, D eredu gero eta ohikoagoa da Euskal Herrian, eta eredu horretan ordu gehienak euskaraz egiten dira, ondo dakizuenez. Baina kontua da, zuen ustez euskara eta beste hizkuntzek espazio berbera izan beharko lukete? Edo gomendagarria al da euskarak beste hizkuntzek baino presentzia handiagoa izatea eskolan, horrela ikasleek ikasi eta erabili dezaten?

2.3. Hurbiltasuna.

Zuek euskara hurbil edo urrun sentitzen al duzue? Hau da, zuetariko batzuk eskolako hizkuntza gisa sentituko duzue eta kasu horretan zuen bizitzan urrun sentituko duzue hizkuntza hau, baina hori ez da denon egoera izango agian. Edo bai?

Bestetik, jakingo duzuen moduan, Euskal Herrian euskara erabiltzen den arren, euskara mota ezberdinak erabiltzen dira, euskalki izenekoak. Zuen ustez, euskalkiak edo

euskara batua dira naturalagoak edo kalean erabiltzeko praktikoagoak?

Bestetik, jakingo duzuen moduan Euskal Herriko leku batzuetan, euskara da biztanle guztiek (gazteek ere) egunero erabiltzen duten hizkuntza: kalean, lagunekin, dendetan eta abar. Gustatuko litzaizueke zuen inguruan edo auzoan ere hori gertatzea?

2.4. Euskara eta gazteak.

Zuen ustez, zein da gazteek kalean euskara ez erabiltzearen arrazoa? (eta gaztelania aukeratzearena). Zergatik?

2.5. Erabilera.

Euskara gure gizarteko hizkuntza ofizial bat da eta beraz eremu ezberdinetan dago presente, baina nik gaur ulertu nahiko nuke gazteon bizitzan euskara zein eremutan erabiltzen den.

Kontua da, noiz eta zergatik erabiltzen duzue euskara? (erabiltzen duzuenean). *Komentatu denon artean.* Esaterako, batzuetan nahiz eta hemen euskararik ez egin, oporretan Erromara joan eta euskara erabiltzen dute batzuek eta Athletic-eko (Begoñazpin) / Alaves-eko (Armentian) kamiseta harro janzten dute, zergatik ote da hori? Hizkuntza sekretua delako eta inork ezagutzen ez duelako edo euskaldun sentitzen direlako?

Eta bestetik, noiz eta zergatik ez duzue euskara erabiltzen? (erabiltzen ez duzuenean). *Komentatu denon artean.*

Azkenik, noizbait erabiltzen al duzue euskara beste hizkuntza batzuekin nahasian? Esaterako “*ayer hice la ariketa de matematica*” bezalako esaldiak erabiltzen ahal dituzue? Nola sentitzen zarete horrela hitz egiten duzuenean? Eta norbaitek esaten ahal dizue zerbait hizkuntzak nahasteagatik?

2.6. Zein faktore dira erabileran eragina dutenak?

Lehenengo tailerrean komentatu dugun moduan, gauza bat da euskara jakitea eta beste bat euskara erabiltzea, izan ere, ehunekoak oso ezberdinak dira. Baina, kontua da, zuen ustez zeintzuk dira euskararen erabileran eragina duten faktoreak? Komentatu.

(Hauek ez esan, soilik ideiarik ateratzen ez bada eta nolabait laguntzeko)

- *Eskolaz kanpoko ekintzetan erabiltzen den hizkuntza.*
- *Ama-hizkuntza.*
- *Eskolako hizkuntz-eredua.*
- *Komunikabide edo kultur-kontsumoa.*
- *Hizkuntzaren irudia.*
- *Motibazioa.*

2.7. Hizkuntza eta identitatea.

Zuen ustez, euskararekin identifikatzen zara? Zergatik bai? Zergatik ez? Hau da, eskolako hizkuntza baino zerbait gehiago al da zuentzako euskara?

Bestetik, euskal kultura zer da zuentzako? Esaterako euskal musikarekin identifikatuta

sentitzen al zarete? Zein abeslari, abesti edo talderekin?

Adibidez, zuen ereduak diren pertsonak (kirolariak, abeslariak eta abar) euskaldunak / Euskal Herrikoak dira? Eta txikitan zenituztenak Euskal Herrikoak ziren?

2.8. Euskaldun sentitzen al zarete? Zergatik?

Zein motatako euskalduna zara?

Beraiek ezer ez badute esaten soilik esan: Kontua da, sarri gizartean sailkapen bat egiten dela euskaldun izan edo ez izatearekin. Euskara dakiten pertsonak hiru talde ezberdinetan sailkatu ahal dira, identitateari dagokionez: euskalduna (euskara erabiltzen duen hiztuna), euskaldun zaharra (euskara bere ama-hizkuntza duena, natiboa) edo euskaldunberria (euskara beranduago ikasi duen hiztuna). Zuek sailkapen horretan non kokatuko zenukete zuen burua? Zergatik?

2.9. Motibazioa

Zuk euskaraz egiten duzuenean zergatik egiten duzue euskaraz? Eta derrigorrezkoa ez denean (eskolatik kanpo) zergatik erabiltzen duzue euskara?

2.10. Eskerrak eman

Hau izan da eztabaida eta beraz nire tailer honi amaiera eman nahi diot. Eskerrak eman nahi dizkizuet zuen parte-hartzeagatik eta laguntzagatik, izan ere, orain errealitatea pixka bat hobeto ulertzen dudala uste dut.

3. ELKARRIZKETA SAKONEN EREDUA

1. Aurkezpena

Kaixo, aurreko batean azaldu nizuen moduan, gaurkoan elkarrizketa bat egingo dugu galdetegi eta tailerrei jarraiki. Gaurko elkarrizketaren helburua zure esperientzia hurbilagotik ezagutzea da, hori dela eta, galdera batzuk egingo dizkizut alor ezberdinen inguruan; dena dela, momenturen batean gai horri lotutako beste zerbait komentatu nahi baldin baduzu, askatasun osoz egin dezakezu.

Elkarrizketan zehar alor ezberdinak aztertuko ditugu: zure hiria, euskararen erabilera, hizkuntzarekiko sentipenak, identitatea, motibazioa eta hizkuntza etorkizunean. Hasteko prest?

2. Gaztearen datuak.

Gaian murgildu baino lehen zure datu pertsonalei buruzko galdera batzuk egingo dizkizut, testuingurua hobeto ulertzeko asmoz.

- Zein da zure izena?
- Zenbat urte dituzu?
- Zein da zure ikastetxearen izena? Zein hizkuntza-eredutan ikasi zenuen Lehen Hezkuntzan? Eta Bigarren Hezkuntzan?
- Zein da zure lehen-hizkuntza?
- Etxean norekin bizi zara?
- Eta beraietako bakoitzaren ama-hizkuntza zein da? (aitarena, amarena...)
- Beraietako bakoitzarekin zaudenean zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean? (aitarekin...)
- Denok batera etxean zaudetenean, zein hizkuntza erabiltzen duzue?
- Zure etxean euskarari garrantzirik ematen zaiola uste al duzu? Zertarako? Zergatik?

Euskara, nolakoa da?

- Nolako hizkuntza da euskara? Hau da, badakizue mundu globalizatuan bizi garela, eta beraz ingelera edo gaztelaniarekin alderatu ez gero nolako hizkuntza dela esango zenukete?
- Zuen ustez euskara hizkuntza txikia da? Mugak al ditu zuen ustez? Horrela bada, zein alorretan?
- Zuen ustez euskaraz ze balore ditu bere gain?

3. Zure hiria

4.

- Zein hiritan bizi zara?
- Zein auzotan? Auzo euskalduna edo erdalduna dela esango zenuke?
- Zure ustez, zure hirian euskarari ematen al zaio garrantzirik?
- Ba al dago euskara erabili eta euskaraz bizitzeko aukerarik? (dendetan, ospitalean...)

4. Zure eskola

- Eskoletan (D ereduan) hainbeste euskara erabiltzea positiboa al da? *Itxaron eta horren arabera esan edo ez esan: Edo inposaketa bezala interpretatu daiteke?*
- Euskara hainbeste erabiltzeak beste hizkuntzak (gaztelania, errusiera...) gutxietsi egiten ditu? *Ulertzen ez badute soilik galdetu hau: Edo euskara erabiltzeak ez die garrantzirik kentzen beste hizkuntzei?*
- Jaso duzuen eskola ereduari esker eleanitza zara, 3 hizkuntza dakizkizu eta. Hizkuntza horiek beraien garrantziaren arabera sailkatu beharko bazenitu zein ordenatan antolatuko zenituzke? Garrantzitsuenetik hasita.

5. Erabilera

- Non erabiltzen duzu euskara? Zergatik? (eskolan, akademian...)
- Noiz erabiltzen duzu euskara? Zergatik? (klasea barruan, jolastokian...)
- Norekin erabiltzen duzu euskara? Zergatik? (umeekin, nagusiagoekin, lagunekin, familiarekin...)
- Inoiz gertatu zaizu euskaraz hitz egitea eta norbaitek hizkuntza gutxiestea? Esaterako, denda batera sartu eta saltzaileari euskaraz hitz egitea, eta berak modu txarrean esatea “a mí no me hables en ese idioma” edo horrelakorik.
- Sentitu ahal zara noizbait harro euskara erabiltzeaz?
- Noizbait nahasten ahal dituzu hizkuntzak? Esaterako “ayer hice la ariketa de matematica” bezalako esaldiak erabiltzen al dituzu? Zein unetan edo norekin nahasten dituzu hizkuntzak gehienbat?

5.1. Aisialdian

- Pentsa ezazu zure hobbyetan, zein hizkuntza erabiltzen duzu?
- Eskolaz kanpoko ekintzak zein hizkuntzatan egiten dituzu? Hizkuntza horretan egin dituzu DBH osoan zehar? Lehen Hezkuntzan eskolaz kanpoko ekintzetan euskara gehiago erabiltzen zenuen?
- Ekintza asko euskaraz egiten dira eskolan, baina zure ustez entrenatzaileek beti erabiltzen al dute euskara?

5.2. Komunikabideetan.

- Zein da zure telebistako programa gogokoena? Zein kanaletan eta zein hizkuntzatan ikusten duzu?
- Telebistarik ikusten al duzu euskaraz?
- Irratia entzuten al duzu? Zein irratsaio? Zein hizkuntzatan?
- Interneten lagunekin (Whatsapp edo Instagram-en esaterako) zein hizkuntza erabiltzen duzu normalean?
- Interneten serie edo pelikulak ikusten dituzunean zein hizkuntzatan ikusten dituzu?
- Euskarak ba al du presentziarik sare-sozialetan? Irakurri al daiteke esaldirik euskaraz?
- Orain, demagun eskolarako lan bat egiten zabiltzala eta pertsona ospetsu bati buruzko informazioa bilatu behar duzula Interneten, zein hizkuntzatan egingo zenuke bilaketa? Zergatik?

5.3. Lagunartean

- Lagunartean (gazteen artean) zein hizkuntza dago onartuen, zure ustez?
- Ba al dago euskaldun sutsurik edo euskara bultzatzen duen norbait zure lagun-taldean?
- Norbaitekin konkretuki egiten al duzu euskararik?
- Zure ustez, zein da gazteek gaztelania erabiltzearen arrazoi nagusia? (euskara ordeztu)
- Zure ustez, gaztelania nolabait euskara baino hizkuntza “guay-agoa” da?

6. Hizkuntza sentipenak

- Sentitzen al duzu obligaziorik euskaraz egiteko? Derrigorrezkoa al da? Zergatik?
- Gustuko al duzu hizkuntza hau? Zergatik?
- Euskal Herrian euskararen eguna ospatzen da, zure ustez baliagarria al da hizkuntza sustatzeko edo kontzientziazteko?
- Euskaraz hitz egiten duzuen urduri jartzen al zarete? Edo euskaraz hitz egiten duzuen ez duzue inolako antsietaterik sentitzen?

7. Identitatea

- Euskararekin identifikatzen zara?
- Euskal kultura sentitzen al duzu zeure?
- Esaterako, euskal musika gustuko al duzu? Zein da zure abeslari edo talde gogokoena? Joaten al zara kontzertuetara? Eta talde euskaldunak ikustera zoazenean euskara erabiltzen al duzu?
- Zein motatako euskalduna zara? (euskaldun zaharra, euskaldunberria...)
- Adibidez, zuen ereduak diren pertsonak (kirolariak, abeslariak eta abar) euskaldunak / Euskal Herrikoak dira? Eta txikitan zenituztenak Euskal Herrikoak ziren?

7.1. Hizkuntza eta politika

Zure ustez, euskara hizkuntza pentsamendu politiko edo ideologiko konkretu batzuekin lotzen da? (Esaterako, euskaldun izatea eta independentista izatea, batera al datoz?).

8. Motibazioa

Zuk euskaraz egiten duzuen urduri, zergatik egiten duzue euskaraz? Eta derrigorrezkoa ez denean (eskolatik kanpo), zergatik erabiltzen duzue euskara?

9. Etorkizuna.

- Aukeratu ahal izango bazenu, zein hizkuntzatan gustatuko litzaizuke lan egitea etorkizunean?

- Zure ustez, etorkizunean euskara gehiago edo gutxiago erabiliko duzu zuk? Zergatik?
- Familia bat duzunean zure umeei zein hizkuntzatan hitz egingo diezu? Zergatik?

10. Eskerrak eman.

Honekin amaitu dugu elkarrizketa. Eskerrik asko zure arreta, parte-hartze eta gogoarengatik. Mila esker benetan. Zure erantzun eta laguntza izugarri baliagarria eta premiazkoa izan da nire proiekturako.

4. GURASOEN BAIMENA

Guraso agurgarriok,

Nire izena Libe Alvarez Iruguenpagate da. “Eleaniztasuna eta Hezkuntza” izeneko masterreko ikaslea naiz eta nire Master Amaierako Lana egiten nabil aurten, nire lana euskara eta gazteen inguruko ikerketa batean oinarritzen delarik. Paper honetan baimena eskatzen dizuet zuen seme-alabekin lan egiteko, ikasleek galdetegi batzuk egingo dituzte eta beraietako batzuk horren ostean tailer batzuk eta elkarrizketak ere egingo dituzte. Komentatu nahi dizuet nire ikerketako datu denak guztiz konfidentzialak izango direla eta zuen seme-alaben izen edo datuak pertsonalak ez direla inon ere agertuko. Bestetik, nire lana burutzeko zuen seme-alaben parte-hartzea ezinbestekoa dut eta adin gutxikoak direnez gero baimena eskatzen dizuet.

Eskerrik asko zuen arretagatik, Libe.

Nik _____ baimena ematen diot _____ -ri proiektu honetan parte-hartzeko:

Data:

Sinadura:

Estimados padres y madres,

Mi nombre es Libe Álvarez Iruguenpagate. Soy alumna del master “Multilingüismo y Educación” y en este momento estoy realizando mi tesis, la cual está basada en una investigación sobre el euskera y los jóvenes. Mediante este papel os quiero pedir permiso para trabajar con vuestros hijos/hijas, ya que tengo preparados unos cuestionarios para ellos, y después con algunos de ellos realizaría talleres y entrevistas. Me gustaría comentaros que todos y cada uno de los datos de esta investigación serán confidenciales, por lo tanto, los nombre y datos personales de vuestros hijos/hijas no se mostrarán en ningún momento. Por otro lado, me gustaría haceros saber que para realizar este trabajo es fundamental la participación de vuestros hijos/hijas, y dado que son menores de edad es necesario vuestro permiso.

Muchas gracias por vuestra atención, Libe.

Yo _____ doy permiso a _____ para participar en este proyecto.

Fecha:

Firma:

5. FOCUS-GROUP TRANSKRIPZIOA (2.Focus-group)

Neure aurkezpena

LIBE: Kaixo, nire izena Libe badakizuen moduan, eta 23 urte ditut eta Bilbon bizi naiz. Magisteritza ikasi nuen, Lehen Hezkuntza eta azken urtean ingelerako minorra egin nuen ingeleseko irakasle izateko etorkizunean. Aurten Donostiara bizi naiz eta master bat egiten nabil. Nire masterra urtebetekoa da eta amaitzeko proiektu bat egiten da beti, eta nirea da euskarari buruzkoa da aurrekoan aipatu nizuen moduan. Zuen datuak anonimoak izango dira, eta beraz lana aurkezterakoan zuen datuak pertsonak ez dira inon agertuko. Lan hau amaitutakoan tribunal batean aurrean aurkeztu beharko dut eta horretarako zuen parte-hartzea eskertzen dizuet, guztiz beharrezkoa baita.

Elkar ezagutzen

LIBE: Eztabaidarekin hasi aurretik, joko bat egingo dugu. Joko honen bidez pixka bat gehiago ezagutu nahi zaituztet. Egingo duguna memoria joko bat da eta aurreko taldearekin primeran irten da egia esan. Nik orain, zuetako bakoitzari kolore bat esango diot eta kolorearen arabera zuek erantzun bat edo bestea emango didazue. “Urdina” esanez gero zuen kolore gogokoena esango didazue, “gorria” esanez gero kirol gogokoena, “arrosa” esanez gero musika talde edo abeslari gogokoena, eta azkenik, “berdea” esanez gero zuen serie gogokoena. Prest?

DENAK: Bai bai.

LIBE: 15, urdina.

15: Urdina.

LIBE: Bale ondo. Orain, 11, arrosa.

11: Rap.

LIBE: Orain, 10 berdea.

10: Stranger Things.

LIBE: Primeran. 13 gorria.

13: Futbola.

LIBE: Primeran. 16 urdina.

16: Larrosa.

LIBE: Orain ea 12 berdea.

12: Narcos.

LIBE: Jarraian 9 arrosa.

9: Imagine dragons, ezta?

LIBE: Bai oso ondo. 14 gorria.

14: Dantza.

LIBE: Bale, primeran, oso ondo egin duzue. Orain jokoarekin amaitu dugu eta nahi dot momentu batez banaka pentsatzea, irailetik une honetararte bizi izan duzuen momentu on batean. Esperientzia hori izan daiteke aitite-amonekin, lagunekin, ikaskideekin, hemendik kanpo beste lekuren batean, bakarrik, nahi duzuenarekin izan daiteke; adibidez, ikusi nuen lehengusinarekin pelikula bat zineman eta oso ondo pasatu nuen. Edozer izan daiteke.

LIBE: Listo? Denok?

DENAK: Bai bai.

LIBE: Primeran, orain gogoratzen zarete momentu horretan zein hizkuntzatan zeundeten hitz egiten? Esaterako, euskaraz, gaztelaniaz, ingeleraz, frantsesez edo ez dakit. Gogoratzen zarete?

14: Gaztelera.

15: Gaztelera.

9: Gaztelera.

12: Gaztelera.

16: Gaztelera.

11: Gaztelera.

10: Gaztelera.

13: Gaztelera.

LIBE: Orduan denok zeundeten erderaz hitz egiten, bale.

Tailerraren azalpena.

LIBE: Oso ondo, orain tailerrarekin hasiko gara. Lehendabizi, komentatu nahi dizuet nik ikerketa gazteekin egitea erabaki dudala, uste dudalako euskararen inguruan zeresan handia duzuela zuek eta gainera zuekin eztabaidak egitean adibidez ba zuen iritzi eta esperientziak hobeto ezagutuko nituela. Orain, eztabaidarekin hasiko gara bai? Baina lehenengo galderarik baldin badago, orain duzue aukera.

DENAK: Ez.

Euskara deskribatzen.

LIBE: Primeran, orain hasteko definizio bat egiten ahaleginduko zarete. Zuentzako euskara zer da? Hizkuntza bat da bai, baina zer motatako hizkuntza da?

16: Arraroa. Ez daukalako jatorri finkorik, ez dakigu nondik datorren.

13: Zaila. Aditz asko dituelako eta gauza asko eduki behar direlako kontuan ondo hitz egiteko.

10: Zaharra. Denbora asko dauka, antzinako hizkuntza da nire ustez.

LIBE: Oso ondo beraz, arraroa, zaila eta zaharra dela esan duzue, zerbait gehiago?

13: Ofiziala da ere. Gaztelanian emon gendun Iberian penintsulan dagoen hizkuntza ofizial bat dela.

14: Nire ustez txikia da ere. Ze bakarrik batzuk hitz egiten dabe, hori Euskal Herrian. Eta ya munduko biztanleak kontuan hartuta... ba gutxiago.

13: Bai, eta gainera, badakigunak hitz egiten ez dugu hitz egiten normalean.

10: Ezezaguna, beste herrialde batzuetan beste batzuk ez dute ezagutzen euskera.

13: Bueno hori da mundu mailan, ze Espainia mailan bai da ezaguna.

10: Bai Espainian bai.

LIBE: Bale ezaugarri asko aipatu dituzue. Orain, zuen ustez euskarak mugak ditu? Gizarte mailan adibidez?

11: Nire ustez ez, ze telebistan badagoz kanal asko euskeraz...

13: Lau.

11: Bai, baina badagoz kanalak eta ikusi ahal dozuz eta ez dira emplan kaka bat. Badagoz albisteak eta umeentzat be bai dagoz eta nik uste dut dela nahiko ona.

13: Bai, batzuk bai, nik ikusten dut "El conquis" baina hori bakarrik.

LIBE: Bale oso ondo. Eta euskara konparatzen badugu beste hizkuntza batzuekin? Adibidez gaztelaniarekin edo ingelesarekin?

16: Ez da berdina, ze erdera jakiteak ate gehiago zabaltzen dauz euskera baino. Ze euskera bakarrik badakizu ezta Euskal Herrian ahal duzu lan egin, eta erdera badaukazu bakarrik bai.

15: Eta bazoaz beste herri batera ez dakite euskera. Igual gaztelera edo ingelesa bai, baina euskera ez. ze gaztelera daki jende gehiagok Euskal Herritik kanpo eta ingelesa be bai.

Euskaldunak bai edo ez?

LIBE: Orain jarraian jarduera bat egingo dugu. Ea aurrekoen emaitza berdina irteten den. Esan didate 27 zaretela zuek gelan, ba orain binaka pentsatu beharko duzue zuen 27 pertsonako talde hori non kokatuko zenuketenez batetik bosterako eskala honetan. 1 zenbakiak guztiz euskalduna esan nahi du eta 5 zenbakiak guztiz erdalduna.

13: Da 4 dagoelako euskara erabiltzen duen bat.

LIBE: Orain, pentsatu binaka zein zenbakitan kokatuko zenuketenez zuen taldea. Prest?

10: Guk pentsatu dogu 4 dala ze euskara baino erdera gehiago hitz egiten dogu etxean eta kalean erdera hitz egiten dugu, eta ikastolan edo ba euskeraz, orduan 4.

16: 4 ere. Berdina pentsatzen dugu, hemendik kanpo erdera hutsean eta ikastolan bai euskeraz egiten dugula horregatik 4.

9: Guk ere pentsatzen dogu 4 dela, baina ere klasean ere dagoz pertsonak euren etxeetan ba be euskeraz hitz egiten dabela.

15: Guk ere uste dogu 4 dela, ze gehienak gazteleraz hitz egiten dogu eta bakarrik batzuk bere etxeetan euskeraz hitz egiten dabe.

LIBE: Danok esan duzue taldea 4 zenbakian kokatuko zenuketela, eta aurreko taldean ere berdina esan dute, adostasuna dago beraz. Orain, batzuek aipatu duzue “euskaldun” hitza, eta gustatuko litzaidake jakitea, zuentzako zer den euskalduna izatea?

12: Euskaraz hitz egitea. Nire ustez euskalduna da euskaraz mintzatzea, baina ez bakarrik momentu batzuetan, nire ustez da momentu gehienetan edo denetan euskaraz egiten duen pertsona.

16: Ba nire ustez ez, nire ustez da Euskal Herrian jaiotzea eta euskaldun sentitzea. Nik adibidez ez dot euskeraz hitz egiten, niretzako zaila delako, zaila iruditzen jatalako; baina euskalduna nazala pentsatzen dot.

Gustuko al duzue euskara? Zergatik?

LIBE: Orain gai aldatuko dugu pixka bat. Ez dakit gogoratzen zareten baina galdetegian galdetu nizuen ea euskara gustatzen zitzaizuen eta zuek asko, pixka bat, gutxi bezalako aukerak eman behar zenituzten. Eta berdina gaztelania eta ingelerarekin. Eta ikusi nuen ingelesa gustatzen zaizuela pilo bat, erdera bai nahikotxo eta euskara gutxiago. Horregatik galdetu nahi dizuet, euskara gustatzen zaizue? Zergatik bai edo zergatik ez?

11: Bai niri gustatzen zait, baina ez klasean emoten dogun moduan; ze da beti aditza, azterketa eta holan eta hori ez zait gustatzen. Baina gero hitz egitea ba sinmas, bai. Euskara gustatzen zait beste hizkuntza bat moduan.

14: Niri adibidez gustatzen jata euskara ingelesa baino gehiago, eta gaztelera baino gehiago ere. Jendeak ez dau hitz egiten, baina bai gustatzen jata. Ze gaztelera ya gagoz ohituta hitz egitera, baina euskerara ez.

LIBE: Bale ondo. Orain, aurrekoarekin loturik, zuek urduri jartzen zarete euskaraz hitz egiten duzuenen? Sentitzen dozue antsietaterik edo ez?

16: Ni bai jartzen naiz urduri, es que nik pentsatzen dut gazteleraz eta orduan hitz egiterakoan ba zaila iruditzen jat, batez ere aditzak.

14: Ni ez naiz jartzen urduri ez.

10: Ni adibidez, jartzen naiz berdin urduri erderaz edo euskeraz hitz egiten, adibidez egin behar badot aurkezpen bat erderaz jartzen naz urduri eta euskeraz be bai.

9: Ni adibidez, erosoago sentitzen naiz gaztelaniaz hitz egiten, azken finean etxean hitz egiten dot erderaz eta ohituta nago gazteleraz hitz egiten.

Euskara eta eskola.

LIBE: Gogoratzen bazarete galdetegian galdetu nizuen zein eskola eredutan ikasi duzuen Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan zehar, gogoratzen zarete?

9: Bai.

LIBE: Bale primeran. Zuek D ereduan ikasten zaudete, eta orokorrean irakasgai gehienak euskaraz egiten dituzue. Zuen ustez, zer da hobeto irakasgai gehienak euskaraz egitea edo irakasgaien erdia euskaraz eta beste erdia gaztelaniaz?

15: Nik uste dut hobeto dala erdia eta erdia egitea, ze gero zoaz Euskal Herritik kanpo eta euskerak ez dizu ezertarako balio.

13: Bai baina orain zagoz ikastola batean eta da hobeto euskera gehiago egotea, erabiltzeko.

14: Gainera ia dena egiten bada euskeraz gure maila izango da altuagoa konparatzen bada erdia eta erdia egiten dutenekin adibidez. Eta gainera dakizkigu palabra tekniko gehiago eta horrela.

15: Baina bazoaz Euskal Herritik kanpora lan egitera? Ez da praktikoa hainbeste euskara egotea eskolan, bakarrik ahal da erabili hemen.

14: Baina da itzultzea eta ya. Da itzultzea euskara gaztelaniara.

15: Baina zailagoa da.

16: Nik uste dut euskeraz bada guztia hobeto. Hobeago ikusten dot ze zuk etxean gazteleraz ya egiten dozu, kalean ere eta euskera ez. Orduan igual euskarari garrantzi gehiago eman behar diozu, bestela ez duzu hitz egingo inon.

9: Bai eta ere hizkuntza hobetzeko. Erabiltzen badugu ikastolan egingo dugu hobeto berba, maila altuagoa eukiko dugu.

Hurbiltasuna.

LIBE: Orain goazen beste alor batetara. Zuek euskara zer sentitzen duzue zuengandik hurbil edo urrun? Esan nahi dut, batzuentzako agian euskara eskolan soilik erabiltzen duzue eta ondorioz urrun sentitu duzue, edo hori ez da zuen kasua?

13: Nik nahiko urrun, ze erabiltzen dut eskolan bakarrik.

10: Nik uste dot ezetz, dago jende asko euskeraz hitz egiten dabena, adibidez aitonak hitz egiten dau euskeraz eta haiekaz hitz egiteko ba euskera behar dogu. Nik adibidez, haiekaz egiten dot euskera, ordun ez da bakarrik eskolan erabiltzen dudana hizkuntza, eta ordun ez dago urrun.

11: Nik uste dot ez dala bakarrik akademikoa, ze be bai daukaz lehengusuak eta holan bizi direla Donostian eta beraiegaz batzuetan egiten dot euskeraz. Ordun, ez da eskolakoa bakarrik, niretzako gehiago da.

16: Nik esango nuke apur bat hurbil sentitzen dudala, ze nire osaba eta euskaraz egiten dabelako baina nire gurasoak ez, ez dakitelako.

12: Nik urrun sentitzen dot, ze bakarrik egiten dot euskeraz ikastolan.

9: Urrun baina ere hurbil, ba azken finean zu jaio zarenez hemen ba da zure kultura eta orduan sentitzen dozu zurea dela hizkuntza ere. Orduan biak.

15: Nik urrun, ze bakarrik hitz egiten dut euskeraz ikastolan, gero gurasoekin eta familiagaz erderaz.

14: Ba kalean gazteleraz hitz egin arren, nik hurbil sentitzen dut.

LIBE: Primeran. Oso ondo, ikusi ahal izan dot Begoñazpin euskalki bat erabiltzen duzuela eta beraz badakizue Euskal Herrian euskalki diferenteak erabiltzen direla. Kontua da, zuen ustez zein da naturalagoa edo praktikoagoa bizkaiera edo batua?

14: Nik uste dot dela naturalagoa euskalki bat erabiltzea, adibidez bizkaiera. Ze Bizkaian erabiltzen da bizkaiera, Gipuzkoan gipuzkera, joan da aldatzen eta ezberdina da.

13: Ba nik uste dot Batua dela praktikoagoa, ze kalean erabiltzen da eta entzuten da askoz gehiago batuera.

16: Gainera, bizkaieragaz egiteko EGA daukazu arazo asko. Eta bardin ipintzen badabe oso ondo ikusten dot bizkaiera baina hori gertatu arte ikusten dot askoz hobeto batua. Ze gainera, danek egiten dabe eta erraztasun handiagoa daukie.

13: Gainera hemen, ikastola honetan biak nahasten dabez. Eta hori azken finean txarra da ze klasean aditzak egiten doguz bizkaieraz baina gero testuak irakurtzean adibidez egiten dogu batuan; eta hitz batzuk erakutsi dozkueze baturaz eta gero hori hitz egiterakoan EGARA joan behar zarenean mintzamina egiteko hori ikusten da, edo idazlana egiterakoan.

10: Bai esaten dozkue EGA-ko irakasleak esaten doguzela hitz asko edo lexikoa batueraz, eta hori da txikitatik erakutsi dozkuezelako gauza batzuk batueraz eta ez bizkaieraz dana. Eta EGAn beti esaten deuzkue hori ez dagola ondo, bat edo bestea baina biak nahastean egitea ez da egokia nire ustez.

15: Gainera, jendea etortzen da beste ikastola batetik eta aditzak zuzentzen doguz bizkaieraz eta gero batueraz esaten doguz.

16: Nire ustez azterketarako EGA esaterako, egon beharko zan batuan edo bizkaieraz egiteko aukera.

LIBE: Bale oso ondo, ikusten dot gaia hau pil-pilean dagoela zuen klasean. Orain, zuen ikuspuntu interesgarria daukazue. Bueno orain, komentatu dugu herri batzuetan euskara asko erabiltzen dela eta denek erabiltzen dutela euskera txikiek, gazteek eta nagusiek; esterako ba Gernika edo Lekeition ez dakit. Zuei gustatuko litzaizueke zuen auzoan hori gertatzea?

16: Nire ustez berdina da, ze azkenean hitz egiten dugu denok gazteleraz eta ulertzen gara eta aldrebes izango bazan bardina izango zan. Gauza da elkar ulertzea.

12: Ba nire ustez ez da berdina, ze euskeraz mintzatzean arazoak euki neinke ez badakit hitz bat euskaraz esaten ba gazteleraz esaten dot.

14: Niri gustatuko litzaidake euskeraz hitz egitea kalean. Batzuetan gaude erderaz hitz egiten denok eta ematen dit benada eta egiten dot euskeraz.

Euskara eta gazteak.

LIBE: Orain galdera zail bat daukat zuentzako. Zuen ustez, zein da gazteek kalean euskara ez egitearen arrazoia?

13: Lotsa. Niri nire familiagaz eta horrela euskeraz hitz egiteak lotsa ematen dit, ez dakit zergatik baina lotsa ematen dit. Nik badakit euskeraz hitz egiten ez da horregatik, baina ez dakit lotsa ematen dit bai.

9: Nire ustez etxean jasotzen duzun hizkuntza azken finean hitz egiten dozu gero, orduan etxean ere erderaz egiten badozu ba gero zaila da gero zuk kalean euskaraz hitz egitea.

LIBE: Ikusi ahal dut, zuen ustez lehen hizkuntzak edo etxean ikasitako hizkuntzak asko eragiten duela gero hizkuntza erabiltzeko orduan, ezta?

DENAK: Bai.

16: Eta ere Francoren garaiak itxi dau bere ondorio, ze nire amak ikasi eban baina nire amama-aitonak ez, bakarrik aitona batek eta izan zan ezkutuan edo eta horregatik egiten dabe nire amak eta osabak euskeraz. Baina hori kenduz nire familiako ia inork ez du egiten euskeraz. Debeku horren ondorioz galdu da asko, eta adibidez nire kasuan, nik amarekin egiten badut euskeraz erdi ahaztu da eta nire aitak ez daki ezer, orduan ezin dot.

Erabilera.

LIBE: Oso ondo. Orain erabileraren lotuta. Zuek, noiz eta zergatik erabiltzen duzue euskara?

12: Pertsona bat ikusten badut kalean edo eta badago euskeraz hitz egiten zuek jarraitzen duzu ere euskeraz egiten.

LIBE: Eta pertsona batengana hurbiltzen baldin bazarete zerbait galdetzeko, zein hizkuntzatan hitz egiten diozue euskaraz edo gaztelaniaz?

DENAK: Gazteleraz.

10: Baina nik badagoz hitz batzuk erabiltzen ditudala beti euskaraz, adibidez: agur, zorionak eta holakoak.

Besteak: Ya bai egia.

9: Ya esk felicitades edo gracias ez dugu esaten. Hori inoiz ez. Horrelako hitzak beti euskaraz.

LIBE: Oso ondo. Orain, agian gertatu zaizue zuei edo lagunen bateri. Batzuetan inoiz euskera egiten ez dutenek hemen, oportetan euskera erabiltzen dute eta denbora osoan ibiltzen dira Athletic-eko kamisetarekin. Zergatik izango da hori?

9: Ni adibidez Galiziara noanean edo, besteak ez konturatzeko zer esaten nagoen erabiltzen dut euskera.

13: Nik ere nire lehengusinarekin egiten dut hori familian, da como hizkuntza sekretua edo indeszifrablea; ze gainera oso ezberdina da gaztelaniarekin konparatzen bada adibidez.

14: Adibidez, interkambioa egin genuen eta joan ginean Erromara ikusi genuen italiara eta gaztelania zirela oso antzekoak, eta orduan gauza batzuk esaten genduzan euskaraz besteak ez ulertzeko.

LIBE: Primeran, orduan atzerrian bai erabiltzen duzue euskera. Eta beste gauza bat, zuek noizbait erabiltzen dozue euskara beste hizkuntza batekin nahasian? Adibidez, “ayer hice la ariketa de matematicas” bezalako esaldiak?

DENAK: Bai!

14: Bai hori adibidez nik esaten dut asko beti esaten dut “ariketa” erderaz hitz egitean ere; igual whatsappen “ pasame las ariketas de mate” esaten dut askotan.

16: Eta aldrebes askoz gehiago. Nik orain adibidez esaten dot “que” hitza euskeraz hitz egitean, ze laguntzen dau asko. Edo “sinmas” esatea adibidez.

LIBE: Eta norbaitek esan dotzue noizbait hizkuntzak nahasteagatik?

13: Bai kasu horietan bai. Eta gero be bai esaten deuzkue ez esateko erderakadarik, batez ere euskerako irakasleak.

14: Y lo que pasa da que askotan igual zaude euskeraz egiten eta eskapatzen zaizu hitz bat edo horrela gaztelaniaz eta ya esaten dizute txarto eta horrela... y vamos pues para eso te quedas callau mejor... es que gainera hitz bat esateagatik gaztelaniaz que tampoco pasa nada creo yo. Eta batzuetan gelditu beharrean isilik porque algo no te sale igual da hobeto esatea hitz bat gaztelaniaz edo ze laguntzen dizu horrek baina ez digute uzten irakaslea.

16: Baina adibidez nik esan dudana “que” hori ez da notatzen. Bueno eta justo “notatzen” da erderakada hori bai.

10: Edo adibidez, etxean nagoenean eta nahiz eta gurasoek euskera ez jakin eta esaten dozu “nire bikotea nose quien da” ba zure aitak ez deutzuz ezer esaten ze badakie zer esan nahi dozun.

Zein faktore dira erabileran eragina dutenak?

LIBE: Gaia aldatuz, ikerketak egin dira jakiteko zenbat pertsonak dakiten euskaraz hitz egiten EAEn eta ikusi da biztanleriaren erdiak baino gehiagok badakiela; baina erabili laurdenak baino gutxiago egiten du. Zuen ustez, zeintzuk dira horren arrazoiak?

10: Beste pertsonak erderaz hitz egitea.

12: Nire ustez da ohituragatik, ze zu ohituta bazagoz besteegaz gaztelaniaz hitz egitera eta besteek ere gaztelaniaz hitz egiten badabe, zuk gaztelaniaz hitz egiten dozu zeren besteak gaztelaniaz hitz egiten badagoz eta zu bapatean hasten bazara euskeraz hitz egiten arraro gelditzen da edo.

13: Bai, baina zu zagoz bizitzen leku baten, non, euskera populazioaren gehienak hitz egiten dauala eta horren ordez zu erderaz hitz egiten zagoz eta gehienak euskeraz daki. Orduan dekozu probabilitate gehiago euskaraz dakien norbaitekin hitz egitea erdera baino.

12: Bai baina adibidez nik bizkaieraz egiten dot eta nire lagun gehienak beste eskola batera doaz eta batuan hitz egiten dabe. Eta beraiek batueraz hitz egiten badabe eta nik bizkaieraz hitz egiten badot, ba hori bai arraroa gelditzen da eta dituzte ulertzen aditzak gainera.

14: Nik, batzuetan nire herrian bizkaieraz hitz egin dot eta beraiek batueraz hitz egiten dabe eta esna doztie ez nabela ulertzen. Osea bizkaiera dakien jendeak ulertzen dau batua, baina aldrebes ez dabi ulertzen.

12: Es que horregatik, batzutan badakizu ez dabiela ulertuko zure euskera, adibidez nire kasuan bizkaiera ba ez dut hitz egingo euskeraz, hitz egingo dut erderaz ulertzeko eta horrela ulertu nabe seguro.

16: Nire bikoteak adibidez ez dozte ulertzen euskeraz. Nik laguntzen diot etxerako lanegaz eta, diktatzen nagonean eta nire aditzak ipintzen badodaz esaten dau como que otro idioma da.

13: Eta oraintxe bertan BI16-k esan dau “diot” ze dakizkigu biak, eta ulertzen doguz ondo.

16: Nik igual batueraz hobeto bizkaieraz baino; baina gero aditzak, baldintzak eta hori ez baina arruntenak bai.

LIBE: Orduan zuek diferentzia handia ikusten duzue batua eta bizkaieraren artean?

16: Bai, nik ez dot ikusten biak dakizkidalako, baina jendearentzat bai.

14: Batuerazkoentzat diferentzia asko dago, baina bizkaierakoentzat ez.

13: Bai, es que gainera baditugu batueraz bakarrik hitz egiten daben irakasleak ere.

LIBE: Bale. Eta zuek adibidez egiten dozueze eskolaz kanpoko ekintzak? Futbola, saskibaloia eta horrelakoak?

DENAK: Bai.

LIBE: Eskolan?

DENAK: Ez!

LIBE: Zein hizkuntzatan egiten dituzue ekintza horiek?

DENAK: Erderaz.

LIBE: Eta zuek uste duzue jendeak ekintza horiek euskaraz egingo balitu, gero beraien bizitzetan euskara gehiago egingo luketela?

12: Ez, ze hitz tekniko gehienak erderaz dakizuz. Oso zaila da hori euskeraz egitea edo bueno jakitea ere.

14: Nire neba de saskibaloiko entrenatzailea ikastola baten eta egin behar du euskeraz berak umeegaz.

LIBE: Eta zuek uste duzue kasu horretan adibidez, ume horiek euskara gehiago erabiliko dutela?

13: Erabili ez dakit, agian, baina seguru ikasiko dutela euskara gehiago, daukatelako aukera egiteko euskeraz kirolean ere.

LIBE: Eta adibidez, zuek uste duzue telebistak eragiten duela? Adibidez, serie gehiago egongo balira euskeraz jendeak euskara gehiago erabiliko luke?

12: Nik uste dut momentuan, osea gaur egun ezetz; baina seguruena 10 edo 20 urte pasata bai. Adibidez, orain aitite-amama gehienak gaztelaniaz hitz egitera ohituta dagoz; baina aldatu daiteke euskara entzuteko eta erabiltzeko aukera gehiago sortzen badira, eta gaur egun hori dago pasatzen. Dago euskara ikasteko aukera askoz gehiago, ordun etorkizuna izango da diferentea.

9: Gainera, gaur egun badagoz “Goazen” bezalako programak euskeraz.

13: Baina nik uste dut euskerako horrelako seriekin erabilera handitzea oso zaila dela, ze daude aukera askoz gehiago beste hizkuntzetan eta gainera guk eskolan ikasten ditugun hizkuntzetan justu asko.

14: Bai, gainera, nire lagun batzuk ikusten dabe Goazen eta gero ez dabe euskera gehiago egiten.

16: Nire ustez euskara hitz egingo da gehiago urte batzuk barru; ze azkenean orain, oraintxe bertan Euskal Herrian ia ume guztiek euskeraz dakite baina guraso guztiak ez eta orduan ba gu nagusiak egiten bagara, ba guk euskeraz aritzen jakingo dogu eta orduan umeekaz bai hitz egin ahalko dogu euskeraz.

14: Baina Libe, portzentajeen arabera euskara ez dago galdetzen?

LIBE: Kontua da, azkenengo hamar urteen ezagutzak gora egin du, hau da, gero eta jende gehiagok daki euskera orain; baina gero eta jende gutxiagok erabiltzen du.

13: Bai, baina adibidez, ikastolan orain gaude egiten proiektu bat eta joaten gara Lehen Hezkuntzara. Eta nik ikusi dodana izan da, umei askoz ere gehiago hitz egiten dabela euskeraz guk baino. Hau da, guk beraien adinean euskera gutxiago egiten genuen, gaur egun, txikiek euskera asko erabiltzen dabe.

14: Bai, baina gero heltzen dira hona, DBH-ra eta egiten dabe erderaz.

13: Bai, baina nire arrebak esan dit erderaz hitz egiten badabe eta irakasleak ikusten edo entzuten badau gurutze batzuk ipintzen dabe eta hori negatibo moduan hartzen dabe.

14: Bai, ze nik umeen geletan ikusi dot como euskaldun agenda eta orduan ipintzen dabez post-it batzuk ikusteko nor doan irabazten nor den euskaldunena.

13: Bai, nik ere. Eta gu txikiak ginenean hori ez zegoen hor.

15: Bai es que orain seigarren mailan ere egiten dabe euskeraz, eta guk beraien adinean ez gendun egiten.

LIBE: Bale, guzti hau entzun ondoren galdera bat etorri zait burura; zuen etorkizunean, ba ez dakit 30-40 urterekin seme-alabak dituzuenean, zein hizkuntzatan hitz egingo diezu?

12: Nik argi daukat: euskaraz. Ze txikitatik ikastea euskara da onena, notatzen da nork egin duen beti euskara etxean eta nor ez, euskaldun zaharra izango dira horrela eta hori hobeto. Gainera, euskaraz ikasteko hobeto, zeren bera handiagoa denean igual ba EGA ikasteko errazagoa izango litzateke berarentzat.

10: Ba nik bietan hitz egingo nieke, bietan erraztasuna izateko.

DENAK: Ya bai.

Hizkuntza eta identitatea.

LIBE: Primeran, orain pentsa ezazue zuen eredu edo idolo batean, izan daiteke futbolaria, abeslaria bueno nahi duzuen egia esan, zuentzako garrantzitsua den norbait. Prest? Orain mesedez esan zuen eredu eta euskara dakien edo ez.

13: Aymeric Laporte, eta berak badaki euskera, pixka bat bai baina gutxi uste dut.

11: Nowitzki eta ez dakit euskaraz.

16: Cristiano Ronaldo eta ez dakit euskaraz.

12: Pele eta ez daki euskaraz.

9: Nelson Mandela eta ez daki ere ez.

15: Jennifer Lawrence eta ez daki euskara.

10: Emma Watson eta ez daki bez.

LIBE: Bale, orduan zuen eredu gehienek ez dakite euskararik. Bale orain, zuen zuen identitatearen inguruko galdera bat, zuek zein motatako euskaldunak zarete?

14: Jo ba ez dakit.

LIBE: Bai, egia esan ez da galdera erraza. Kontua da gizartean sarri egiten da sailkapen bat eta esaten da hiru euskaldun mota bereizi ahal direla: “euskaldunberri”, “euskaldun zahar” edo euskaldun. Entzun dituzue horiek inoiz?

14: Ah bai horiek bai klasean egin dugu.

LIBE: Bale, ba orain hiru euskaldun mota horiek kontuan izanda pentsatu zuen burua zein taldetan kokatuko zenuket. Listo? Prest?

13: Nik adibidez euskaldunberri eta euskaldun taldean. Ba ni sentitzen nazalako oso pertsona euskalduna; baina esan dot euskaldunberri ze hori da ikasi dozunean euskara eskolan, eta hori da nire kasua ba bai. Baina ni sentitzen naz euskaldun Euskal Herrian jaio nazalako eta euskera da pixkat nirea ere ez?

10: Nik ere bi horiek aukeratu dodaz. Euskalduna hemen jaio nazalako eta kultura eta gustatzen jata, eta euskaldun sentitzen naiz; baina euskera eskolan ikasi dot horregatik aukeratu dot euskaldunberri.

11: Nik ere euskaldun eta euskaldunberri.

16: Nik ere bi horiek. Baina bat aukeratu beharko banu izan zan euskalduna.

12: Ni ere euskaldunberri ze ikasi dot hemen hizkuntza ez etxean, eta gero ba sentitu neu euskaldun.

9: Nik ere berdina.

15: Nik ere berdina.

14: Ba egia esan nik ez dakit, ze euskera ikasi dot eskolan, etxean eta gero sentitzen naz euskalduna.

Motibazioa.

LIBE: Primeran, orain, azkenengo galdera: euskaraz egiten duzuenean zergatik egiten duzue euskaraz?

13: Ba nik esan dut uste dut lehen, euskera egiten dut ikastolan. Klasean erderaz hitz egiten badozu bai kentzen doutuela notatik puntuak baina euskeraz hitz egiteagatik ez deutzue igotzen.

14: Baina hori da bakarrik euskarako jarreran.

13: Bai baina maten ez da hori gertatzen, osea igual esaten deutzue zozer irakasleak abisu moduan baina hori bakarrik.

12: Es que guk matematikan egiten dugu berba euskeraz, baina erderaz egiten badogu hitz bat edo ez da ezer gertatzen.

LIBE: Orduan, euskara egiten duzue nolabait derrigortuta zaudelako?

15: Ikastolan egin behar delako, bai derrigortzen digutelako.

LIBE: Oso ondo, ba amaitu da eztabaida, mila esker zuen laguntzagatik benetan eta parte-hartzea asko asko eskertzen dotzuet. Uste dot oin hobeto ezagutzen dudala egoera.

6. ELKARRIZKETA SAKONAREN TRANSKRIPZIOA (5.elkarrizketa)

LIBE: Kaixo, aurrekoan esan nizun moduan elkarrizketa bat egingo dugu gaur eta galderak aurreko ekintzetan egindakoen antzekoak izango dira. Gaurko ekintzaren helburua da zure esperientzia ezagutzea, izan ere, eztabaidan komentatu zenuen euskararekin kontaktu handi xamarra duzula orokorrean eta zure ikuspuntua gehiago ezagutzea interesgarria iruditu zitzaidan. Gaur mota ezberdinetako galderak egingo ditugu: lehenengo zure datu pertsonen inguruko galderak, eta horren ostean zure hiria, erabilera, sentipenak, motibazioa eta bestelakoak aztertuko ditugu. Ondo?

28: Bale, ondo.

Gaztearen datuak.

LIBE: Beraz, hasteko zure datu pertsonalekin hasiko gara. Zenbat urte dituzu?

28: 15.

LIBE: Betidanik egon zara Mendebaldean ikastolan?

28: Bai, bueno, DBH hasi nuenetik.

LIBE: Eta gero, zure lehenengo hizkuntza zein da?

28: Euskera. Bai, euskera bakarrik.

LIBE: Primeran. Eta etxean norekin bizi zara?

28: Ba aita, ama eta neba arrebeekin.

LIBE: Eta denon ama-hizkuntza da euskera? Edo ez? Gurasoena adibidez zein da?

28: Aitarena gaztelania da, bueno bere ama-hizkuntza da gaztelania bai eta gero amarena euskera. Eta bueno arreban nire moduan, euskara.

LIBE: Bale, oso ondo. Eta adibidez aitarekin zein hizkuntza erabiltzen duzu?

28: Bueno, gehienetan gaztelania ba ze berak ikasi dau euskara baina nahiago dau gaztelaniaz hitz egitea. Batzuetan egiten dogu euskaraz, ze egia da bera ahalegintzen dala guri euskaraz egiten baina kostatzen jako gehiago eta ba orduan gaztelaniaz ere egiten dogu askotan.

LIBE: Orduan, denok batera zaudetenean zein hizkuntza erabiltzen duzue?

28: Ba bueno, kuriooa da hau. Ze gaudenean etxetik kanpo egiten dogu gaztelaniaz baina etxean egiten dogu euskaraz. Bueno kanpoan euskara pixkat ba igual bai baina vamos etxean baino gutxiago.

LIBE: Eta, zure ustez etxean ematen zaio garrantzirik euskarari hizkuntza moduan?

28: Bai, bai. Es que gainera gogoratzen naz hasi ginenean gaztelaniaz hitz egiten lagunegaz eta horrela, ba nire arreba eta ni heltzen ginen etxera eta igual hasten ginen gaztelaniaz hitz egiten eta gurasoek esaten ziguten beti euskaraz hitz egiteko, gure hizkuntza dala eta...

LIBE: Bale, oso ondo, galdera hauek zure datu pertsonalagoak izan dira. Orain, zure iritziekin eta esperientziekin hasiko gara. Eztabaida egin genuenean euskara zer motatako hizkuntza zen galdetu nizuen, zuk, ezaugarri batekin soilik deskribatu beharko bazenu zein izango litzateke? Nahi duzun hitzaren bidez deskribatu ahal duzu.

28: “Gurea” izan daiteke hitza. Euskal Herrikoa delako, hemengoa, gurea bakarrik.

LIBE: Oso ondo. Aurrekoan euskararen mugen inguruan hitz egin genuen, zure ustez ba al du mugarik? Izatekotan zein da handiena?

28: Uste dut muga dagoela euskara zabaltzeko orduan, ze irratia adibidez gutxi daude, telebista kanalak ere gutxi daude, eta orduan ba zaila da zabaltzea hizkuntza, horregatik geratu da beti Euskal Herrian eta Iparraldean.

Zure hiria

LIBE: Bale, primeran. Orain zure hiriaren eta auzoaren inguruko galdera batzuk ditut. Zu non bizi zara? Zein auzotan?

28: Gasteizko Zabalburua auzoan.

LIBE: Bale, ondo, eta zure ustez Begoña auzoa zer da euskalduna edo erdalduna?

28: Bi aukeretako bat aukeratu behar baldin bada Gasteiz orokorrean erdalduna bai, euskara oso gutxi entzuten da.

LIBE: Bale, ondo. Orain pentsatu, Zabalburua auzoan posible da euskeraz bizitzea?

28: Zaila baina bai... Mmm ahaleginak eginda bai. Hombre, niri orain gertatzen zaidana da ba igual egiten dudala euskeraz denda batean eta erantzuten didatela gaztelaniaz. Eta hori da ba igual ezagutzen zaituztela ze ikusten zaituzte auzotik eta badakite gaztelaniaz dakizula, baina adibidez dator orain kanpotar bat eta ez diete gaztelaniaz hitz egingo ze igual ez daki, orduan bai ahalko luke. Osea nire ustez jendeak jakingo ez balu gaztelaniaz dakigunik euskara gehiago entzungo zela, baina dakitenez gaztelania dakigula pues hori beti gaztelania entzuten da.

Zure eskola

LIBE: Orain eskolaren gaia landuko dugu. Aurrekoan eztabaidan komentatu genuen D ereduaren kontua. Zure ustez irakasgai gehienak euskeraz egitea zer da positiboa edo negatiboa?

28: Ez, nik uste dut euskaraz hitz egiten dela ze azken finean gure hizkuntza da. Euskal Herrian, gu bereizten gaituena da euskara orduan ba ez dauka zentzurik negatibo moduan sentitzea euskara asko erabiltzea nire ustez.

LIBE: Bale, primeran. Orduan zuk ez dozu sentitzen norbaitentzako euskera inposaketa bat izan ahal denik?

28: Ba igual kanpotarrak edo beste herrialde batzuetatik datozenak ba bai sentitzen dute euskera dela inposaketa, ze igual bere hizkuntza ez da euskara eta arraro sentitzen dira.

LIBE: Bale oso ondo. Eta zure ustez, euskera hainbeste erabiltzea ikastolan beste hizkuntzei garrantzia kentzen die?

28: Nire ustez ez. Osea gaztelania osea ikasi egin behar da, sintaxis eta abar eta ingelesa ere bai baina matematika eta beste irakasgaiak euskaraz ikastea ondo dago. Gainera, ba jende askok bakarrik egiten du euskera klasean eta hori kentzen bada ba inoiz ez dute egingo, ze gaztelania da erabiltzen dugun hizkuntza gehienbat eta gero ba ingelesa oso hizkuntza potentia da gizartean asi que ez dago arriskuan.

LIBE: Primeran. Bueno zu orain ikasle eleanitza zara ezta? 3 hizkuntza dakizkizu eta. Hizkuntza horiek zure bizitzan duten garrantziaren arabera sailkatu beharko bazenitu zein ordenatan antolatuko zenituzke? Garrantzitsuenetik hasita.

28: Ba nire kasuan, niretzat, euskara. Zeren Euskal Herrian gaude eta euskara nire ustez da ezinbestekoa hemen. Gero, gaztelania agian, ze inguruko lurraldeekin komunikatzeko eta abar erabilgarria delako eta gero ba ingelesa ze orain esaten dute ba garrantzia handia duela munduan.

Erabilera

LIBE: Primeran. Orain erabileraren gaiarekin hasiko gara. Zuk non erabiltzen duzu euskara?

28: Ba etxean eta lagun talde batzuekin.

LIBE: Ikastolako lagunak?

28: Ez, bueno euskaraz gehienbat herrikoak eta kanpinekoak. Es que nire herria da Aramaio. Ah bueno eta gero klasea barruan ere egiten dot euskara eta igual klaseko norbaitekin baina gutxi.

LIBE: Bale oso ondo. Gero zuk esan dozuna, norbaitengana hitz egitera denda batetara edo adibidez, eta pertsona horrek euskara gutxieste?

28: Ba bai. Dago jende baietz, osea nola nahiago dauen gaztelaniaz hitz egitea ze esaten dabe botere gehiago daukala... nik uste dut badagoela jendea eta notatzen da, pertsona batzuk ez dute gustuko edo horrela.

LIBE: Oraingoa igual galdera zaila da, momenturen batean sentitu zara harro euskara erabiltzeaz edo jakiteaz?

28: Nik uste dut ezetz. Katalanek daukate katalana, galiziakoek galiziera eta guk euskara, azken finean da beste hizkuntza bat. Euskara da gehienbat ba berezi egiten gaituena, eta beste hizkuntza bat da noski, baina harro sentitzea hizkuntza erabiltzeagatik ez zait gertatu ez.

Aisialdian

LIBE: Orain, pentsa ezazu zure hobby batean.

28: Karatea.

LIBE: Imajinatzen dot entrenatzaileak dituzuela, berarekin zein hizkuntza erabiltzen duzu?

28: Gaztelaniaz. Kanpoko ekintza bat denez... eta agian ba jendea dagoelako beste hezkuntza eredu batzuetan... ba orduan gaztelaniaz egiten dugu, horrela denok ulertzen dugulako.

LIBE: Bale primeran. Eta Lehen Hezkuntzan egiten zenuen eskolaz kanpoko ekintzarik?

28: Bai, esku-pilota.

LIBE: Eta entrenatzaileek beti beti egiten zuten euskaraz? Edo gaztelania ere presente zegoen?

28: Bai, denbora guztian egiten zuten euskaraz. Zergatik a ver adibidez Tokieder ikastolan D eredia dago eta denok egiten genuen euskaraz eta orduan entrenatzaileek ere beti egiten zuten euskaraz.

Komunikabideetan.

LIBE: Primeran. Orain komunikabideei buruzko galderekin hasiko gara. Ba al daukezu serie edo telebistako programa gogokorik? Momentu honetan esan nahi dut.

28: Gehienbat... bueno serie favoritoa ez dakit... baina nik Goazen ikusten dut nire txikitako oroitzapenak presente izateko eta orain ere ikusten dut, gustuko dut.

LIBE: Telebistarik ikusten al duzu euskaraz? Ze kanal ikusten duzu normalean?

28: Ba FDF, Discovery Max...

LIBE: Eta horiek zein hizkuntzatan ikusten dituzu? Ze uste dut gaztelaniaz eta ingelesez ikusteko aukera dagoela.

28: Nik gaztelaniaz ikusten ditut bai.

LIBE: Irratia entzuten al duzu noizbait?

28: Ba Gaztea, Los 40 batzuetan eta nagoenean herritik irratia hartzen du sintonia deitzen dela Arrate, dela Bizkaikoa uste dut.

LIBE: Eta gero, sare-sozialetan euskara agertzen da uneren batean?

28: Nire kasuan bai agertzen da euskara, zergatik whatsappen ba familiarekin ere euskaraz, talde batzuekin ere, orduan ba orokorrean euskara dakien jendearekin ahalegintzen naiz euskaraz egiten, baina bueno ba batzuekin inoiz ez dut egiten euskaraz eta bueno ba horiekin whatsapp bidez ere ba gaztelania erabiltzen dut. Depende zein hizkuntzatan hitz egiten dudana pertsona horrekin normalean bizitzan ba hori erabiltzen dut whatsappen, ze beti egin da horrela eta dago como oso establezitura.

LIBE: Orduan klasekideekin zer erabiltzen duzu euskara edo gaztelania taldeko whatsapp taldean esaterako?

28: Gaztelania beti. Bai bai kasu horretan zalantzarik gabe.

LIBE: Bale oso ondo. Orain, imaginatu zuen tutoreak eskatzen dizuela pertsona ospetsu bati buruzko informazioa bilatu behar duzula Interneten, zein hizkuntzatan egingo zenuke bilaketa?

28: Ba euskara klaserako euskaraz egingo nuke, ze adibidez orain ba gaude lan bat egiten Angel Lertxundiri buruz eta bere bibliografia ba badago euskaraz hemengoa delako eta orduan ba errazago egiten da lana dagoeneko informazioa euskaraz badago. Baina beste arlo batzuetan, biologia eta beste batzuetan informazioa ez da nahikoa

euskaraz eta orduan bilaketa egiten dot gaztelaniaz eta gero itzuli egiten da eta listo, ohituta gaude hori egitera.

Lagunartean

LIBE: Eta BI1 zure ustez, lagunartean, gazteek, hizkuntza bat beste bat baino onartuago dago? Edo zein da onartuen dagoen hizkuntza hemen Bilbon?

28: Nik uste dut arrazoi nagusia dela ohitura, zergatik orain hasiko bagina euskaraz kuadrillan saiatuz eta saiatuz lortuko genuke kuadrillan sartzea euskara baina da ohitura ya gaztelania erabiltzea.

LIBE: Eta zuk adibidez, zure lagun taldean esango zenuke baduzuela euskaldun sutsurik? Ba ez dakit igual esaten “egingo dugu euskeraz” edo horrela zerbait.

28: Normalean izaten naiz ni ahalegintzen naizena euskara ateratzen baina... es que denek egiten badute gaztelaniaz ba oso zaila da; eta gainera nik euskaraz egiten dudanean beraiek jarraitzen dabie gaztelaniaz egiten eta horrek nekatzen du, ze beti naiz ni esfortzua egin behar duena.

LIBE: Vale, oso interesgarria da hori. Zu adibidez sentitzen zara deseroso orduan zuk euskaraz egiteko ahalegina egiten duzunean eta besteek ez?

28: Bai ahalegina egiten dudanean sentitzen naiz deseroso. Osea nik nahi dut saiatzea euskara gehiago egiten kuadrillan eta ahalegintzen naizean euskara egiten ba momentu horretan nire pentsamenduak dira positiboak, emplan “venga ba euskeraz” baina gero ya gogaitzen naiz, nekatzen naiz.

LIBE: Eta zuk orduan uste duzu zure lagun taldean posible izango zela zure lagun taldean euskara gehiago egitea?

28: Bai baina agian nik bakarrik ez dut lortuko, beharko genuke beste norbaitek ere ahalegina egitea, igual beste bakar batekin nahikoa da ze ya bi gara eta orduan gure artean euskara egingo genuke eta igual guri entzunda besteei ere pasau ahal jakue hori. Baina ahalegina pertsona bakarrak egiteak nekatzen dau eta gainera beti berdina bada pues es que ya ematen dizu hasta lotsa egitea euskara ze da arraroa norbaitek hori egitea kuadrillan bueno Gasteizen eh.

LIBE: Eta gaia aldatuz, zure ustez zein da gazteek gaztelania erabiltzearen arrazoi nagusia? Bakar bat esan beharko bazenu?

28: Nire ustez gaztelania “hiriko kaleko hizkuntza da”, osea hirian nola dauden denda gehiago eta abar eta gaztelaniaz gehiago egiten dute. Adibidez, joaten zara dendetara eta gaztelaniaz, kiroldegian ere eta orduan amaieran ba gure artean ere egiten dugu gaztelaniaz. Hizkuntza hori bizitzako eremu denetara pasatzen da edo horrela, komodoena da hori gainera badakizu denek ulertuko dizutela. Es que adibidez nire herrian, bueno hori ez da hiri bat da herri txiki bat, non dagoen denda txiki bat, polikiroldegi bat eta horrela eta denean denek egiten dute euskaraz eta orduan kalean ere euskaraz hitz egiten da. Eta Gasteizen por ejemplo es que zoaz medikura eta badago jendea dakiena euskara baina es que topatu behar duzu pertsona hori, ordun pues como que egin behar da ahalegin extra bat edo horrela eta ordun pues es mas comodo egitea gaztelaniaz eta ya.

LIBE: Bestetik, batzuetan entzun da gaztelania euskara baino hizkuntza “guay-agoa” dela. Ados?

28: Nire ustez hizkuntza guayagorik ez dagoela, gauza da bat gustatzen zaizu bestea baino gehiago, bat da bestea baino errazagoa, ze argi dago euskara gaztelania baino hizkuntza zailagoa dela, hori denok dakigu... baina azken finean da zuk hitz egiten duzuna, osea zeinekin nahi duzun komunikatu.

Hizkuntza sentipenak

LIBE: Vale, oso ondo. Orain, ospatzen duzue euskeraren eguna? Zertarako balio du horrek?

28: Hemen, institutoetan eta horrela ez dauka efekturik nire ustez, baina zoaz herrietara eta ba bai. Ni adibidez egon nintzen nire herrikoan, eta egin genuen korrika bat eta prestatu genituen gauza askoz gehiago eta nabaritzen da. Ospakizun handiagoak egiten dira leku batzuetan eta horrek nire ustez erakusten du asko leku bakoitzean zenbateko garrantzia ematen zaio euskarari eta hemen ez da handia sinceramente. Por ejemplo Gipuzkoan eta horrela egiten dira gauza gehiago euskaraz porque les importa mas el euskera en si, baina pues beste hiri eta herrietan pues ez da egiten casi ezer.

LIBE: Eta orain galdera pixkat pertsonago bat. Zuk euskeraz hitz egiterakoan eta erderaz egiterakoan urduritasun berbera sentitzen duzu?

28: Ba ez osea ni gaztelaniaz jartzen naiz urduariago. Inprobisatzeko orduan euskaraz askoz lasaigo nago eta gaztelaniaz uff... bilatu behar ditut gauza mordoa, ez naiz kapaza ondo ondo inprobisatzeko.

LIBE: Zuk noiz ikasi zenuen gaztelaniaz hitz egiten?

28: Bueno nire familian gertatzen dena da, nire amaren familian denok euskaraz eta denok ondo; baina nire aitaren zatia nire aita da bakarra euskaraz dakiena, ze nire aitonek ez dakite. Orduan nik gaztelania ikasi nuen aitonekin komunikatzeko pixka bat, baina orokorrean ikastolan ikasi nuen, uste dut izan zela... hirugarren mailan, bai.

Identitatea

LIBE: Eta zu euskararekin identifikatzen zara orduan?

28: Bai bai.

LIBE: Eta euskal kultura esaterako, sentitzen duzu zeure?

28: Bai nik sentitzen dut euskal kultura nire parte dela, baina ez bakarrik hori, osea nire parte eta euskaldun pertsona denena. Zergatik azken finean hemen bizi gara eta ba geurea delako... ez dakit ondo azaltzen hori egia esan... arrazoa esan nahi dut.

LIBE: Bale, aurrekoan, ez dakit gogoratzen zaren, baina galdetu nizuen nor zen zuen eredia edo idoloa gogoratzen? Zuk nor esan zenuen?

28: Mainer Unda.

LIBE: Egia. Eta txikitan gogoratzen ba al zenuen eredurik?

28: Ez dakit, ez dut uste.

Hizkuntza eta politika

LIBE: Oso ondo. Orain hizkuntza eta politikarekin erlazionatutako galdera bat daukat, agian zaila da. Zure ustez, euskara hizkuntza pentsamendu politiko edo ideologiko konkretu batzuekin lotzen da?

28: Ez, nire ustez ez. Euskal Herri barruan denetarik dago, batzuk bai nahi dute independentzia, baina beste batzuk nahi dabie erakutsi Kalaluniak Katala duen moduan eta bere kultura duen moduan guk euskaldunok ere geure hizkuntza eta herri dugula, eta gero badaude beste batzuk Espainiatik kanpo irtetea... nire ustez daude bi forma: batzuk nahi dute ikustea mapa batean beraiek Espainiatik kanpo daudela eta beste batzuk nahi dute Espainia barruan badugula geurea den zerbait edo.

LIBE: Bale bale, orduan ez duzu uste politika sartuta dagoenik honetan?

28: Bueno, a ver, noski baietz. Ze igual goazenean txapelketetara ba Murciara edo holan karaten ba gure artean igual egiten dugu euskeraz besteek gu ez ulertzeko eta besteek igual esaten dute emplan “ que vosotros sois los vascos y tal...” bai entzun ditugu horrelakoak baina bueno ez da arazo bat nire ustez.

Motibazioa

LIBE: Bale, primeran. Eta amaitzeko, zure ustez, zein da zuk euskaraz egiteko duzun motibazio?

28: Nire motibazioa da zergatik ba ez dut nahi besteak bezala izatea, nik euskalduna izan nahi dut, hemengoa izan nahi dut, ze gaztelaniaz egiten baduzu ez zaude erakusten nongoa zaren eta nik sentitu nahi dut euskaldun, eta askotan entzuten den moduan euskara da euskaldun egiten giatuena.

Etorkizuna.

LIBE: Eta zuk aukeratu ahal izango bazenu, zure etorkizuneko lanean zein hizkuntzatan gustatuko litzaizuke lan egitea?

28: Niri euskaraz.

LIBE: Zure ustez, etorkizunean, 26 urterekin euskara gehiago edo gutxiago erabiliko duzu zuk?

28: Nik uste dut... agian gehiago... ze adinak gora joan ahala gehiago pentsatzen duzu nahi duzula jendeari erakustea euskaraz hitz egin behar dela eta nik uste dut etorkizunean orain baino motibatuago egongo naizela euskaraz hitz egiteko ze izango naiz kontzienteagoa.

LIBE: Primeran, eta orduan familia bat duzunean zure umeei zein hizkuntzatan hitz egingo diezu?

28: Euskaraz. Bueno segun ze kasutan, ze adibidez nire gurasoen kasua gertatzen bada, hau da nire bikoteak edo ez badaki euskara pues igual euskara eta gaztelania biak. Baina argi daukat hemen biziko bagara, eta hori nahi dut, euskara jakin egin behar dela.

LIBE: Oso ondo, amaitzeko, zuk sentitzen duzu “beldurra” edo euskara desagertuko dela edo? Ba al duzu sentsazio hori?

28: Bai. Ze lehen ez hainbeste, ze egon zen momentu bat, kontatzen didate nire aitonak eta Franco eta garai horretan euskara hitz egiten zela oso gutxi debekatuta zegoelako eta igual hori pues baserrietan eta horrela erabiltzen zen. Baina garai hori pasatu zenean gazteak hasi ziren denak euskaraz hitz egiten eta entzuten zela mordoa eta orain nik ikusten dut jende gaztea egunero egunero eta ez da euskararik entzuten. Es que gainera jendeari como que berdin dio euskerak eta jarrera da nahiko eskasa edo... Eta orduan, ba egoerak horrela jarraitzen badu ba daukat beldurra euskara desagertuko dela, nire ustez txarrera goaz eta horregatik umeak ditudanean hitz egingo diet euskaraz, ba hizkuntza ez galtzeko eta beraiek ere erabiltzeko euskara.

Eskerrak eman.

LIBE: Bale ba, hau izan da dana. Mial esker zure parte-hartzeagatik. Oso interesgarria iruditu zait. Suerte azterketekin.

